# Goienkaria

2008ko irailaren 12a > Egubakoitza > VIII. urtea > 344. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Kirola, moda baino gehiago, osasuna da, betiere nork bere neurrian eginda"

**Yolanda Perez de Arenaza** > 09



**G2a** Danbakako DVD-CDa aurkeztu dute > 43-44

**NEKAZARITZA**
**Mahats eta sagar ekoizpen eskasa aurreikusten dute ibarrekoek** > 06

**ARRASATE**
**Garaiara eramango dute Uribarriko ondare den Mendiazpi zubia** > 19

**LEINTZ GATZAGA**
**Atzo, eguena, zabaldu zuten Soran Etxea hotela, bi izarrekoa** > 39

**EUSKARA** > EUSKALTEGIAK

## Sheriffa ikasle bila ibiliko da

Udal Euskaltegiek 'Wanted' kanpaina berritzailea aurkeztu dute > 04

**HEZKUNTZA** > MU

## Eskaintza Bolognara egokitu duen lehena da MU

Mondragon Unibertsitatea eskaintza akademikoa Europara egokitu duen Euskal Herriko lehen unibertsitatea da.Ingeniaritza alorreko bost gradu eta Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako beste bat abian jarri ditu. Plangintzak Bolognara moldatzen ari dira apurka Debagoieneko unibertsitateak. > 02-03

**KIROLA** > LASTERKETA

## Ezpeletak Kopa irabaz dezake etzi

Mendiko lasterketan Kopako azken proba jokatuko du > 41

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-41
**Kirola** > 42
**Kultura** > 44-45
**Berri-zakua** > 46
**Eskelak** > 47
**Sailkatuak** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55



**GOZOGILEAK** Larrañaga, Raizabal eta Mujika gozotegietakoak, eurek egindako erreileno eta tostoiekin. XABIER URTZELAI

**JAIA** > SAN MARTINAK BERGARAN

# Erreileno eta tostoien kofradia etzi batuko da

**KAPITULUA** Kofradiak 9. kapitulu edo batzarra egingo du etzi, domeka, San Martin jaien aitzakira

**DANBORRADA** San Martin bizperan, nagusien danborradak herri osoa zeharkatuko du

Erreileno eta tostoien kofradiak bere IX. kapitulua egingo du domekan. Dagoeneko San Martin jaietako ekitaldi garrantzitsu bihaurtu da hori, baina beste hainbat hitzordu daude jaietako egitarauan.

Zapatu goizean, barazki, fruta eta gazta azoka eta lehiaketa egongo da San Martin plazan. Astelehen gauean, nagusien danborrada egingo dute Bergarako kaleetan zehar. > 15 eta 24






HEZKUNTZA > BOLOGNAKO PROZESUA

# Europar Eremura egokitutako graduak eskaintzen ditu dagoeneko MUk

**LEHENA** Bolognako prozesura egokitutako eskaintza akademikoa abian jartzen duen Euskal Herriko lehen unibertsitatea da MU

**SEI GRADU** Ingeniaritza alorreko bost titulazio eta Empresa Administrazio eta Zuzendaritzaren alorreko beste gradu bat eskaintzen ditu

**ETORKIZUNA** 2009/2010 ikasturterako ikasketa guztiak egokituta izango ditu MUk; UNEDen, berriz, 2010/2011 ikasturtean jarri dute muga

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Ikasturte berria hastear dagoenean, Debagoieneko unibertsitateetan lanpetu samar dabiltza aurten, Europako Unibertsitate Eremua eratzeko prozesua –Bolognako prozesua– dela eta. Abian jartzeko gero eta gutxiago falta da eta egokitzapen asko egin behar dira oraindik.

Alor horretan aurreratuta daude Mondragon Unibertsitatean (MU), Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokitutako eskaintza akademikoa abian jarri duen Euskal Herriko lehen unibertsitatea da-eta.

Astelehenean lehenengo sei gradu titulazioei hasiera eman zieten han: bost ingeniaritzaren alorrekoak, Arrasaten; eta bestea Empresa Administrazio eta Zuzendaritzaren alorrekoa, Oñatin. Esandako gradu titulazioetan 320 ikasle inguru matrikulatu dira. MUtik azaldu digutenez, 2009/2010 ikasturterako eskaintza guztia Europar Eremura egokituta egongo da.

Jakina denez, Bolognak berrikuntza asko ekarriko ditu unibertsitateetara. Huheziko irakasle Xabier Arregik eta Aitziber Arregik horren gainean zabal hitz egin dute. Horren helburua goi mailako hezkuntza eremuan irizpideak batera alderatzeko aldarrikapena lortzea dela eta horretarako legeak aldatu behar izan direla gogora ekarri du azkenak: "Horren ondoren, Bolognaren aplikazioa etorri da; hori Europako herrialde ezberdinetan ezartzea". Datorren ikasturtea azkena izango da gaur egungo ikasketa plangintzekin eta unibertsitateak derrigortuta egongo dira berriak sartzen joatera.

**Diplomaturak eta lizentziaturak lau urteko graduengatik ordezkatuko dira; irakasle ikasketak, esaterako, lau urtekoak izango dira**

**Bigarren Hezkuntzako irakasle izan gura duenak urtebeteko masterra egin beharko du; egungo azterketa desagertu egingo da**

**GRADUAK**

Egungo sistemaren desagerpena ekarriko du horrek. Diplomaturak eta lizentziaturak desagertu egingo dira eta lau urteko graduak izango dira ikasketa guztiak, bakar batzuk kenduta. Azken horietan, medikuntza, odontologia eta arkitektura daude. Hala, Irakasle ikasketak, esaterako, hiru urtekoak izan beharrean laukoak izango dira. Graduek, bestalde, master ofizialetan zuzenean sartzea ahalbideratuko dute.

Aitziber Arregiren esanetan, "lehen, plangintzak oso itxiak ziren. Hemendik aurrera, unibertsitate bakoitzak askatasuna edukiko du zer gradu jarriko dituen martxan erabakitzeko eta horiek nola emango diren. Baina kontrol gehiago egongo da, ikasleen gaineko informazio gehiago eman beharko diogulako administrazioari eta auditoriak egingo direlako". Sistema aldaketak honako hau eragitea espero du: "Espainiako unibertsitate sistemara koherentzia ekartzea; egun oinarrituta dagoen edukietatik, ikasleen gaitasunaren garapenera".

Xabier Arregik aipatu du, azken horren harira, metodologia aldaketa ekarriko duela. Beste telako berrikuntzak ere aipatu ditu: titulazio bakoitzaren kreditu kopurua handitu egingo dela esan du. Horren bidez ikasleen lana baloratuko dela dio. Horrez gain, titulazio gehienak profil profesional bati begira egina daudela azaldu du: "Horrek kritikak jaso ditu, lan merkatura begira daude eta, beharbada, unibertsitatea beste zerbait gehiago ere bada". Sistema berriak Europa mailan mugikortasuna ere ekarriko duela dio: "Horrek, agian, eskatuko du unibertsitateen artean sarea eratzea, eskaintzak batera egin ahal izateko".

**DATUA**

**320**
**IKASLE**

320 ikasle inguru matrikulatu dira honako sei graduetan: Ingeniaritza Mekanikoa, Industria Elektronikoko Ingeniaritza, Industria Antolakuntzako Ingeniaritza, Informatikako Ingeniaritza, Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza eta Empresa Administrazioa eta Zuzendaritza.


Ingeniaritza arloko gradu titulazioetan matrikulatu

**HASTAPENAK**

MUn 1999a ezkero dabiltza horretan lanean, Mendeberri hezkuntza proiektuaren barruan. "Horren helburua zen ikaslea prozesu baten barruan sartzea irakasleak ondoan dituela; eta ezagutza





diren ikasleak atzo, eguena, Mondragon Unibertsitearen Goi Eskola Politeknikoan. MIRIAN BITERI

IKASLE KOPURUA

## Debagoieneko unibertsitateek 5.000 ikasle dituzte

Matrikulazio epea zabalik dago oraindik Mondragon Unibertsitatean. Datorren astean itxiko dute. Hango arduradunek, baina, aurreikusi dute aurten 3.600 ikasle inguru izango dituztela Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan eta Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultatean.

Bergarako UNEDen, bestalde, oraindik ez dute matrikulazio epea ireki. Eguenean, irailak 18, zabalduko dute eta urriaren 31ra arte iraungo du. Hilabete eta erdi izango dute, beraz, ikasleek izena emateko. Ikasturte hasiera, baina, lehenago hasiko da han. Urriaren 16an ekingo diete eskolei eta tutoretza orduei. Aurreikusi dute, era berean, aurtengo ikasturtean 1.300 ikasle inguru izango dituztela. Horietatik eskoletara 400 ikasle baino gutxiago joaten dira.

## Ikasturte hasiera, ikasketen arabera

| | |
|---|---|
| **HUHEZI** | |
| Psikopedagogia | Irailaren 22an / Irailaren 29an* |
| 2. diploma | Irailaren 23an / Irailaren 8an* |
| Ikus-entzunezko Komunikazioa | Irailaren 25ean / Irailaren 18an* |
| Irakasle ikasketak | Irailaren 25ean / Irailaren 22an* |
| **GOI ESKOLA POLITEKNIKOA** | |
| Graduak | Irailaren 8an |
| Gainontzeko guztiak | Irailaren 24an |
| **ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA** | |
| Zuzendaritza Idazkaritza | Irailaren 15ean / Irailaren 17an* |
| Gradua | Irailaren 8an |
| Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatura | Irailaren 15ean / Irailaren 20an* |
| **UNED** | |
| Ikasketa guztiak | Urriaren 16an |

* Lehenengo mailaren eta gainerako mailen datak.
ITURRIA: MONDRAGON UNIBERTSITATEA ETA UNED

metatzeari hainbesteko garrantzirik ez ematea. Horri esker hainbat lan aurreratuta ditugu". 2002tik gaur arte eskaintzen dituen espezialitate guztietan aplikatzen da Mendeberri proiektua.

Aitziber Arregik azpimarratu du, gainera, irakaskuntzarekin lotutako beste aldaketa bat ekarriko duela Bolognak. Orain arte Bigarren Hezkuntzatik gora irakasle aritzeko azterketa desagertu egingo dela eta irakasle izan gura duenak urtebeteko masterra egin beharko duela dio. MUk datorren ikasturtean eskainiko du esandako masterra. Horren egitura eta iraupena zehaztuta dute dagoeneko.

"Aldaketa guztietatik hurbilago gaude Euskal Herriko Unibertsitatea edo edozein unibertsitate publiko baino, azken urteotan egindako lanagatik", esan dute azkenik MUko irakasleek.

**UNED: BOLOGNARI ERANTZUTEN**

Bergarako UNEDen ere gogor dihardute lanean prozesuaren harira. Hango zuzendari Juanjo Alvarezen arabera, Bolognaren metologiak "UNEDetik egiten ari garenari erantzuten dio". Jakinarazi du 2010/2011 ikasturtean egongo direla ikasketak Europar Eremura egokituta. "Modu lasaian egin nahi dugu aldaketa, presa barik. Izan ere, horri erantzuten ari diogu", dio. Data hori iristen den bitartean, kredituen metodologia aldatzen hasi dira.

Hala, Alvarezen esanetan, "aurten matrikulatzen den edozein ikaslek ikasketak Bolognako prozesuarekin amaitzeko aukera izango du. Hori oso inportantea da. Kontuan izan behar da UNEDen ikasketak, normalean, ez dituztela lau urtean amaitzen. Matrikulatu den moduan edo Bologna ereduarekin amaitu ahal izango dituzte". Gainera, esan du prozesu horretatik aplikatzen den metodologia "oso interesgarria" izango dela. Horren harira, azaldu du ikasgai bakoitzean lortuta emaitzaren %40 ikasturtean zehar egindako lanen bidez lortu ahal izango dela: "Ikasleak tutorearekin hitzorduak eduki beharko ditu lanak aurkezteko".

Alvarezek aipatu du, azkenik, teknologia berriak bultzatuko dituztela. "Hor dago gakoa gurean. Hainbat udalekin kontaktuan jarriko gara herrietan gelak egokitzeko eta ikasleek eskolen jarraipena egin dezaten horietatik, Bergarara etorri barik".

Ikusi bezala, bailarako unibertsitateak badabiltza apurka Bolognara egokitzen; guztien gustukoa ez den prozesura, hain zuzen. Jakina denez, Ikasle Abertzaleak aurka daude, euskal ikasleen honako eskubideak "urratzen" dituelako: hezkuntzakoak, hizkuntzazkoak, hezkidetzakoak eta kulturalak; eskubide demokratikoa; Euskal Herrian eta ikas baldintza duinetan ikastekoak; hezkuntza prozesuan subjektu izateko eskubidea eta kolektibo gisa jarduteko eskubidea.






Udal euskaltegien kanpainaren aurkezpen ekitaldia, besteak beste, Inaxio Garro Aretxabaletako alkatea ageri dela. MIREN ARREGI

**EUSKARA** > IKASTURTE BERRIA

# Euskaltegirako ikasleak bilatuko ditu sheriffak ibarreko kaleetan

Leintz eta Arrasateko udal euskaltegiek 'Wanted' kanpaina jarri dute martxan

Sheriffa Aretxabaleta eta Eskoriatzan ibiliko da astelehenean, eta Arrasaten hilaren 17an

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA

"Kanpaina deigarria, dibertigarria eta berritzailea egin dugu, eta Gipuzkoa osoko 20 udal euskaltegiren publizitate kanpaina izango da". Hala laburtu zuten Leintz eta Arrasateko udal euskaltegietako arduradunek *Wanted* kanpaina, eguaztenean, Aretxabaletan egindako prentsaurrekoan.

Artemanek egin ditu Gipuzkoako udal euskaltegien kanpainarako irudiak.

**SHERIFFA, PROTAGONISTA**

Kanpaina dibertigarria izateko hainbat euskarri erabiliko dituzte; besteak beste, eskuorriak eta iragarkiak prentsan eta Interneten. Era berean, *Youtube* eta *Google*-en ikusgai dago kanpainaren bideoa.

Helburu nagusia udal euskaltegiak kalera ateratzea da. Hala, euskaltegiko sheriffa ikasle bila ibiliko da kalerik kale. "Aretxabaletan eta Eskoriatzan astelehenean ibiliko da eta Arrasaten, hilaren 17an. Jendea berehala konturatuko da, sheriffa kalean ikusiko dute-eta".

**ESKAINTZA ZABALA**

2008-09 ikasturteko eskaintzari dagokionez, gazte etorkinei zuzendutako hizkuntza errefortzuak eta etorkinendako ikastaro bereziak, mintza saioekin osatzen den auto-ikaskuntza ikastaroa, euskalkiak ikasteko edo hobetzeko ikastaroak, Hika berba egiten ikasteko ikastaroak eta ahozkoan trebatzeko antolatutakoak eskainiko dituzte Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal euskaltegiek. Bestalde, eskaintza irekien atalean beste bi aukera eskainiko dituzte: alde batetik, herriko beste hainbat talderekin batera bultzatutako Barriketan proiektua Aretxabaletan eta Zahar-Berri Arrasaten; eta beste alde batetik, euskaltegiko ikasleei eta gainerako herritarrei irekita dauden ekintza osagarriak.

Izena emateko, interesatuek Aretxabaletako (943 79 21 68), Arrasateko (943 79 70 77) edo Eskoriatzako (943 79 21 68) udal euskaltegietara jo dezakete, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara Arrasaten eta 19:00ak arte Eskoriatza eta Aretxabaletan.

**BERGARAN HURRENGO ASTEAN**

*Wanted* kanpainaren berri emateko prentsaurrekoa egingo dute Bergarako Udal Euskaltegian eguaztenean, 11:00etan. Bergaran martitzenean irtengo da sheriffa ikasle bila.

**DEIALDIA**

## Donostiatik Eskoriatzara autobusa jarri guran

Ibarrera lanera datozenek autobusa antolatzeko deialdia egin dute

**M.B.** > ESKORIATZA

Egunero Donostia eta Zarautz aldetik Debagoienera lanera edo ikastera autoz etortzen den lagun talde batek autobusa antolatzeko deialdia egitea erabaki du. Hain zuzen ere, autoa erabili barik lanera etorri gura dute. "Ni beste lagun batzuekin etortzen naiz autoz, eta gehienok taldeka etortzen gara. Hortaz, ekimenaren helburu nagusia autoa alde batera uztea da", esan digu ekimena martxan jarri duen Asier Irizarrek.

Oraingoz aurrekontuak eskatu ditu autobusa bideragarria izan daitekeen jakiteko. "Lehen urratsa eman dugu; alegia, deialdia egin dugu. Bada, joan-etorria autobusez egiteko, gutxienez 20 lagun elkartu behar dugu", dio. Asier Irizarrek badaki Zarautz eta Donostia aldeko zazpi lagun dabiltzala lanean Huhezin eta beste sei Arrasateko Udalean. "Batez ere, Fagor, Eskola Politekniko, Huhezi eta udaletako langileei zuzendu nahi diegu deialdia. Baina beste norbaitek gurekin bat egin nahi badu, ez genioke trabarik ipiniko".

**ABUZTUAN IZAN EZIK**

Zarautz eta Donostiatik autoz datozenek eta autobusa erabili gura dutenek Asier Irizarrekin jarri behar dute hartu-emanetan, 635 71 93 18 telefonoan edo helbide honetan: *asieririzar@gmail.com*; hilaren 19a baino lehen. Asmoa da autobusa lehenbailehen martxan jartzea. "Bideragarria bada, uztailera arte erabiliko genuke autobusa, abuztuan ez litzateke egongo".




SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

**OSPAKIZUNA** > ARANTZAZUKO AMA BIRJINA

# Etika eta egia izan zituen mintzagai Uriartek Arantzazuko homilian



Meza nagusiaren ondoren, Romero, Ibarretxe, Olano eta Idoiaga frantziskotarrekin. ARANTZAZU EZKIBEL

Etxerateko kideek euren aldarrikapenak egin zituzten Ibarretxe lehendakariaren aurrean

Laneguna izanda, beste batzuetan baino jende gutxiago ibili zen martitzenean Arantzazun



Etxeratek deitutako elkarretaratzea presoen eskubideak aldarrikatzen Santutegi aurrealdean. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

"Euskal Herrian bada izadia, bakezaletasuna eta fedea besarkada estu batean elkartzen diren tokirik: Arantzazu da toki hori", esanez hasi zuen homilia Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak. Martitzenean izan zen hori, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean.

Oñatiar eta gipuzkoar fededunentzat egun handia da irailaren 9a. Martitzenean, goizeko zazpietan irten ziren erromesak Oñatiko plazatik Arantzazura, eta zortzietan Zapatan egin zuten bat gainerako erromesekin. Goizeko lehenengo orduak lasaiak izan baziren ere, gero euriak hartu zuen protagonismoa Arantzazun; hala, hainbat erromes melamela eginda igo ziren. Martitzena laneguna zela kontuan hartuta, beste urte batzuetan baino jende gutxiago egon zen Arantzazun. Hala, ere, oñatiarrek ez zuten hutsik egin Gipuzkoako Ama Birjinaren egunean.

**LEHENDAKARIARI AGURRA**

11:30erako Oñatiko Udaleko ordezkariak eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak Arantzazun ziren Ibarretxe lehendakariari ongietorria egiteko gertu. Han ziren, besteak beste, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea, Markel Olano ahaldun nagusia, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramailea eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romero. Han ziren baita ere Oñatiko Udal Txistulariak eta Oñatz dantza taldeko dantzariak. Azken horiek, baina, dantza egin gabe geratu ziren, Ibarretxeren segurtasun taldeak horrela erabakita.

Santutegirako bidean Etxeratek deitutako elkarretaratzea zegoen, presoen eskubideak aldarrikatzen. Ibarretxeri presoen egoera azaltzeko aukera izan zuen Etxerateko kide batek. Bestalde, Oñatiko gaztetxearen aldeko kideak ere Arantzazun zeuden, euren aldarrikapenak egiten.

**EGIA ETA ETIKA**

Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak esan zuen meza nagusia. Egia, elkartasuna, krisia eta etika izan zituen berbagai gotzainak. "Elkarrizketa ukatzen duenak hesia altxatzen du egiarako bidean", esan zuen gotzainak egia eta etikaz jardun zuenean. "Erre behar ez diren balioak" direla gaineratu zuen Uriartek Arantzazuko santutegian.

Meza nagusiaren ondoren, Udaleko ordezkariek eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariek Ibarretxe agurtu zuten. Ibarretxe agurtzera hurbildu zen baita Jonan Fernandez Baketik-eko zuzendaria ere.

**FEDEDUN ASKO ARANTZAZUN**

Santutegiko kanpoaldean Oñatiko Udal Bandak kontzertua egin zuen mezaren ondoren. Iñaxio Ibarrondoren zuzendaritzapean, *Guazen Arantzazura*, *Lazos de Amistad*, *Donostia*, *Aires Vascos nº 2*, *Arantzazuko* eta *Agur Jaunak* piezak jo zituzten.

Oñatiarrak ez ezik, Gipuzkoatik eta baita Bizkaitik ere joandako jende mordoa zegoen martitzenean Arantzazun. Asun, Flori eta Juan Mari, esaterako, Zegamatik joan ziren Arantzazura martitzenean. "Mendiz mendi" joan zirela azaldu zuten. Urtero joaten dira koadrilan eguna lagun artean pasatzera. "Ogitartekoa ekartzen dugu bazkaltzeko eta otoitz egiten dugu", zioten hiru lagunek.

Debagoienekoen artean, Eskoriatzatik bederatziurrena pasatzera joandako laguna zegoen. "Galdu ezinezko eguna izaten da niretzat gaurkoa. 20 urte dira Arantzazura etortzen naizena; egun espeziala da Ama Birjina eguna, alde batera utzi ezin daitekeen ohitura", azaldu zuen hunkituta. Gipuzkoatik ez ezik, Bizkaiatik, hain zuzen Artiatik joandako lagunak zeuden Arantzazun. "Urtero etortzen gara Arantzazura, baina gaurko eguna ez etortzen garen lehenengo aldia da. Entzunda geneukan jende asko etortzen zela eta gustura etorri gara", zioten Artiako Juan eta Belenek.

Arantzazura lanera joandakoak ere bazeuden. Hernaniko Milagros, esaterako, Urbiako gazta saltzen zegoen. "Urtero etortzen gara gazta saltzera. Laneguna izanda, salmentetan nabaritu dugu jende gutxiago ibili dela. Hala ere, Oñatiko jendeak ez du hutsik egin", esan zuen Milagrosek.

Esan behar da inolako ezusteko gertakaririk ez zela izan martitzenean Arantzazun eta dena ohiko bidetik joan zela.

ESANAK

### "Gaur egun egia galtzaile gertatzen da maiz. Elkarrizketa ukatzen duenak hesia altxatzen du egiarako bidean"

**Juan Maria Uriarte** > Gotzaina

DIPUTATUEN KONTSEILUA

## Goi-karguen lansariak ez igotzea erabaki dute

Martitzenean, Oñatin egin zuten ohiko Diputatuen Kontseiluko batzarra. Han erabaki zuten, besteak beste, foru diputatuen, goi-karguen eta izendapen libreko langile guztien lansariak blokeatzea 2009an. Foru diputatuek erabaki hori hartu zuten krisi ekonomikoaren egoerari aurre egiteko.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren sorrera, osaera eta funtzioak arautzen dituen foru dekretua onartu zuen.



Diputatuen kontseilua Oñatin, Olano ahaldun nagusia buru zutela. A.E.

**NEKAZARITZA** > TXAKOLINA ETA SAGARDOA

# Ibarreko ekoizleek mahats eta sagar produkzio eskasa aurreikusten dute

Maiatz eta ekaineko txingor zaparradek eta udaberriko hotz eta euriak ondorioak utzi dituzte ekoizpenean



Aurtengo uzta txarra izan arren, datorren hilean hasiko dira sagarra eta mahatsa biltzen ibarrean. ARTXIBOA

**NEREA MENOR** > BERGARA

Datorren hilean hasiko dira Debagoieneko mahatsak eta sagarrak biltzen. Urte kaxkarra izan da guztiendako. Udaberriko txingor zaparradaren ondorioz lore asko galdu zirenetik produkzioa asko murriztu da bailaran. Iaz baino mahats eta sagar kilo gutxiago egongo direla azaldu digute ekoizleek; eguraldiak ez du batere lagundu.

Lau txakolin ekoizle daude ibarrean: Arrasaten Kataide eta Otxia; Oñatin Upain eta Bergaran Amatiño. Baina Amatiñoko Karlos Mendizabalek etxerako baino ez du txakolina egiten.

Ekoizleek jakinarazi dutenez, aurtengo uzta ez da oso ona izango. Aipatu bezala, maiatz inguruko txingorradek landare asko apurtu zituzten eta ordutik hona produkzioa txikia da; gainera, euri asko egin du. Hala ere, berri guztiak ez dira txarrak: "Mahastiek zigor gogorra jasan zuten arren, ordutik aurrera izan duten eboluzioa ona izan da", dio Arrasateko Artazubiaga baserriko Felix Etxagibelek.

Sagardoari dagokionez, Aramaion Sagarzaleen Elkartea sortu zuten duela urte eta erdi. Bertako 27 kideek sagardoa ekoizten duten arren, Iturrieta eta Madina dira sagasti hektareak dituzten bakarrak; gainerakoek etxerako sagardoa egiten dute. Juan Antonio Aretxaga elkarteko zuzendariak azaldu digunez, Aramaioko zona batetik bestera oso ezberdina da sagarren egoera: "Nik, adibidez, sagar askotxo daukadan arren, beste batzuek apenas daukate".

Gipuzkoako egoera badirudi bestelakoa dela: "Duela gutxi, Gipuzkoa aldea bisitatzen egon ginen eta bertan, kostaldean-eta, sagar asko dago. Aramaioko uzta salbuespena izango da".

ESANAK

**"Getariako Txakolinaren izendapena laster ikusiko da gure txakolinean; berehala hasiko gara"**

**Jabier Arregi** > Hegiaundi baserria

DATUA

**8**

**MILA LITRO**

8.000 litro sagardo ekoiztu ziren iaz Aramaion. Sagar-zukuari dagokionez 2.000 litro gehiago irten ziren. Aurtengo ekoizpena eskasagoa izango dela dirudi.

**GETARIAKO TXAKOLINA**

Hegiaundi baserriko Jabier Arregik jakinarazi duenez, "Getariako Txakolinaren izenpena laster ikusiko da gure txakolinean; berehala hasiko gara. Gastu estra izango da guretzako, baina salmentak ugaritu egingo direla uste dugu".

**PUNTAKO SAGARDO MAKINAK**

Aramaioko Sagarzaleen Elkartea duela urte eta erdi inguru sortu zen. Duela gutxi lokal berria ireki dute sagardoa bertan egin ahal izateko makina profesionalagoekin. Aurretik, etxeko makinetan 1.000 litro sagardo egiteko astebete behar zuten bitartean, orain kopuru bera egun erdian egiten dute. Iaz, makinak erabili zituzten lehen urtean, 10.000 litro zuku eta 8.000 litro sagardo atera ziren.

Arduradunek esan dutenez, baten batek makinak ikusteko interesa edukiz gero, elkartearekin jar daiteke harremanetan.

> EKIMENAK

### Jonan Fernadezen azken liburua aurkeztuko dute

Baketik-en ikasturte berria hasiko dute asteburu honetan Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Ikasturte hasiera ekitaldian, Jonan Fernandez Batetik-en koordinatzailearen azken liburua aurkeztuko dute. Zapatuan izango da hori. *Vivir y convivir. Cuatro aprendizajes básicos* da liburuaren izena. Jose Antonio Marinak egin du hizaurrea eta aurkezpean egongo da.

> FORD AUTOAK

### 'Chairman's Award'-a emango diote Mugarri kontzesionarioari

Gaur eguerdian jasoko dute Arrasateko Ford Mugarri kontzesionarioan *Chairman's Award* delakoa. Sari hori, Ford Motor Companyk Europa mailan ematen duen garrantzitsuena da eta enpresak "meritu ikaragarritzat" hartu du berria.

Saria ematera Jose Manuel Machado Ford Espainiako zuzendaria etorriko da eta Anton Polek jasoko du.

> ABISU FALTSUA

### Bonba abisua Arrasateko Obenerreka kalean

Eguazten gauean, Obenerreka kalea itxi zuen Ertzaintzak pare bat orduz, lehergailu bat egon zitekeen beldurrez. Inguruko kale guztiak ere itxi egin zituzten eta megafonia bitartez auzotarrei abisatu zieten.

Egiaztapenak egin ostean, baina, abisua faltsua zela ikusi zuten eta gauerdi inguruan bueltatu zen normaltasuna Obenerreka kalera eta ingurura.




**ORDIZIAKO JAIAK** > GAZTA LEHIAKETA

# Antzuolako Bikuineta gaztandegikoek bigarren saria eskuratu zuten Ordizian

Joan den domekan, Gipuzkoako txapelketan laugarren postua eskuratu zuten Bikuineta gaztandegikoek

**N.M.** > BERGARA

Antzuolako Bikuineta gaztandegikoek bigarren saria eskuratu zuten eguaztenean egin zen Ordiziako gazta lehiaketan. Rikardo Remiro nafarrak lortu zuen aurreneko postua. Urbasa hegoaldean dagoen Ameskoa zonakoa da eta haren gurasoek birritan irabazi dute Ordiziako lehiaketa: 1987an amak eta 1989an aitak.

Bikuineta baserrikoek, azkoitiarrak izatez, Biolur Elkartea osatu zuten duela urte asko. Luis Mari Olano, Jose Ramon Arrieta, *Exkerra* eta horren emazte Idoia Azkaratek dihardute han lanean. Orain, gazta eta ogi ekologikoa ekoizten dute. Ordiziakoa ez da izan sari bakarra Antzuolakoentzat. Joan den domekan, Gipuzkoako Txapelketan laugarren postua lortu zuten. *Exkerrak* adierazi zuenez, ez dira aldatuko bigarren sari hori lortu ondoren. Hark, laugarrena edo halako postu diskreturen bat nahiago izango zuela ere esan zuen Ordizian.

**EPAIMAHAIAREN AKATSA**

Esan bezala, Rikardo Remirok irabazi zuen lehiaketako lehenengo saria. Hasiera batean, baina, Santi Etxezarreta izendatu zuten garaile hizki arazo baten ondorioz. Benetako saritua irten zenerako, publikoa jada ez zegoen pilotalekuan.

Jabier Arteaga > Bergarako Miguel Altuna institutuko irakaslea

# "Lanbide Heziketa titulua edukitzeko, ez da nahikoa hiru urteko lan esperientzia izatea"

JASONE ZABALA > BERGARA

**Ikasketak ez amaitu arren, azken hamar urteetan hiru urteko lan esperientzia izan dutela frogatzen dutenek Lanbide Heziketako titulu bat eskuratu ahal izatea aztertzen ari da Espainiako Gobernua. Aurrera ateratzen bada, berrikuntzek 140 titulutan izango dute eragina. Proposamen horren nondik norakoak jakiteko, Jabier Arteaga Bergarako Miguel Altuna institutuko etengabeko ikaskuntzako arduradunarekin egon gara.**

**Espainiako Gobernua aztertzen ari da lan esperientziarekin bakarrik Lanbide Heziketako titulu bat lortzea. Zein iritzi duzu horren gainean?**

Argi dagoena da erreforma horren azpian Lanbide Heziketako titulua lortzea dagoela, eta hori lortzeko bidea ezagutza ezberdinen aitortzan dago. Adibidez, tornuarekin lanean dabilenak eta gai horri buruz baldin badaki, tornuari dagokion ikasgaia aitortuko zaio, ez besterik. Gertatzen dena da jendeari komeni zaiola titulua edukitzea, eta ez ikasgai konkretu bakoitzeko agiria. Horretarako, ikastaro ezberdinen bitartez, agiri ezberdinak lortzen dituzte eta agiri horien guztien baturak dakar titulua lortzea; horregatik, titulua lortzeko lan esperientzia bakarrik ez da nahikoa, lortu nahi den titulu zehatz horren gaineko ezagutzak izan behar dira. Tornuaren erabilera kontrolatzen duen bati, ezin zaio erdi mailako titulu bat eman, ez badu kontrol numerikoaren ezagutzarik, adibidez.

**Zer behar ikusi du Espainiako Gobernuak horrelako erreforma bat proposatzeko orduan?**

Hemen kontuan hartu beharreko bi gauza daude: alde batetik, enpresek dauzkaten kalitate politikak, bertako langileak behartzen baitituzte titulua edukitzera; eta bigarrenik, norbanakoaren praktika. Hau da, lanaren bitartez jasotako ezagutzaren errekonozimendua.

**Proposamen hori aurrera eramango balitz, zer lortuko litzateke?**

Pertsonalki norbanakoak asko. Beste gauza bat da norberak izan dezakeen inplikazioa.

> "Lanbide Heziketako titulua lortzeko bidea ezagutza ezberdinen aitortzan dago"
>
> "Proposamen horrekin norbanakoak asko lortzen du; beste gauza bat inplikazioa da"
>
> "Gure institutuan lortu dugu prozesu guztia aurrera eroatea, titulua lortzeko"

Enpresa askok titulua eta eskulan kualifikatua eskatzen dute, eta langile askok eskulan kualifikatua badute, baina ez titulaziorik, eta enpresek langileei titulua eskatzen diete, eta baita horri loturiko ezagutzak ere.

**Lanbide Heziketako erreforma horretan bi baldintza eskatzen dira: alde batetik, hiru urteko lan esperientzia izatea; eta bestetik, 21 urte edo gehiago izatea. Nahikoa baldintza direla uste duzu aurrerantzean kalitatezko Lanbide Heziketa bermatzeko?**

Hori ez da nahikoa. Baldintza horiez gain, sarrera gaitasuna edukitzea ezinbestekoa da. Horregatik, gauzak ez dira orain esaten ari diren moduan, titulua lortzeko hainbat atal ezberdin gainditu beharko dira. Horiek izan ezean, ezin duzu titulurik lortu; hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gaindituta, Batxilergoa, erdi edo goi mailako sarrera proba edo 25 urte baino gehiagoko sarrera probak.

**Debagoienean zein eragin izango luke halako erreforma batek?**

Eusko Jaurlaritza duela urte batzuetatik hona badabil aurrera eramaten hori guztia, eta gu duela 4-5 urtetik. Gure institutuan –Miguel Altuna– lortu dugu pertsona batzuek prozesu guztia aurrera eramatea eta titulua lortzea, baina horretarako baldintza guztiak beteta.




Irudian, Arteaga institutuko makina gela batean. JASONE ZABALA

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Iraileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

CD-irratia-stereoa
EROSKI zurekin


KAMISETA+POLTSA
skunkfunk


AQUARIUM-EKO SARRERAK
AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

SARI NAGUSIA:
ARBELAITZ JATETXEAN
AFARI BAT
ARBELAITZ • DONOSTIA

Arbelaitz jatetxea
http://www.arbelaitz.com
943 30 82 20

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

gure artekoak

**CITROEN C5** > Hilabete batzuk pasa dira Citroen etxeak C5 auto berria merkatura atera zuenetik. Elite mailako auto marken mailara iristea lortu du Citroenek C5ekin; gama handiko autoa da, duda barik.

**Felix Agirre** > Jon kontzesionarioko saltzailea

# "Luxuzko marken mailara iristea lortu du C5 autoak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Hilabete batzuk pasa dira Citroen etxeak C5 berria merkaratu zuenetik; hain zuzen, maiatzean jarri zuen autoa salgai. Ordutik hona, autoetan adituak direnen mirespena besterik ez du jaso Citroen etxeko autoak.

"Aurreko modeloarekin alderatuta, guztiz berria da oraingoa. Diseinua, kalitatea, segurtitatea, esekidura... dena hobetu du C5ek", azaldu du Felix Agirrek, Jon etxeko saltzaileak.

**ESEKIDURA**

Guztiaren gainetik autoaren esekidura azpimarratu du Agirrek. "Beste modeloak baino esekidura hobea du. Bi esekidura mota daude merkatuan: hidroaktiboa eta metalikoa. Gure autoak bi esekidurak ditu; hala, abiaduraren arabera eta errepidearen arabera, autoak ondoen datorkion esekidura erabiltzen du", dio Agirrek.

**GAMA HANDIKO AUTOA**

"C5 gama handiko marken konpetentzia da. Hau da, orain arte beste marka batzuk ziren luxuzkoak. Baina C5ek marka horien mailara iristea lortu du", dio.

Lehengo C5 modeloarekin alderatuta, oraingo modeloa politagoa dela ere esan du.



Felix Agirre, Jon kontzesionarioaren aurrealdean. A.E.

**Citroen C5**
**2.0 HDi 140 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 28.500 euro |
| Luzera | 4,78 metro |
| Zabalera | 1,86 metro |
| Maletategia | 439 litro[1] |
| Kontsumoa | 6 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 204 km/h[3] |
| Otik 100era | 10,6 seg. |
| CO2 isurketak | 157 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**MOTOR AUKERA**

Motor aukera eskaintza zabala du C5ek. Gasolinari dagokionez, hiru motor aukera daude; indartsuena, 210 zaldi potentziakoa. Diesel aukera zabalagoa da: lau motor aukera; indartsuena, 210 zaldi potentziakoa. Gainera, Citroen etxeko autoak fidagarritasun handikoak dira: azken urteetan diesel motordun auto salduenak izan dira.

Nori zuzenduta dagoen galdetuta, Agirrek dio: "Edozein adinetako jendeari". Lau edo bost ateko Berlina eta Tourer (familiarra) daude aukeran.

etxeko leihotik



**Leire Kortabarria** > 'lkortabarria@goiena.com'

## Barcelona bona... eta gu, zergatik ez?

Bartzelona hobeto ezagutzeko aukera izan dut abuztuan. Aukera eta gozamena; izan ere, nik neuk egiaztatu ahal izan dut katalanek hiriburu benetan zoragarria, bizia, erakargarria eta kosmopolita dutela. Hango kultura barietatea eta aberastasuna txundigarriak dira. Are deigarriagoa iruditu zait beste errealitate hau: katalanek zelan dakiten daukatenari zukua ateratzen; zelako azkar konturatzen diren dauzkaten premiez, hobetzeko aukerez, eta horietan zelako ondo eragiten duten. Espainolezko esamoldeak dioen bezala, beharra bertute bihurtzen dute. Hala, ikasi dut zelan 1992ko Joko Olinpikoen babesean, hiriari behar zuen bultzada eman zioten, utzita samar zeuden gune batzuk eraberrituz. Baina horrelako gertaera handien beharrik ez dute: aukerak eurek sortzen dakite.

**"Kataluniatik badugu zer ikasia, ez soilik hizkuntza politikan"**

Inbidia sanoa sortu zidan horrek guztiak. Hango talentu berezi hori guretako nahiko nuke. Debagoienean badaukagu dirua, adimena, iniziatiba, jarrera... baina zerbait falta dugulakoan nago. Kataluniatik badugu zer ikasia, eta ez bakarrik hizkuntz politikari dagokionez.

**> Teoria bat** entzun nuen: **"Euskaldunok dugunarekin konformatzen gara, eta askotan, ez dugu gura izaten hori *ukitu* diezaguten: gure txoko ederrak, gure enpresak, gure ohiturak... dena dagoenetan".**

**> Oñati** turismo aukera **sendo bihurtu da eta ekintzak egin dira herria bizirik egon zedin. Hori bai, jatetxe baten eguneko menuaren prezioarekin ikaratuta joan ziren batzuk. Hori zelan jaten da?**

begi-bistan



**Oinetakoak zintzilik (Oñati) 2008/09/12**

**Argazkia:** Mireia Bikuña.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Oñatiko Atzeko kalean, Don Pedruena etxearen parean, oinetako parea dago zintzilik aspaldian. Ibarreko beste herri baten, Arrasaten hain zuzen, gauza bera gertatzen da Otalora kalean.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Oscar Arana**
ITZULTZAILEA

Oscar Aranak Paul Austerren *Man in the dark* (*Gizona i<lunpean*) nobela itzuli du. Dagoeneko kalean da Aranaren azken lana; hain zuzen, irailaren 2an argitaratu zuten. Literatura kritikaria izandako gizon baten istorioa kontatzen du *Gizona ilunpean* liburuak.



**Aritz Aranburu**
SURFLARIA

Aranburu zarauztarrak ezin izan du Zarautzen jokatu den Rip Curl txapelketan parte hartu, Kalifornian izan delako lehiatzen. Baina Tresles-en jokatutako txapelketatik kanpo geratu da Aranburu bi jardunaldiren ostean. Orain, Mundaka dauka buruan.



**Mireia Gabilondo**
ZUZENDARIA

Mireia Gabilondo aktore eta zuzendari bergararrak zuzenduko du hilaren 14an, domekan, Bergarako Udal Pilotalekuan eskainiko duten dantza ikuskizuna: *Hnuy Illa*. Kukai dantza konpainiak eta Ttanttaka antzerki taldeak prestatu dute lana.

Iraila iritsi ahala asko eta asko dira udako gehiegikeriekin damututa-edo kirola egiteari ekiten diotenak. Hori dela eta, ibarreko kiroldegietan ikasturte berrirako eskaintza zabala izaten da. Eskaintzaren berri jasotzeko eta jendeak kirolaren eta osasunaren gainean zenbateraino ko ezagutza duen jakiteko jo dugu Arrasatera, Aukeako presidentearengana.

**Yolanda Perez de Arenaza** > Aukeako presidentea

# "Kirola, moda baino gehiago, osasuna da, betiere nork bere neurrian eginda"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

**Udaleko Kirol zinegotzia eta Aukeako presidentea den neurrian, kirol arloan lan egitea egokitzen zaio, baina zaletasun moduan ere badu kirola Yolanda Perez de Arenazak. Korrika egitera joan aurretik tarte bat hartu du gurekin egoteko.**

**Ikasturte berrian kirolari ekiten diote askok. Arriskutsua da bizimodu sedentarioa utzi eta kolpetik kirolean hastea?**

Aukearen kirol ikastaroek bizimodu sedentarioa utzi eta modu errazean eta progresiboan kirola praktikatzen laguntzea dute helburu. Aldi berean, eskaintza zabala izanik, progresio horretan, kirola maiztasun jakinarekin egin nahi duenarendako ere egokiak izaten dira, askotariko intentsitatekoak baitaude. Instalazioak erabiltzaile guztien eskura daude, kirola euren kasa, lagunekin praktikatzeko.

Kirola arriskutsu bihurtzeko, muturrera joan behar da, eta muturrera iritsi aurretik kirola egiteko aukera oso zabala da. Kirola praktikatzea osasungarria da eta neurria norberak hartu behar dio, edo, bestela, horretan lagunduko dioten profesionalak dauzkagu; esaterako, kirol mediku zerbitzua.

**Kirola moda kontua da?**

Kirola osasuna da, betiere nork bere neurrian eginda. Ondo pasatzeko modua da, joko dibertigarria, harremanetarako eta elkarlanerako baliabidea. Modan egon daiteke kirol bat edo beste, baina bizimodu osasuntsurako kirola praktikatzea ezinbestekoa da. Batzuendako moda kontua da, baina, zorionez, geroz eta gehiagorendako bizimodu kontua da.

**Edozein adinetan egin daiteke ariketa fisikoa?**

Kirola praktikatzeko modu asko dago. Kirola egitea osasungarriagoa da ez egitea baino. Dena den, neurriz jokatu behar dugu. Aukeakook jarduera osasuntsuak planteatzen ditugu, beti monitore batek kontrolatuta eta mailakako intentsitatearekin.

**Zenbatean behin komeni da kirola egitea?**

Osasunerako Munduko Erakundeak (OME) sedentarismoaren tasaren barruan sartzen ditu egunean jarduera fisikoa 30 minutu baino gutxiago egiten duten guztiak. Hortaz, hori da gutxieneko denbora.




Yolanda Perez de Arenaza, Mojategiko atletismo pistan. IRATI AGIRREAZALDEGI

OSASUNA

**"Kirola egitea osasungarriagoa da kirolik ez egitea baino"**

KIROL BERRIAK

**"Jendea denbora luzean gauza bera egiteaz nekatu egiten da eta modak sortzen dira"**

ERAGINAK

**"Kirola praktikatzeak positiboki eragiten du bizitzaren arlo guztietan"**

**Badugu gure kiroldegietako eskaintzaren berri?**

Eskaintza guztia ondo ezagutzeko bide berriak zabaldu ditugu: bideoan ikus daitezke, kiroldegiko sarreran eta BAZeko erakusleihoan; bestalde, dohainik proba daitezke hainbat ikastaro irailaren 15etik 18ra bitartean.

Kiroldegia erabiltzaileen beharretara egokitzen saiatu da beti. Ekintza berriak sartzen ditugu urtero, eskaera hori asetzeko. Aukeakook lan handia egin dugu aurten ikastaro horien berri emateko, badakigulako zenbait izen eta ikastaroren nondik norakoak ez direla ulertzen errazak.

**Garai batean aerobika egon zen modan, gero pilatesa, orain body pump, body balance… Zer dela eta hainbeste kirol berri?**

Oinarrian denek mantentzen dute ariketa fisikoa, nahiz eta programak ezberdinak izan. Jendea denbora luzean gauza bera egiteaz nekatu egiten da eta honen inguruan modak sortzen dira; modaren arabera mugitzen dira jarduerak eta egun batean gustuko izan arren beharbada hurrengoan ez dugu gogoko. Hori bereziki islatzen da kirolean.

**Jendeak gauza berriak probatu nahi ditu?**

Normalean, gehienak urte batean egindakora itzultzen dira, baina beti dago jarduera aldatzen duenik ere. Horrek ahalbidetzen du jende berriak ere jarduera horiek praktikatzea.

**Zein dira gurean jendeak gogokoen dituen kirolak?**

Denetarik dago. Pilatesa eta spinninga izan dira jende gehien erakarri duten jarduerak, baina baita hirugarren adinekoendako gimnasia, batuka, aerobika…

**Kirol programa pertsonalizatuek zein onura dituzte?**

Entrenamendu pertsonalizatuak ahalbidetzen du bakoitzak dituen ezaugarrietara eta gustuetara egokitutako jarduera gertatzea, helburu jakinak lortzeko.

**Nola batera daitezke ariketa fisikoa eta herritar guztiendako aisialdi eskuragarriagoa?**

Euskal Herrian, tradizioz, ariketa fisikoa eta aisialdia nahiko bateratuta egon dira. Domeketan mendira joateko ohitura handia izan da beti. Egun, horretaz gain, ibiltzea oso ohikoa da gure gizartean eta herri inguruan edozein ordutan ikus daiteke adin guztietako jendea ibiltzen. Bi adibide horiek baino eskuragarriagorik ez dago. Kirol klubetan partaide izateak ere alde onak ditu konpromisoetan, harremanetan, elkarlanean… Bestalde, guk eskaintza zabalagoa plazaratzen dugu.

**Askok kirolari ekin eta laster uzten dute. Zergatik?**

Denbora falta da aitzakiarik ohikoena. Ikasturte edo urte hasieran asmo on piloarekin etortzen gara, baina gero asmo horiek albo batera uzten ditugu. Tamalez, kirola da asmo horietako bat. Nik herritarrak animatu nahi ditut sedentarismoa albo batera utzi eta kirola praktikatzera, positiboki eragiten duelako bizitzaren arlo guztietan.

**Kirol joerak aurrerantzean ere asko aldatuko dira?**

Kirola gizartearen ispilu da. Gizartea aldatzen doan heinean, kirola ere aldatuko da.



zabalik

**Juan Martin Elexpuru**

# Erderiak tentaitten

Erderiak tentaitten naxok", esaten ei zeban erdalerrixan luzaro egondako oñatiarrak. Beti tentau izan gaittu erderiak. Beti ezagutu dogu jentia, euskeraz hobeto jakin arren, erdera-hots batian ibiltzen dana. Gure gazte-denporan emakumiak, eta batez be neska-gaztiak, zien erdalzalienak. Gaur, ostera, mutillak direla esan geinke.

Ez da gutxi kosta euskeria potzutik etaratzia. Ez gare etxafleruak botatzeko moduan, baina orain dala berrogei edo berrogeta hamar urteko egoeria ezagutu dogunok badaukagu pozik egoteko motiborik. Artze poetaren *Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak hitz egiten ez duelako, dakienak hitz egiten ez duelako baizik* esaldi prosaikua jarri giñuan taberna eta eskaparatetan, eta sinistuta gendela emuten zeban.

**"Joe chaval, ya te vale. Orduerdi najaok hemen hire zain..."**

**"Indar haundixa hartuaz doian ohittura bat da: euskeria eta erderia nahaste-borraste"**

Dana dala, azken inkestak diño gero eta jente gehixagok dakixela, baina erabilerak ez dabela gora egitten. Ez dakit ezer esaten daben indar haundixa hartuaz doian ohittura baten gaiñian: euskeria eta erderia nahaste-borraste.

"Joe chaval, ya te vale. Orduerdi najaok hemen hire zain. La próxima vez te va a esperar tu padre. Siempre igual. Bestiak aspaldi joan dittuk…" Elebitasuna gora eta elebitasuna behera ibilitta gero, hau ete da azkenian elebitasun famosuoi?

Ikastolatik pasautako kuadrilla askok hala eitten dau, eta irakasliak eta ileapaintzailliak eta futbolistak eta kaña a Españakuak be bai. Sexu, lanbide eta ideologixen gaiñetik dago, itxuria. Tartian erdaldunen bat dagonian sarri jo izan da "edukaziñoz" erderara, baiña hau ez da kasua. Danak euskaldunak, eta hala be erdera barik sosegau ezin.

Serixo hartzeko kontua da. Kontagiosua da, gaiñera. Me entiendes lo que te quiero decir?

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## herritarrak galdezka

### ZER EGIN AGINDUTAKO 400 EUROAK JASOTZEKO?

**Hainbat irakurlek agertu digu kezka hau: Espainiako Gobernuak errenta aitorpena egiten duten guztioi orain hilabete batzuk agindutako 400 euroak jasotzeko zer egin behar den. "Berez emango digute ala gestioren bat egin behar dugu? Aurreko baten irakurri nuen Ogasunak oraindik erabakitzeko zuela neurria zelan aplikatu...", galdetzen digu debagoiendar batek, kezkatuta.**

Laurehun euroak itzultzeko prozedura onartuta eta martxan da dagoeneko. Hala baieztatu digute Gipuzkoako Aldundiko Ogasun Sailean. Hango arduradunek esan digutenez, "aurtengo ekaineko nominan atxikimendu taulak jaitsi egin dira, 200 eurotan, gehienez ere. Geratzen den kopurua, 400 euroak osatu arte, urteko beste hilabeteetan hainbanatu (prorrateatu) egingo da. Datorren urtetik aurrera, errenta aitorpena egiterakoan deduzituko dira 400 euroak"; izan ere, neurria behin betiko onartu zuen Espainiako Gobernuak, araua aldatzen ez den bitartean.

Autonomoak ere neurri horren onuradun direnez, hiruhileko bakoitzean zatitutako ordainketak egiten dituztenei, 200 eta 100 euroko dedukzioa aplikatuko diete euren hurrengo ordainketetan; hau da, aurtengo urrikoan eta datorren urtarrilekoan.

Horrenbestez, zergadunek ez dute ezer egin behar dagokien kopurua jasotzeko; berez itzuliko zaie diru hori.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

### SAN MARTIN JAIAK DIRELA ETA, AUTOBUSIK BAI?

**Antzuolako irakurle batek hauxe galdetu digu: "San Martin jaiak izango dira Bergaran, eta urtero haraino joatea gustatzen zait. Egongo da autobus zerbitzu berezirik, ala ohikoa baino ez?".**

Aurten, berritasun moduan, Bergarako Udalak autobus zerbitzu indartua ipiniko du San Martin jaietan parte hartu nahi dutenendako. Hala, ohiko zerbitzuaz gain, Bergara Elgetarekin eta Antzuolarekin lotuko dituen gaueko zerbitzuak egongo dira.

Hauek dira ordutegiak: Elgetatik Bergarara, eta erdietan, 00:30etik hasi eta 06:30 arte; Bergaratik Elgetara, eta hamarretan, 00:10ean hasi eta 05:10 arte; Antzuolatik Bergarara, ordu osoetan, 00:00etatik 06:00ak arte; eta Bergaratik Antzuolara, laurden gutxietan, 00:45ean hasi eta 05:45 arte, azkenekoa.

Bailarako gainerako herrietatik San Martinetara joan nahi dutenek ez dute ezohiko zerbitzurik izango, baina Pesako autobusak egongo dira, ohiko orduetan (*www.pesa.net*).

## marrazkiz

**Alex Ugalde**




blog

# "Lehendakariaren agurra?"

**Pello Urzelai**
www.berria.info/blogak/pello

Izenburua *Deia* eta *Noticias* taldeko egunkarietako artikulu batean aurkitu dut. Eta horregatik gehiago harritu nau zein erraz kolokan jarri duten Ibarretxe lehendakariaren etorkizuna. Hilaren amaieran izango da Eusko Legebiltzarrean politika orokorrari buruzko eztabaida. Ibarretxeren azkena izan daitekeela diote C.C. Borra eta Humberto Unzeta kazetariek, *Las revalidas de septiembre* artikuluan (2008-09-02). "Sera, quizas, el ultimo de Ibarretxe como lehendakari. Su continuacion pende de dos hilos: la victoria de su partido en las proximas elecciones y de que su partido lo elija como candidato a lehendakari". Ez al al dago argi EAJk Ibarretxe aukeratuko duenik lehendakarigai gisa? Norbaitek zalantza zabaldu nahi ote du? Auskalo. Nire ustez, EAJn nahiko adostasun sendoa dago Ibarretxe aukeratzeko berriz ere. Eszenifikazioa falta da.

Hain argi ez dagoena EAJk hurrengo legegintzaldiari begira egin beharreko eskaintza. Orain artekoak nahiko agortuta dirudielako. Kontsultaren bidea itxita aurreikusten du EAJk, baina alternatibarik ez du. "Eta bide hau ixten badigute, beste bide batetik egingo dugu ahalegina", esan zuen Iñigo Urkulluk Zarauzko ekitaldian. Kontua da "beste bide hori" inork ez dakiela zein den. Zaila da azaltzea egungo egoeratik haratago joan nahi dela, egungo egoeraren "onurak" (*tajada*, Josu Erkorekaren hitzetan) lortzeko ahaleginetan buru-belarri ibiltzen denean.

plazara

**Bergarako Euskaltzaleon Bilguneak (Berba), herria euskalduntzen laguntzeko asmoz, Euskararen Udal Ordenantza proposamen bat prestatu du, eta bergararrei aurkeztuko die lehenengo, euren atxikimendua eskuratu nahian, eta Udalari, gero. Berbako kide Iñigo Arregik proposamen horren mamia azaltzen du, eta baita euskalduntzearen bidean beste urrats bat emateko premia eta arrazoiak.**

Iñigo Arregi *

# Herria euskalduntzeko pauso berri bat

Hogeita sei urte igaro dira Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarako Euskararen Legea eta Nafarroarako La Ley del Vascuence onartu zirenetik. Garai hartan batzuek aurrerapen gisa ikusi bazuten ere, hogeita sei urte igaro eta gero (gehiegi hain hiztun gutxi dituen herri batentzat) ez dira euskararen berreskurapenerako lagungarri izan. Lagungarri baino gehiago, euskal herritarren hizkuntza eskubideak zatitu eta euskararen normalizazioa zangotrabatzeko. Hizkuntza ordezkapen prozesua azkartu eta Euskal Herria espainiar naziotasunean asimilatzeko.

Horretarako, euskal herritarrok osatzen dugun hizkuntza komunitatea zatitu, eta zonalde bakoitzerako hizkuntza politika zehatza diseinatu eta gauzatu dute hogeita sei urte hauetan; gaztelerarren ezagutza betebehar gisa ezarriz, euskalduntzen ez duten hezkuntza ereduak sortuz, lan eta bizitza esparru ezberdinetako funtzioak burutzeko gazteleraren erabilerari lehentasuna emanaz... Finean, erdal hizkuntzen nagusitasunari auspoa ematen dion hizkuntza politikak herriz herri, herrialdez herrialde ezarriz.

Elebitasun sozialaren, berdintasunaren eta aniztasunaren izenean, hizkuntza politika hauek ez dute euskararen egoera gutxiagotua areagotu besterik egin. Hogeita sei urte hauek ez dira nahikoa izan jendarte elebidun iraunkorrik ez dela jabetzeko? Are gutxiago, Europako hizkuntza nagusienetarikoak eta munduan (ingelesarekin batera) erabilienak diren bi hizkuntza bizilagun ditugunean.




MIKEL ARROIABE

Hortaz, euskararen normalizazioan pauso berriak emateko garaia iritsi dela uste dugu. Bai aldarrikapenean bai eta praktikan ere. Jendarte elebidunaren ametsa alboratu eta herritar eleanitzez eratuko den herri elebakarra, euskalduna, egia bihurtu behar dugu. Horretarako, Euskal Herriaren errealitate soziolinguistikoa eta euskalduntze prozesuak izan ditzakeen erritmo ezberdinak kontuan hartuko dituen hizkuntza plangintzak gauzatzea bermatuko duen eta euskalduntze prozesua bere osotasunean burutzea helburu izango duen hizkuntza politika burujabea eta bakarra behar dugu.

**"Euskalduntze prozesua osotasunean burutuko duen hizkuntza politika burujabea eta bakarra behar dugu"**

**"Esparru guztietan euskarari lehentasuna emateko neurriak jasotzen ditu Berbaren proposamenak"**

Hizkuntza politika berri horri, Euskal Herriko herritarren borondatea eta herri gogoa lotzea beharrezkoa izango da hizkuntza ordezkapena gelditu eta Euskal Herria euskalduntzeko baldintzak lortzeko. Herria eta herritarren parte-hartzea bultzatuz, herriz herri, auzoz auzo euskararentzat jendarteko funtzio guztiak irabaztera jo behar dugu.

Bergarako Euskaltzaleon Bilguneko kideok euskararen normalizazioan pauso berri hori eman nahian lanean hasiak gara. Bergara herri euskalduna izanik (%70 euskalduna eta %12 ia euskalduna), Udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko hartu duen erabakia ikusirik eta iaz egindako Udal Hizkuntza Politikaren azterketak emandako ondorioak azterturik, Euskararen Udal Ordenantzen proposamena garatu dugu.

Euskararen Udal Ordenantzen proposamenak Bergara hezurmamitzen duten esparru guzietan euskarari lehentasuna emateko neurriak jasotzen ditu; tokiko zein kanpoko administrazio eremuetan, udal administrazioak hirugarrengo pertsona eta entitateekin dituzten lan harremanetan, lantegi eta komertzioetan... Azken finean, Bergara euskalduntzeko pauso berri bat ematea nahi dugu. Bergararrok eskubidea baitugu gure hizkuntzaren bizi iraupena bermatzeko eta, beraz, hizkuntza komunitatea herriko biztanle guztiek osatzeko.

*Berbako –Bergarako Euskaltzaleon Bilguneko– kide da Iñigo Arregi.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Udan ibili zara autobusez ibarrean?

| | |
|---|---|
| BAI | %50 |
| EZ | %50 |

**> AUTOZ, EROSOAGO**
Ez dut autobus beharrik izan. Gainera, erosoago da niretako autoa hartzea, autobusen ordutegiak ere ez direlako oso onak.
**Miren**

**> ARRASATEREKIN LOTURA**
Zerbitzu onena Arrasaten dago, eta ulertzekoa da, herri handiena izanda, baina herri txikietan bizi garenok Arrasateraino iristeko zerbitzu hobea merezi dugula uste dut.
**Joxe**

**> ZERBITZU MINIMOAK**
Bilboko jaietara joateko autobusa erabili dut Eibarreraino. Hala ere, kostara joateko zerbitzu minimoak behar ditugu.
**Julene**

**> MUGA ASKO**
Ni Donostiara joan naiz sarri udan. Pozik ibili naiz, autobidetik segituan iristen delako. Hori bai, Debagoieneko zerbitzuak muga asko ditu, bai ordutegi aukera, bai leku aukeragatik.
**Irma**

**DATORREN ASTEKOA: Pozik zaude osasun publikoko zerbitzuekin?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

## Antsietatea, larregiko informazioak eragina

**Joxe Aranzabal**
goiena.net/blogak/faroa

Batezbesteko bulegari amerikarrak orduro 6 etenaldi izaten ditu lanean. Egun batean jasotzen ditu 52 telefono dei, 36 mezu posta elektroniko bidez, 23 mezu entzuteko, 18 gutun, 18 barne memorandum, 14 fax, 13 post-it, 8 dei bilatzailera, 4 dei esku telefonora eta 3 mezulari. Horrela irakurri nuen Microsiervos webgunean.

Horra, bada, antsietatea, infoxikazioa edo informazio betekada. Kontuz horrekin.

## Noiz aldatu beharra asmatu

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
eibar.org/blogak/amatino

Aurreko larunbatean, kintoen afalostean, laguna erdi mozkortu zitzaigun eta, eskailera-buruan, pailazoarena egiten hasi. Denok algara bizitan geundela, horra hor non, *dsanba* egin eta, buruz behera hogeitaka harmailatan zehar hankaz gora jausi eta bizkar hezurra hautsi zuen.

Zailena da jakitea zein momentutan aldatu behar den aurpegia (...). Ez da gero batere erraza.

Baina horretan datza, hain zuzen ere, kakoa, giltza edo maratila. Bai eskailerapeko istripuetan, bai krisialdi ekonomiko latzetan eta baita, jakina, apostu politikoetan ere.

koplak

Eñaut Uriarte

## Irala kaleko obrak

Abuztu osuan hemen egon naiz
lana izan dala tarteko
eta euki dot nik aukeria
obra danak jarraitzeko.

Jende askori sortuko zotzan
bildurra edo ikara,
baina itxuraz egon nahi dogu
hiri haundien gisara.

Hau ez da Bilbo edo Donosti,
Iralan zertan dabiltza?
Nork eduki dau desastre hori
horrela eitteko giltza?

Igual kaliak be balixo dau
gu surfien aritzeko
baldosak mugitzen dielako
olatu denen antzeko.

Ze haundixak dien bertan farolak
ondo beittuta ai ama!
Hauek eitten bukatuko zan
inguruko burdin dana.

Eta Darth Vaderren ezpatak be
kale erdixan dare lau
proiektu honetan ez al da egongo
bada nahiko iluminau.

## Estropadak

**Amaia Agirre**
(Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren izenean)
Arrasate

Lakuako Gobernuak datorren igandean arraunlari talde batek eta euskal preso politikoen senideek antolatutako manifestazioa debekatzeko arrazoiak zur eta lur utzi gaitu. Harrituta eta haserre. Helegite administratibo batek ezin du, inolaz ere, oinarrizko eskubide bat galarazi.

Debekuaren aurrean, senideen ordezkaritza bat Javier Balza EAEko Barne sailburuak Lakuan duen bulegora joatekoa zen. Azkar asko erantzun zuen, ordea, Barne Sailak eta bere bulegoko ateak itxita aurkituko zituztela jakinarazi zien presoen senideei. Etxerat elkartea Lakuan aurkeztea "antzerki mediatikoa" besterik ez dela esanez.

Euskal gizarteak preso eta iheslariek bizi duten egoera urte luzez era baketsuan salatu izan du. Estropadetako manifestazioa azken 25 urteetan egin izan da, inolako istilurik egon gabe. Iaz Ertzaintzak manifestazioa lehertu arte ez da istilurik egon estropadetako manifestazioan. Adineko jendea lurrean botata, haurrak negarrez, buru irekiak... Guk ez dugu argazki beldurgarri hori sortzen. Gu euskal preso politikoen eskubideak aldarrikatzera goaz Donostiara. Gu gure senideen argazkiekin joaten bagara eta Ertzaintza porra, pelotero eta kaskoekin, nor doa istiluak sortzera?

Debagoienean ere baditugu arrazoiak bertara joateko. Jon Agirre eta Josu Uribetxeberria espetxean mantentzea, Gaztañaga eta Luis Mari Azkargortari bizi arteko zigorraren doktrina aplikatu izana. Dispertsioa…

- Gure eskualdeko EAJko zinegotziek bat egiten al dute Jon Agirre, Josu Uribetxeberria, Gazta eta Kantoren askatasuna eskatzea debekatzearekin? Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzea debekatzearekin? Ez ahaztu hori dela manifestazioaren leloa, zigorra bete duten presoak eta preso gaixo larrien kaleratzea eskatzea.

- Ibarretxek dioen moduan, debekuak iraganeko gauzak badira, zergatik debekatu euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko manifestazioa?

- Zein bide geratzen zaigu gure senideen egoera salatzeko?

- Ibarretxe, nola uztartzen dituzu herritarren partehartzearen apustua eta zure aginduetara dagoen Barne Sailaren debekua?

- Gasteizko Gobernuaren kontsulta aurrera eramateko xedez eta erabakitzeko eskubidea galdeginez Estrasburgoko epaitegira zuzendu nahi duen salaketan, Estatu espainolak adierazpen askatasuna eta biltzeko eskubidea urratzen dituela salatzen dira, Baina Gasteizko Gobernuak eskubide horiek beraiek bere herriari ukatzen dizkiola ikusita, Europara zein sinesgarritasunekin zoazte?

Hipokrisia hutsa zuena. Hitzetatik ekintzetara nolako aldea!

Debekua manifestazio eta adierazpen eskubideen urraketa argia da. Erabakiaren funtsa Donostiako kaleetan egin nahi den salaketa bera isilaraztea da. Finean, ehunka euskal herritarrek presondegi frantses eta espainoletan bizi duten egoera euskal gizarteari agertaraztea ekidin nahi izan du Gasteizko Gobernuak. Horregatik, datorren igandean Donostiara joateko dei egiten diegu herritarrei. Debekuak bertan egoteko arrazoiak gehitzen baititu!

## Eskerrik asko

**Maite San Vicente**
(Txatxilipurdi elkartearen izenean)
Arrasate

Badira 25 urte Arrasate Euskaldun Dezagun elkartea sortu zela, 14 urte AEDren baitan egun ezagutzen dugun Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkartea sortu zela eta, nola ez, baita 20 urte ere AEDk eta gerora Txatxilipurdi elkarteak udalekuak antolatzen dihardutela.

Zenbakien zurrunbiloek adierazten dizkiguten beste urte pasa dira orduz geroztik eta gero eta haur gehiago dira, hasiera batean izan zezaketen arrakastaren ziurtasun handirik gabe martxan hasi ziren udaleku hauetan parte hartzen duten neska-mutilak.

AED da egun Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuen aitzindaria eta urte ugari pasa diren arren, udalekuen sorrerako helburuak bere horretan jarraitzen du. Urtetik urtera sortuz doazen erronka berriei moldatzeko eta erantzuteko gaitasuna erakutsi dute egun Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuek eta etengabeko hobekuntzaren bidean lanean dihardugu existitzen ez den perfekziorantz.

Milaka dira haur eta gaztetxoengan euskara eta balore hezitzaileak sustatzeko asmoz antolatu eta gauzatu ditugun ekintzak eta beste hainbeste dira ezagututako eta lagunartean bizi izandako momentu ahaztezinak ere.

Udaleku hauek hauts artean gelditualk lirateke zuetariko askoren laguntza eta borondaterik gabe; beraz, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu Txatxilipurdi elkarteko guztiok 20. urteurreneko udaleku hauek posible egin dituzuen guztioi.

Ospatzeko arrazoiak ugariak diren arren, Arrasate euskalduntzeko bidean handia da oraindik egiteko daukagun lana; beraz, urteurren honen poza zuekin batera konpartitzeaz gain, aurrerantzean ere elkar ikusiko dugulakoan, besarkada handi bat eta laster arte.

Bukatzeko gogorarazi nahi dizuegu 20.urteurren honetan ez garela zuek guztiotaz ahaztu, baina, zuek ere udalekuetan ahaztutako gauzak berreskuratu nahi izanez gero, Txatxilipurdi elkartera gerturatu zaitezketela. Besterik gabe, ondo izan eta gero arte…

## Irala, dotore

**Miren Larrañaga**
Bergara

Kostata, baina dotore geratu da Bergarako Domingo Irala kalea, oinezkoendako berreskuratu den herriko lehenengo kalea. Lehengoarekin alderatuta ez dauka zerikusirik. Bertatik paseatzeko, tabernetako terrazekin disfrutatzeko, umeek lasai jolasean ibiltzeko, arriskuak hartu barik... Bi berbatan esateko: oso dotore!

Egongo da hau edo beste kritikatuko duena, beste modu batera egingo lukeena, farolak gustuko ez dituena... baina, oro har, primeran geratu da. Dendariei kalte egin die obrak horrenbeste luzatzeak, baina irabazi dutena? Lehengoaren aldean, askoz hobeto daude orain.

San Martinetan hasi eta aurrerantzean, goza dezagun kale berrituarekin!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**




**Har ezazu parte!**

### Baldintzak

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte har dezake. (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Parte-hartzaileek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapen txiki bat.
- Astero argitaratuko dira ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 6ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.

### Sariak

**1. saria:** Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala
Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
10 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm / Flash eta guzti. /
2,5 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.






- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea: kutxa

Laguntzaileak: GURE AMETSA JATETXEA · Arrasate Bidaiak · Kiñu argazkilariak · OLYMPUS

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedun egiteko:**
943 08 10 50
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara


KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK*
BABESA ASEGURATUA.
Zuretarrak beti ongi estalita egotea pentsatzen duzun baino errazagoa da Kutxa Bizitza Aseguruarekin*. Zure egoera pertsonal eta ekonomikoetara egokitzen da. Eta konponbiderik egokiena da orain geroko kezkarik gabe bizitzeko.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
Biharko Vida y Pensiones Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.
*Kutxa Bizitza-Asegurua, Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatua. Kutxa da Biharko Vida y Pensiones aseguru-etxearen banku-aseguruen operadore esklusiboa; honek baimena ematen dio hari Biharko aseguru-etxearekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro administratibo berezian inskribatua dago C0654G20336251 zenbakiarekin.

# EUSKARA ESKOLAK

AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

bergara

AKULU AEK
Arrizuriaga Jauregia, Espoloia

943 77 03 69

- MAILA GUZTIAK:
  3 egun astean, egunero 2 ordu
- 2. MAILA AUTOIKASKUNTZA
  Programa PERTSONALA
  Mintza saioa ordu eta erdi astean
  Tutoretza ordu erdi astean
- 3. MAILA/EGA AUTOIKASKUNTZA
  Programa PERTSONALA
  mintza saioa ordu eta erdi astean
  (Tutoretza ordu erdi astero)
- 4.MAILA
  2 EGUN ASTEAN
  EGUNERO 2 ORDU ETA ERDI




milaka hiztun berri urtero

IKASI EUSKARA | www.aek.org

Matrikula zabalik irailaren 30era arte
MATRIKULATZEKO ORDUA:
arratsaldetan 6etatik 8etara

Jardunen ere informazioa emango da
Udalaren laguntzaz beka sistema

## EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA

2008ko IRAILAREN16tik 22ra

## ARRASATE

**Aldaketa eskatzen digu munduak**

**Arrasatek aldaketa eskatzen digu**

EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

Ingurumena
Gure esku dago
Está en nuestras manos

ARRASATEKO UDALA
Ayuntamiento de Mondragón

AGENDA 21

Leintz Garraioak S. L.

ihobe

# Egitaraua •• Arrasate

**HIRIBUSA**
Irailaren **16tik 22ra, hiri busean guztiz DOAN ibili izango da** (aurten ez da bonorik beharko).

** Adin txikikoek autobusa erabili ahal izango dute nagusi betengatik lagunduta badoaz edo ohiko eskolako bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezen)**

**Irailaren 16tik 18ra**
ERAKUSKETA - **ATMOSFERAREN KALITATEA ARRASATEN -Laubide plaza-**

**Irailak 20, Zapatua**
**BIRZIKLETA AZOKA - Bigarren eskuko bizikleta azoka -Seber Altube plaza-**
**Goizean 11:00 - 14:00 Arratsaldean 17:00 - 19:30**
• Noiz eta nola batuko den materiala (*)

**Irailak 20 eta 21 - Zapatu eta Domeka**
**SEG WAY ZIRKUITOA -Biteri plaza-**
Zapatuan goiz eta arratsaldez eta domekan goizez 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

**Irailak 20 eta 21 - Zapatu eta Domeka**
ERAKUSKETA - **EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK - "mugitzeko beste era bat" -Biteri plaza-**
Zapatuan goiz eta arratsaldez eta domekan goizez 11:00-14:00 eta 17:00-20:00
Auto hibridoak, Auto elektrikoak, Paseoko bizikletak, Bizikleta tolesgarriak, Bizikleta elektrikoak, Segway ... ***(Ibilgailuak probatu ahal izango dira!)***

**Irailaren 21, Domeka**
**BIZIKLETAN BIRA - Arrasatetik Eskoriatzara (Torrebaso Industrialdea) bidegorritik. • Irteera 11:00etan: Seber Altube plaza**

**Irailaren 22, Astelehena**
**17:00 Mugikortasun eta irisgarritasun TAILERRAK - Seber Altube plaza**
Irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta oztopo ibilbidea

(*) BIRZIKLETA azoka - Noiz eta nola batuko da materiala:
• **Zer batu**ko da: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikleta, triziklo, patin, patinete, kasko, belozimetro, gurpil, eskularruak, mailotak ...

• **Noiz eta non batu**ko da materiala: Udal azokan

- Irailaren 13an, zapatua
• Goizean 11:00 – 13:00

- Irailaren 16an, martitzena, eta irailaren 18an, eguena
• Goizean: 11:00 – 13:00 eta Arratsaldean: 17:00 – 19:00

- Salneurria jabeak jarriko du. Saltzen ez den materiala jabeari itzuliko zaio.

# Herriak

**Arrasate** > 18-19 **Bergara** >24-25 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Berrogeita hamar urtetik gorakoek, Esperientziaren Eskola aukeran **> 18**



**> ARETXABALETA**
Lau proiektu daude Iraeban eta Irurikoa baserrietarako **> 31**



**> ANTZUOLA**
Eguzki auzoko etxebizitza tasatuak eman dituzte **> 36**



**> ARAMAIO**
Madrilgo Burning talde mitikoak kontzertua egingo du gaur **> 38**

**BERGARA** > SAN MARTIN JAIAK

# Gazta usaina eta danbor hotsak herrian zehar, San Martin jaietan



125 postu inguruk osatuko dute aurtengo azoka; baserri arloko hamaika produktu, dastatzeko gertu. GOIENKARIA

### GAZTA LEHIAKETA
Goizean, osoko bilkuren aretoan, gazta lehiaketa egingo da

### ARTISAUAK AZOKAN
Munibe plazan, baserri munduarekin zerikusia duten arropak eta makina erakusketak egongo dira

**NEREA MENOR** > BERGARA

Bihar hasiko dira Bergaran San Martin jaiak, eta lau egunean zehar izango dira jaiak herrian. Adin guztietako pertsonentzako jaiak antolatzen saiatu direla azaldu digu Udalak: "Bai gazteak, bai helduak, bai nagusiak; guztiak izan ditugu gogoan jaietako egitaraua antolatzean".

Aurtengo berritasun nagusiak *Hnuy illa* ikuskizuna eta umeentzako ekitaldi eskaintza zabala izango dira. Hala ere, ezin dira falta jai horien zutabeak diren ekitaldiak: zapatuko feria; Udal Musika Bandaren kontzertua; suzko erruberak; eta danborrada.

Zuloa elkarteak 25 urte betetzen ditu aurten eta hori ospatzeko elkartearen martxa joko da nagusien danborradan eta elkarte parean. Gainera, Zuloak sari bat emango du Ageriko Pintura Lehiaketan: 162 euro eta trofeoa.

Aurtengo helburua kaleko giroa indartzea izango da. Horretarako, zapatu arratsaldean kale antzerkia egongo da eta domekan, Munibe plazan umeentzako jolasak eta tailerrak egongo dira. Horretaz gain, astelehenean, Txomingeroen bazkaria egingo da Munibe plazan, 14:30ean. Udalak mahaiak eta aulkiak jarriko ditu eta janaria norberak eraman beharko du. Bazkaldu eta gero koadrilen arteko jolasak egongo dira txarangaren laguntzarekin.

**GAZTA, FRUTAK ETA BARAZKIAK**

Jaiak zapatu goizean hasiko dira urteroko barazki, fruta eta gazta lehiaketarekin herriko plazan. Lehian aritzeaz gain, saldu ere egingo dituzte euren produktuak. Goizean zehar odolosteen dastatzea ere egingo da San Martinen.

10:30ean osoko bilkuren aretoan gazta lehiaketa egingo da. Dagoeneko 50 lagunek eman dute izena. Legazpiko lehiaketako irabazleak parte hartuko du eta Ordiziakoa ere gerturatzekoa da.

Baina San Martinetako feria ez da plazara mugatzen. Seminarioko patioan baserri arloarekin lotutako beste 100 bat postu egongo dira. Aurten, Jardunek jarriko ditu taloak. Amaitzeko, aurtengo feriako berezitasuna: Munibe plazako artisauak. Lehengo baserri munduarekin zerikusia duen arropa egingo dute eta hainbat makinaren erakusketa ere izango da.

Hilaren 13rako gaueko autobus zerbitzua ipini dute Elgeta eta Antzuolara autobus geltokitik. Hemen autobusen ordutegia. Elgeta-Bergara 00:30etik 06:30era orduro; Bergara-Elgeta 00:10etik 05:10era orduro; Antzuola-Bergara 00:00etatik 06:00etara orduro; eta Bergara-Antzuola 00:45etik 05:45era orduro.

(24. orrialdean jarraitzen du)

## San Martinetako egitaraua

**ZAPATUA, 13**

**10:00** Barazki, fruitu eta gazta lehiaketak San Martin plazan.
**11:00–13:30** Bergarako trikitilariekin kalejira.
**Goizean** Odolosteen dastatzea Luis Mari Rezola, Pello Urtzelai eta Jon Leturia harakinei esker, San Martin plazan.
**13:30** Barazki, fruta eta gazta lehiaketetako sari banaketa.
**17:00** Umeen triziklo lasterketa Munibe plazan.
**17:30** Gaztetxoentzako zezentxoak eta poneyak seminarioko patioan.
**17:30** Umeentzako jolas eta tailerrak Munibe plazan.
**20:30** Bapatean zirkuaren emanaldia San Martin plazan.
**23:00** Kontzertua Basajaun taldearekin San Martin plazan.
**Horretaz gain** Egun osoan skate topaketa Labegaraieta kiroldegian.

**DOMEKA, 14**

**08:00** Sokamuturra.
09:00 Ageriko 35. pintura lehiaketa, Beart elkarteak antolatuta, Bergarako kultura etxean. 18:30ean izango da sari banaketa leku berean. Ondoren, lanen erakusketa zabalduko da eta ikusgai izango da, irailaren 14tik 27ra, biak barne, kultura etxean.
**09:30** Erreileno eta Tostoien Kofradiaren IX. kapitulua.
**09:30** Kofradiei ongietorria Bergarako Udal Pilotalekuan.
**10:30** Martxa, zeremoniako jantziekin, Bergarako Udal Pilotalekutik moja klaratarren komenturaino, Udal Txistulari Bandak lagunduta.
**11:00** Meza, Alai-taldea abesbatzak kantatua.
**11:45** Herri desfilea, moja klaratarren komentutik San Martin plazaraino. Udal Txistulari Bandak lagunduta.
**12:15** Kofradiaren IX. kapitulua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.
**10:00** 36. Bergara Hiria xake azkarreko talde arteko nazioarteko txapelketa Agorrosin kirolgunean.
**11:00–14:00 eta 17:00–20:00** Umeentzako Katakrak tailerra Munibe plazan.
**16:00** Bergara Hiria nazioarteko xake txapelketa Agorrosin kirolgunean.
**20:00** *Hnuy illa* dantza eta antzerki ikuskizuna Udal Pilotalekuan, Kukai dantza taldearen eta Tanttaka antzerki konpainiaren eskutik. Sarrera: 5 euro.
**20:00–23:00** Dantzaldia Luhartz taldearekin San Martin plazan.

**ASTELEHENA, 15**

**14:30** Txomingeroen hirugarren herri bazkaria Munibe plazan. Udalak mahaiak eta aulkiak jarriko ditu; janaria, nork bere kontu. Ondoren, koadrilen arteko jolasak, txarangaren laguntzarekin.
**18:15** Bonba japoniarrak haurrentzat San Martin Agirre plazan.
**18:30** Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsaren kalejira, Udal Txistulari Bandak eta Elgoibarko gaitarien taldeak lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.
**19:00** Dragoi Alde txarangarekin kalejira.
**19:30** Pilota partiduak: Bergarako Udal Pilotalekuan, Bergara Hiria txapelketako errebantxa.
**22 urtez azpikoetan:**
Elezkano-Landaburu / Jaunarena-Bergera
**Elite mailan:**
Ollo-Linzoain / Mendizabal-Larrinaga
**22:30** Nagusien danborradaren irteera, Udal Musika Bandak lagunduta. Ibilbidea ondorengoa izango da: Kultura Etxea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraizkozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea, San Martin plaza.
**Ondoren**... Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin San Martin plazan.

**MARTITZENA, 16**
**SAN MARTIN AGIRRE EGUNA)**

**08:00** Sokamuturra, herriko kaleetan zehar.
**08:30** Diana, Udal Txistulari Bandarekin.
**11:00** Errekortadore eskola ibiltaria Seminarioko patioan.
**11:00** Meza nagusia, San Pedro elizan.
**11:15** Kalejira, Udal Musika Bandarekin.
**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua San Martin plazan.
Egitaraua:
*Puenteáreas* R. Soutullo
*Poeta y Aldeano* F. Von Suppe
*Nagasaki 1597* M. Gz. Bastida
*Noah's ark* B. Appermont
*San Martin* M. Gz. Bastida
Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque
**18:30** Haurren danborrada, Musika Eskolako Bandak lagunduta. Ibilbidea ondorengoa: kultura etxea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraizkozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza.
**19:30–22:00** Dantzaldia Tximeleta taldearekin San Martin plazan.
**22:00** Suzko Erruberak Agorrosinen.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 14 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 15 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 16 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 17 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Eguena, 18 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Egubakoitza, 19 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 14 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 15 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 16 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 17 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 18 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 19 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 15 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 16 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 17 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 18 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 19 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 14 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 15 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 18 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 19 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 13**
Zerua hodeitsu egongo da, tarteka oso hodeitsu, eta zaparrada arin-ertainak botako ditu. Arratsaldean, hodeiak gutxitu egingo dira.



**Domeka, 14**
Eguraldi ezegonkorra egongo da. Hodeitsu egongo den arren, atertze aldera egin dezake eguneam zehar.

### EUSKAL HERRIAN

Zerua estalita egongo da asteburu osoan zehar. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta zaparradak botako ditu, bereziki Kantauri isurialdean. Tenperatura maximoak 18-20ºC inguruan geratuko dira. Domekan, hobetze aldera egin dezake, baina giro goibelarekin jarraituko dugu.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 7 — **10 ºC**

**MAXIMOA** Eguaztena, 4 — **31 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **15,4 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 3 | 24 ºC | 17 ºC | 0,1 l/m² |
| Eguena, 4 | 24 ºC | 16 ºC | 2,1 l/m² |
| Egubakoitza, 5 | 26 ºC | 17 ºC | 2,4 l/m² |
| Zapatua, 6 | 20 ºC | 14 ºC | 0,1 l/m² |
| Domeka, 7 | 24 ºC | 14 ºC | - l/m² |
| Astelehena, 8 | 31 ºC | 10 ºC | - l/m² |
| Martitzena, 9 | 27 ºC | 17 ºC | 10,7 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA IRAILEAN

| Ilgora | Ilberri | Ilbehera | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 7 | 15 | 22 | 29 |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Jardun euskara elkarteak, hainbat ekintza**
Jardun euskara elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu: Txapligu eta Txiskrilabi aisialdi taldeak; bertso, trikiti eta dantza eskolak; Berriketan egitasmoa, hika-lagunarekin; euskara errefortzuak… Izenematea zabalik dago Jardunen (Errotalde jauregia), hilaren 26a arte.

ARRASATE
**> Katekesiko lehenengo mailan izenematea**
Datorren eguazten eta eguenean, hilak 17 eta 18, eman ahal izango da izena katekesiko lehenengo maila egiteko. Arrasateko parrokia eta eliza-elkarte guztietan egin daiteke, 18:00etatik 19:00etara.

ARETXABALETA
**> 'Aisialdi birtuala' delako ikastaroa**
*Aisialdi birtuala* delako ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:00-19:30. Aisialdirako aukerak bilatzeko Internet erabiltzen erakutsiko diete Txatxilipurdikoek 8-14 urte artekoei.

BERGARA
**> Pintura eta marrazketa ikastaroa, Beartekin**
Beart elkarteak ume eta gazteendako margo eta marrazketa ikastaroa antolatu du. Bi aukera daude: aste barruan edo zapatu goizetan. Argibideetarako, deitu telefono zenbaki hauetara: 653 71 53 82 (Mayra) / 626 73 38 79 (Ainhoa).

ARRASATE
**> Hainbat ikastaro, Ekin Emakumeekin**
Ekin Emakumeak elkarteak eskulan eta orratz-lan ikastaroak antolatu ditu datozen hilabeteotarako. Izenematea zabalik dago elkartean edo honako telefonoetan: 651 70 79 36 / 943 79 83 70.

BERGARA
**> San Joxepe Abesbatzaren entseguak**
San Joxepe Abesbatzak jakinarazten du hilaren 17an, eguaztena, hasiko dituela entseguak, 17:30ean.

BERGARA
**> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute**
1947an jaiotako bergararrek kinto afaria izango dute urriaren 4an Tartufon. Izena emateko, sartu 55 euro Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan, irailaren 26a baino lehen.

OÑATI
**> 1982an jaiotakoek kintada egingo dute**
1982an jaiotako oñatiarrek kintada izango dute hilaren 20an. Ongi tabernan batuko dira 13:00etan, eta Soraluzen bazkalduko dute, 14:30ean. Izena emateko, sartu 50 euro Kutxan zabaldu duten kontuan.

ARRASATE
**> Margo ikastaroa antolatu du Udalak**
Urtero bezala, margo ikastaroa deitu du Udalak. Kulturaten izango da eta Amaia Bengoak emango du. Irailaren 22an hasiko da, eta izena emateko epea hilaren 15etik 19ra egongo da zabalik, Kulturateko pintura gelan (Seber Altubetik sarrera), 17:00etatik 19:00etara. Ikasturte osoan, astean hiru ordu eskola emango dituzte, eta 130 euro da. 7 urtetik gorako edozeinek eman dezake izena.

BERGARA
**> Udazkenerako, lau ikastaro berri**
Udalak honako ikastaroak antolatu ditu: postregintza, bitxigintza, film laburrak eta aretoko dantzak. Argibideak, kultura etxean (943 77 91 60).

BERGARA
**> 1948an jaiotakoek, Hondarribira irteera**
1948an jaiotako bergararrek Hondarribira irteera egiteko parada dute hilaren 27an. Besteak beste, alde zaharretik bisita gidatua izango dute, eta bazkaria. Izena emateko, sartu 65 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

BERGARA
**> Bainuetxea itxita dago, lan batzuk egiteko**
Bainuetxea itxita dago irailaren 21a arte, konponketak egiteko. Hilaren 15etik 21era, kirol eremu guztia egongo da itxita.

ARRASATE
**> Lan poltsa osatu gura du Txatxilipurdik**
Txatxilipurdi elkarteak dei egiten du lan poltsa osatzeko. Kurrikuluma *idazkaritza@txatxilipurdi.com* helbidera bidali behar da.

BERGARA
**> Adineko ezinduak zaintzen dituztenendako posturaren higienearen gaineko ikastaroa**
Sendian programaren barruan, adineko ezinduak zaintzen dituzten familiendako honako ikastaroa antolatu dute: *Zaintzailearen higiene posturala. Mobilizazioa eta transferentziak*. Irailaren 22tik 24ra izango da, erretiratuen etxean. Izena emateko, deitu Udal Gizarte Zerbitzuetara (943 77 91 65).

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Badago krisi ekonomikorik? Hartu duzu neurririk?



**Luisa Vicente**
Etxekoandrea
Arrasate

Senarra eta biok erretiratuta gaude eta igartzen dugu prezioek gora egin dutela. Denean igartzen da, baina, hala eta guztiz ere, ez dugu neurri berezik hartu, datorrena hartu beharko dugu.



**Josu Aldea**
Langilea
Arrasate

Igarri dut krisia. Batez ere diru aldetik, lehenago gastatzen baita orain. Egoera honentzat erremedioa kontu korrontetik diru gutxiago ateratzea da. Krisi gogorragoa etorriko dela uste dut.



**Ane Undagoitia**
Ikaslea
Arrasate

Oraindik ez dut askorik igarri. Gainera, jendea berdin-berdin joaten da bidaiatzera. Ez gaude kontzientziatuta krisi egoeraz. Ni oraindik amak ematen didanarekin konpontzen naiz.



**Jon Aranbarri**
Langilea
Arrasate

Orain arte ez dut igarri, nahiz eta gorputzean beldurra sartu zaidan dagoeneko. Egoera horren aurrean, nahi gabe hartzen dira neurriak, batez ere gastuak kontrolatzeko garaian.



**Maite Salegi**
Etxekoandrea
Arrasate

Duda gabe krisi ekonomikoa badago. Gauza guztiak oso garesti daude. Duela urte batzuk diru gutxiagorekin gauza gehiago eros zitezkeen. Egoera honek aurrezteko aukera ere ez du ematen.

txistuak



GOIENKARIA

## Iturria txukuntzeko lanak, noizko?

Bergarako Zubiaurre kaleko irakurle batek bidali digu aste honetako kexa. Kale horretan aspalditik iturri bat dago, eta auzoko jendeak bertatik edateko ura hartzeko ohitura dauka. Gertatzen dena da urtetan konponketarik egin ez denez bertan, dena hondatuta eta abandonatuta dagoela. Udalari eskatzen dio txukun dezala hainbeste urte dituen iturri hori.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

**15**

Astelehen goizeko eurien ondorioz 15 litro ur pilatu ziren metro koadroko. Hurrengo orduetan ere euri zaparradak handiak izan ziren Debagoieneko hainbat lekutan, eta uholde txikiak eta errepidean ur poltsak sortu ziren.

usteak uste

Mirari Altube

## Krisi sasoian imajinazioari lekua

Aretxabaletako kultura etxea kudeatzeko lehiaketara –Udalak egindako bigarren deialdia– enpresa bi aurkeztu dira, bata Portugaletekoa eta bestea Amurriokoa. Gogogan izango duzue lehenengo deialdira bakarra aurkeztu zela, aretxabaletarrek osatutako taldea hain zuzen, baina ez zutela adostasunik lortu.

Orain kanpotik etorri zaizkigu. Seguru nago biek izango dituztela profesional onak. Eta seguru nago zerbitzu ona emango digutela Arkupeko erabiltzaileoi. Arkupe kudeatu, horixe egin behar dutelako. Baina nik pena handia hartu dut aretxabaletarrak ez direlako berriro aurkeztu. Ilusioz agertu ziren, eta ilusioa sortu zuten herritar askorengan. Kultura etxea kudeatu ez ezik, herriko kultura suspertu gura zuten, elkarte, talde eta herritarrokin lan egin. Eta orain ez da izango halakorik.

Baina ez dugu itxaropenik galdu behar. Astean bertan batzarra egitekoa zen herritar talde bat zine-kluba abian jartzeko, eta beste herritar batzuk jazz doinuak ekarri gura dituzte herrira. Krisi sasoian imajinazioa bizitzen ei da, eta sasoi ona da beste era bateko ekimenak antolatu eta gure herria lozorrotik iratzartzeko.

5 galdera...

# Rosa Maiztegi

Arrasateko kioskokoa
Arrasate

**1. Urteko zein garaitan saltzen dira bildumak? Nork erosten ditu?**

Normalean abuztuan, Aste Santuan eta Gabonetan ateratzen dituzte bildumak saltzera. Abuztu erdialdean hasi ziren, eta guztira 200 bilduma ateratzen dira, mota guztietakoak. Umeendako eta nagusiendako, besteak beste. Amamendako erosten dituzte batzuek, kanpoko jendeak ere erosi du.

**2. Zein izan da bilduma guztien artean aurtengo berritasuna?**

Aurten errosarioak. Fatimakoak eta Lurdesekoak atera dira orain arte... Ordu erdian denak saldu ditugu; gainera, arrakasta handia izan dute. Jendea oraindik eskatzera dator kioskora, telebistan ikusten baitute hurrengo argitalpenaren iragarkia. Kioskoan daramatzadan urte guztietan ez dut ikusi halakorik.

**3. Bilduma guztiak saltzen dira beti ala garai batzuetan beste batzuetan baino gehiago?**

Normalean, gauza guztietan lehen bilduma beti saltzen da asko, merkeak direlako: euro bat, 1,95 euro, 2,95 euro, 4,95... Horiek dira lehenak eta agortu egiten dira. Badaude beste bilduma batzuk guk atera ere ez ditugunak egiten, bi urte behar baitira osatzeko.

**4. Bilduma kontuetan urte batzuetatik hona zein izan da aldaketarik nabarmenena?**

Lehen jendeak hizkuntzen bildumak egiten zituen, baita naturari buruzko liburuen bildumak ere. Horiek orain saldu ere ez dira egiten. Modak asko aldatu dira bilduma kontuetan ere.

**5. Krisi garaian gaudela diote. Nabaritzen da hori bildumak saltzeko garaian?**

Bildumetan ez da askorik igartzen, jendeak bildumako lehen argitalpena beti erosten duelako. Gehien nabaritu duguna egunkarien salmentan izan da. Orduan, egunkarietakoek sustapen errazak jartzen dituzte jendeak egunkaria eros dezan.



**HEZKUNTZA** > ESPERIENTZIAREN ESKOLA

# Aurten, 50 urtetik gorakoendako formazio eskaintza dago Arrasaten

Urritik ekainera izango da ikasturtea, eta astean hiru egunean izango dituzte eskolak; gure ibarrean halako formazioa eskaintzen duten lehen aldia da



Argazkian, iaz Irunen egin zuten Esperientziaren Eskolan parte hartu zuen helduen taldea. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Oraingo ikasturtean Arrasaten izango diren zerbitzuen artean bada bat aurreneko aldiz egingo dutena: Esperientziaren Eskola. 50 urtetik gorakoei zuzenduta, elkarren arteko harremanak bultzatzea da helburuetako bat: "Gaur egungo gaiak landuko ditugu, hitzaldi bidez. Elkarren arteko harremanak bultzatu nahi ditugu, oso garrantzitsua delako lana utzi eta gero elkarrekin harremanetan segitzea; eta gaur egungo gaiak erakustea da beste helburua, gaur egungo gizartea ulertu eta aztertzea ahalbidetzen duten ezagutzak eguneratzea", azaldu du Aitziber Indartek, eskolaren arduradunak.

Edukien alorrean batzuk aipatzearren, aukera izango dute komunikatzeko trebetasuna, informatika, zuzenbidea, filosofia, komunikabideak, bioetika eta beste ikasteko: "Modulu modukoak dira; gai bat hiru egunean ematen da eta helduei zuzendutako eskola egokituak dira. Ez dago azterketarik, ez etxeko lanik eta ez du inork zertan arbelera atera behar", azaldu du Indartek. Hori bai, gaineratu du bukatzen duten guztiei diploma emango dietela. Gainera, irakasle profesionalek emango dituzte eskolak.

Matrikulatzeko epea zabalik dago, urriaren 15era arte. Eskolak urriaren 21ean hasiko dira. Matrikula telefonoz egin daiteke (943 22 41 43). 200 euro ordaindu behar da urte guztikoa.

**ASKO JOTA, 25 LAGUN**

Gehienez jota, 25 pertsonako taldea osatuko dute: "Oraindik badaude leku libreak, baina jendea hasi da animatzen eta igartzen hasi gara hor inguruko helduek bazutela halako zerbait egiteko gogoa. Parte hartzeko ez da aldez aurretik inolako titulurik behar, eta edozeinek parte har dezake", azaldu du Esperientziaren Eskolaren arduradunak.

**ESKAERA ARRASATETIK**

Arrasaten halako zerbait egiten duten lehen aldia da, baina Gipuzkoako bestelako herrietan (bederatzitan) orain arte urtero izan da eskaintza hori. "Arrasatetik eskatu egin dute han ere ipintzeko. Orain arte ez dugu ipini Debagoienean, berez eskaera udalek egin behar dutelako (euren dirulaguntza beharrezkoa da), eta orain arte ez da halakorik egon".

Eskoletara joateaz gain, irteerak eta bestelako ekimenak ere egingo dituzte; adibidez, eskoletako helduek elkar ezagutzeko.

IKASTURTE BUKAERA

## Eskolak hartzeaz gainera, ikasturte bukaerako proiektua

Eskola bakoitzak proiektu bat egin behar du ikasturtea amaitzen denean. Aitziber Indartek ipini dizkigu adibideak: "Adibidez, Orion belaunaldi arteko proiektua egin zuten, ikastolako 14 urteko gazteekin. Helduek sukaldaritza eta joskintza erakutsi zieten, eta gazteek, ingelesa eta informatika. Beste proiektu batzuk izaten dira elkarteak sortzea; edo, Ordizian, ingurumenarekin lotutako bat egin zuten. Ikusi zuten leku batzuetan edukiontzirik ez zegoela eta Esperientziaren Eskolakoek egin zuten estudio txiki bat, argazki batzuk atera eta Udalari eskatu, dossier txiki baten bitartez, edukiontziak ipintzeko. Ez dira zailak egiteko, baina bai herritarrendako interesgarriak".


ARRITXU BARRUSO

## Txikitxoenen elkartasun keinua, Indiara

Gazteluondoko neska-mutikoek eguaztenean eman zioten Jose Luis Lezeta jesuitari Arrasatetik Indiara eraman beharreko dirua: 800 euro. Uda aurretik azokatxoa egin zuten Gazteluondokoek etxetik eramandako gauzekin eta ekimen horren bitartez batutako dirua da misiolari nafarrari eguaztenean eman ziotena. Hark Mesanna inguruan dagoen behartsuen eskola mantentzeko inbertituko du. Gobernuz kanpoko Harreman elkartearen bitartez gauzatu dute ekimen hori.

**INGURUMENA** > MUGIKORTASUN ASTEA 08

## Emisio txikiko ibilgailuak probatu ahal izango dira

Emisio txikiko hainbat ibilgailuren erakusketa ipiniko dute irailaren 20an eta 21ean

**U.M.** > ARRASATE

Emisio txikiko ibilgailuak eta segway aparailua probatzeko aukera, Arrasateko atmosferaren kalitatearen gaineko erakusketa, bizikleta bira (Arrasate-Eskoriatza) eta Bir-Zikleta dira aurtengo Mugikortasun Asterako Udalak antolatu dituen ekimenetako batzuk.

Irailaren 16tik (martitzena) irailaren 22ra (astelehena) egingo dira ekitaldiok; dena den, esanguratsuenak irailaren 20an eta 21ean (asteburuan) izango dira. Hain justu, zapatuan eta domekan izango da emisio txikiko ibilgailuen erakusketa eta haiek probatzeko aukera: auto hibridoak, elektrikoak, motorrak (elektriko eta hibridoak), paseoko bizikletak, tolesgarriak, bizikleta elektrikoak, segway eta beste izango dira.

Bigarren eskuko bizikleta azokari dagokionez, zapatuan egingo dute, bihar zortzi, baina bihar hasiko dira harako materiala batzen (Udal Azokan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara). Hurrengo aukera martitzenean da (irailaren 16a) eta azkena eguenean.

Bestelakoei dagokienez, aipagarria da Mugikortasun Aste osoan urbanoan doan ibili ahal dela, aurten bonu barik; eta irailaren 22an, autobusa doan izateaz gainera, maiztasun bikoitza izango duela.

**ONDAREA** > MENDIAZPI ANTZINAKO ZUBIA

# Garaian birkokatuko dute Mendiazpi zubia

Arrasateko mendebaleko saihesbidearen obrek (Olandixoko tunela) eragin dute antzinako zubi hura lekuz aldatu beharra

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Pozik daude Uribarriko auzotarrak oraingo astean Arrasateko Udalak jakinarazitakoarekin: Mendiazpi zubia gorde eta Garaia Berrikuntza Gunean birkokatuko dutela: "Ezusteko oso ona izan da; itxaropen apur bat bageneukan, baina Barrenatxoren gainean ezetz esan digutenez, beldurra ere bai; hogeitaka urte eman ditugu zubi hori salbatu nahian", azaldu du Jone Bergaretxek, Uribarri baserri auzoko alkateak. Olandixoko obrek eragin dute zubia lekuz aldatu behar hori.

**GIZON HANDIAREN ZUBI TXIKIA**

Zubi txikia da Mendiazpi, "begia zazpi metrokoa dauka eta atzeko pibotek guztira 13-14 metro neurtzen dute", baina gizon handi batek eraikitakoa edo diseinatutakoa: "Pedro Bernardo de Villarreal Berriz ingeniariak; ez dakigu hura Uribarrin jaiotakoa zen, baina Uribarrin bataiatutakoa da eta Monterrongo lehen kondearekin ezkondu zen. Badago liburu bat, *Puentes y saltos de agua del País Vasco*, eta hor ipintzen du Aramaiotik hasi eta Debaraino, ur salto (presak) eta zubi gehienak hark marraztutakoak direla, eta pentsatzen dugu Uribarrikoa ere hala dela. Gehienek sistema bera daukate, eta Uribarrikoak ere bai", azaldu du Bergaretxek.

**SILLERIADUN HARRIA**

300-400 urte ditu Mendiazpik: "Elorriotik ekarri zen harria; han eliza bat jausi zen, harria enkantean atera zuten eta Mendiazpikoek erosi eta ekarri egin zuten gurdiekin; harrobikoek gastatu eta forma eman zioten harriari; gainera, ez dauka porlanik, dena karearekin eta lurrarekin eginda dago. Gainerako zubiekin konparatuta, harlanduzko harria du Mendiazpikoak eta halako gutxi daude", dio.

**ZUBIA OSORIK ERAMAN BEHAR**

Zubia desmuntatu barik eraman behar dute Garaiara, "erdiko harria kenduz gero, guztia jausiko litzateke-eta", jakinarazi du Bergaretxek: "Enkofratu bat egingo diote zubiari, oso-osorik atera eta beste aldean sartu", gaineratu du. Dena den, oraindik ez dute zehaztu hori noiz egingo duten.

**AUZOKO ESKAERA: BARRENATXO**

Mendiazpirekin pozik daude uribarritarrak; ez, ordea, Barrenatxo errota ez gordetzeko Udalak hartutako erabakiarekin: "Hogeitaka urte egin ditugu Barrenatxo salbatu nahian. Mendiazpi zubia eramaten duten lekura Barrenatxo ere eramatea egokiena litzateke, zubi aldamenera; eta, han ipin daiteke baita ere antzinako Telleria labea, gaur egun abandonatuta dagoena", bota dio Bergaretxek Udalari. Ideia hortxe dago, baina, jakina, dirua behar da hori gauzatzeko, eta oraingoz ez dago.



Bidegorritik ikusten da Mendiazpi zubia, Mendiazpi baserriaren ondoan dagoena. UBANE MADERA

**ZERBITZUAK** > UDAL KIROLDEGIA

# Astelehenean zabalduko dituzte barruko igerilekuak

Igerileku txikian obra egin dute, orain arte eragiten zituen zauritxoak saihesteko

**U.M.** >ARRASATE

Udako azkeneko egunetan sartuta gauden honetan, etzi, domeka, itxi egingo dituzte, datorren uda arte, kanpoko igerilekuak eta astelehenean zabaldu barrukoak. Gainera, barruko igerilekuetan, obrak egin dituzte txikian: "Barrutik dena forratu dugu. Baldosatxoak askatu egiten ziren eta zauriak izaten ziren egunero; gainera, igerilekua urarekin zegoenez, ezin genuen konpondu. Orain, material berezi batekin forratu egin dugu", azaldu du Larraitz Sanzberrok, kiroldegiko teknikariburuak. Adierazi du, baita ere, kolorea aldatu diotela igerilekuari eta orain arte zeukan urdin kolorea gris, beltz eta zuriarengatik aldatu dutela, "Frantziatik datorren moda bati jarraituta".

**LAU GIMNASIO**

Bestalde, irailaren 22an abiaraziko dituzte ikastaroak eta horri begira ere egin dute berrikuntzaren bat edo beste; gimnasioetan, adibidez: "Bi gimnasiotik lau ateratzen gabiltza. Oraindik erdibidean gaude, baina 22rako egongo dira bukatuta. Eskaintza bikoiztea da helburua, lekua hobeto aprobetxatzea. Eskaera gehien dagoen orduetan eskaintza gehiago izateko; eta gehien eskatzen da arratsaldeko ikastaroetan. Lehen bi eskola ematetik orain lau izango dira. Aldaketa handia da", dio teknikariak.

> ERLIJIOA

### Katekesian izena emateko epea zabaldu du Arrasateko parrokiak

Aurtengo ikasturtean katekesia ikasi gura duten Arrasateko neska-mutikoek izena eman behar dute aurreneko mailan hasteko. Bada, parrokiatik abisatu dute izenemate epea zabalik dagoela. San Juan parrokian bertan eman daiteke izena edo herriko edozein eliza elkartetan, 18:00etatik 19:00etara.

> ERRETIRATUAK

### Bingoa eta Nafarroara txangoa egingo dituzte Musakolako erretiratuen egoitzakoek

Eguenean, hilaren, 18an bingoa egingo dute Musakolako zaharren egoitzan. 17:00etatik 18:00etara izango da, eta, behin hasita, eguenero egingo dute, uda arte. Bestalde, irailaren 24an, Xabier eta Leireko monasterioak (Nafarroa) bisitatuko dituzte, besteak beste. Izena eman behar da irailaren 16an eta 17an, 17:30etik 19:00etara.

> JAIAK

### Ozen eta Scam musika taldeak, bertsolariak, herri kirolak eta beste, Uribarri-Erguingo jaietan

Gaurtik domekara jaietan ibiliko dira erguindarrak, eta makina bat ekitaldi iragarri dute: batetik, gaur, egubakoitza, Ozen eta Scam taldeen kontzertua izango da; bihar, besteak beste, umeendako haur parkea goiz eta arratsaldez; eta etzi, eguerdian bertsolariak eta herri kirolak (Arimazubin), 17:00etan umeen moda desfilea (Usaetxen) eta gauean su artifizialak, Olandixotik jaurtita.










Peterpunk pailazoak hasiko du AGAKOren ospakizun eguna. AGAKO

**ARRASATEKO GAZTETXEA** > ALDAKETAK BIHARKO OSPAKIZUN EGUNEAN

# Dena gertu berritasunez jositako kurtso berriari hasiera emateko

Ain-1en ordez euskal kantuak jotzen dituen Italiako Egin taldeak joko du; kale antzerkia ere izango da

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Heldu da kurtso berriko aldaketen berri emateko ordua, abuztuko lanak eta proiektu berriak aurkezteko eguna. Ospakizunerako eguna izango da biharkoa AGAKOrentzat, gaztetxeko ateak herriari irekitzeko aprobetxatuko duten jardunaldia, hain zuzen. Bide batez, arrasatearrei gaztetxearekiko inplikazioa eskatzeko ere balioko du.

**AIN-1EN ORDEZ, EGIN ITALIARRAK**

AGAKOk kurtso hasiera egunean azken orduko aldaketa eta berritasunak sartu ditu. Aurreko astean iragarritako Ain-1 taldearen emanaldia, esaterako, bertan behera geratu da.

Hain ikuskizun bereziak eskaintzen dituen talde arrasatearraren ordez, Italiatik datorren Egin taldea izango da agertoki eraberrituaren gainean. Talde italiarra ezezaguna da gure artean. Mireia Baz AGAKOko kideak argitu duenez, "italieraz abesten dituen kantuez gain, Euskal Herriko abesti tipikoenak ere jotzen dituen taldea da Egin". Eginen kontzertua "kasualitatez" lotu dutela dio Bazek: "Lan egiten nuen jatetxeko nagusiak esan zidan Egin taldeak Euskal Herrira etorri behar zuela, eta guk Ain-1en kontzertua ordezkatzeko talderik ez genuenez, taldea gaztetxera ekartzea erabaki dugu".

Era berean, Bazek ez du taldearen inguruan ezer gaineratu nahi izan. Beraz, Egin deritzon proposamena ezagutu nahi duenak gaztetxera joan beharko du. 22:00etan izango da kontzertua, udako lanen aurkezpen ekitaldiaren ondoren.

**KALE ANTZERKIA ERE BAI**

Biharko egitarauan kale antzerkia ere izango da. Galiziatik datorren Peterpunk pailazoak ordubeteko emanaldia eskainiko du Seber Altube plazan, 18:30ean. Aurreko astean ere izan zen, bere kontu antzezten, eta Bazek adierazi duenez, "jende mordoa gerturatu zen haren antzezlana ikustera". Oraingoan, AGAKOtik proposatu diote kurtso hasiera egunean parte hartzeko, eta pailazoak onartu egin du. Antzezteko orduan galizieraz mintzatzen da Peterpunk, eta ulermena errazteko, gaztetxeko kide bat arduratuko da esamolde konplikatuenak itzultzeaz.

Gero, antzerkiaren ostean, herri poteoa egingo dute, txarangak girotuta. Tabernarik taberna ibili ostean, gaztetxera abiatuko dira eta bertan pintxoak izango dira nahi duenarentzat. Biharko egunaren helburua argi dauka Bazek: "Asmoa herriari gaztetxearen ateak irekitzea da".

**TXATXILIPURDI** > IKASTURTEAREN HASIERA

## Datorren astean irekiko dira ludoteka eta gazte txokoak

Ikasturte hasierako festa antolatu dute biharko; tailerrak, jinkana eta txistorra-jana izango dira

**J.B.** > ARRASATE

Txatxilipurdik datorren astean emango dio hasiera ikasturte berriari. Urtero bezala, ludoteka eta gazte txokoak izango dira Txatxilipurdik eskainiko dituen zerbitzu aipagarrienak. Arrasateko hiru ludotekak irailaren 15ean zabalduko dira. Gazte txokoek, berriz, egun bat geroago hasiko dute ikasturtea, irailaren 16an.

Zerbitzuon irekiera ospatzeko, eta Uribarri-Erguingo jaiak direla aprobetxatuz, ikasturtearen hasiera festa antolatu dute biharko. 3 eta 12 urte artekoei begira antolatu duten jaia da, ikasturtea behar den moduan hasteko.

**DENETARIK EGITEKO AUKERA**

Ludoteken ordutegia honakoa izango da: astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara. Egubakoitzero ekintza bereziak antolatuko dituzte eta aurten ere tailerrak, eskulanak, irteerak eta beste hainbat jarduera egingo dituzte. Izena emateko ludoteketara bertaratu beharko da.

Zigarrola, San Andres eta Erguingo gazte txokoak, bestalde, martitzenetik zapatura eta 17:00etatik 20:00etara izango dira zabalik. 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendutako hamaika ekintza, irteera eta ikastaro egingo dituzte. Txatxilipurdirekin zer egin egongo da, beraz.



Ludoteka eta gazte txokoek datorren astean zabalduko dituzte ateak. TXATXILIPURDI

**PINTURA** > IKASTAROAK KULTURATEN

## Irailaren 19a izango da izena emateko azken eguna

Ikastaroa hilaren 22an hasiko da eta, irailetik ekainera, astean hiru orduz arituko dira

**J.B.** > ARRASATE

Pintura ikasturtea ere hastear dago. Amaia Bengoa Arte Ederretan lizentziaduna irakasle izango duen pintura ikastaroa irailaren 22an hasiko da. Izena emateko Kulturateko Pintura Gelara bertaratu beharra dago, irailaren 15a eta 19a bitartean, 17:00etatik 19:00etara. Pintura Gelara sartzeko Seber Altube plazako sarrera erabili behar da.

**TALDE MUGATUAK**

Pintura ikastaroak ez du nahi beste jende apuntatzeko aukera ematen. Izan ere, gehienez 20 haurrez osatutako taldea osatuko dute.

Ikastaroaren prezioa 130 euro da eta haurrek izena emateko zazpi urte izan beharko dituzte, gutxienez. Ordutegia honakoa da: astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, berriz, 11:00etatik 13:00etara. Informazio gehiagorako 943 25 20 25 telefonora deitu.

MEHER

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.
Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56


HUMANITY AT WORK
MONDRAGON
ikasi egingo duzu
INGELESA, EUSKERA,
FRANTSESA, ALEMANA, TXINERA.
palabrahitzaword
eskolak:
ESKORIATZA-ARAMAIO
ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI
MONDRAGON LINGUA
ESKOLA ERAGINKORRAK, NAHIERAKO ESKOLAK
MAILA GUZTIAK, ADIN GUZTIETA-RAKO
ARRASATE-MONDRAGON
Avda. Alava, 4
943 71 20 55
OÑATI-OÑATE
Olakua, 14
943 71 60 00
BILBO-BILBAO
Buenos Aires, 7
94 661 34 67
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Zubieta, 26
943 43 31 02
VITORIA-GASTEIZ
Florida, 8-A
945 15 01 55
MONDRAGÓN UNIBERTSITATEko ikasle bazara
% 25 deskontua
AURREZ AURREKO ESKOLETAN
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Cambridge Unibertsitateko
azterketak gure zentroan.


Zure ametsetako
trajea dugu...
MARITXU KAJOI 2008
Casa Ceciaga
Casa Ceciaga 2008
101 urte
(Ardo onak nola, urterik urte hobetuaz...)
Aurten ere
festarako ehunka soineko eta traje
eta milaka osagarri ditugu
zure gaurik gogokoenerako
Casa Ceciaga
Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62
Maritxu Kajoi 2008
31 urte

**ESKUBALOIA** > FORD MUGARRI ARRASATE

# Iraila, hilabete gogorra eskubaloiko mutilendako

Liga txapelketa hasi bitartean, Ford Mugarriko mutilak denboraldi-aurre gogorra egiten dabiltza Edu Orgaz entrenatzaile berriaren agindueta

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

"Talde beteranoa aurkitu dut Arrasaten, baina motibatuta dagoena. Entrenamendu gogorrak egiten ari gara, eta ondo dabiltza erantzuten". Edu Orgazen berbak dira, Ford Mugarriko entrenatzaile berriaren hitzak. Iaz Bergarako taldean izan zen, eta aurten erronka berri bati heldu dio. Bi talde horien artean dauden aldeen gainean egin du berba: "Arrasateko taldeak esperientzia handiagoa du Bergarakoarekin alderatuta. Hainbat jokalarik urteak daramatzate elkarrekin lan egiten, eta fisikoki talde indartsua da".

Hori bai, fisikoki gorpuzkera indartsua izateak ez du esan gura arlo fisikoa behar beste lantzen dutenik: "Arlo horretan Bergaran lan handiagoa egiten genuen, eta horretan ari gara orain Arrasaten. Oraingo astean, esaterako, sei entrenamendu saio egingo ditugu, bolumen handikoak". Denboraldiko helburuen gainean Orgazek ez dauka dudarik: "Euskadiko Txapelketan arazo barik mantentzea". Horretarako 13 laguneko taldea dauka, eta oraingoz Aitor Aldanondo bergararra da kanpotik etorri den jokalari bakarra: "Baina beste bizpahiru jokalari gehiago behar ditugu".

Ford Mugarrik irraileko azken asteburuan hasiko du liga, kanpoan, Portugaleteren kantxan.



Ford Mugarri Arrasatek irail amaieran hasiko du liga, Portugaleteren kantxan. J.A.

> SASKIBALOIA

## Ointxe! elkarteak saskibaloian jokatu gura dutenendako entrenamendu saioa egingo du

Oraingo denboraldian saskibaloian jokatu nahi duten mutilentzako entrenamendu saioa antolatu du OINTXE! saskibaloi elkarteak. Saio hori bihar, hilak 13, egingo dute, 10:45ean Musakolako kiroldegian. Entrenamendu hori 1995/96 urtean jaiotako gazteei zuzenduta dago, kadete mailan joka dezaten. Datozen entrenamenduak noiz izango diren OINTXE!ren webgunean (*www.ointxe.com*) eta eskoletan bertan adieraziko dute.

> MENDIA

## Besaidekoek San Romanetik Opakuarako mendi zeharkaldia egingo dute domekan

Domekan egingo dute Besaidekoek irailerako antolatu duten irteera bakarra. Mendi zeharkaldia egingo dute Araba aldean, San Romanetik Opakuara, Baiotik igarota. Mendi bizikleta irteera bat ere aurreikusita zeukaten, baina bertan behera utzi dute. Urrian egingo duten mendi astean bizikleta irteerak ez du kale egingo.

> ERRUGBIA

## Iker Elortza arrasatearrak asteburuan hasiko du liga, Ampo Ordizia taldearekin, ohorezko ligan

Iaz kategoriari azken unean eutsita, Arrasateko Iker Elortzak Ampo Ordizia taldean egingo du aurtengo denboraldia ere. Domekan hasiko dute denboraldia, iazko txapeldun Cetransa Dismeva El Salvador taldearen kontra. Ordiziak hainbat fitxaketa egin ditu aurten, baina badaude taldea utzi dutenak ere, tartean Arrasateko taldeko entrenatzaile eta prestatzaile fisiko Igor Isasi. Isasik belauneko lesio batengatik utzi dio jokatzeari.

> GIMNASIA ERRITMIKOA

## Dragoi taldeko gimnastek gaur arratsaldean izango dute lehenengo entrenamendu saioa

Ikasturtearekin hastearekin batera, gimnastei ere iritsi zaie nagitasunak alde batera utzi, lanean hasi eta poliki-poliki orain dela hilabete batzuk zuten gorputzaldia errekuperatzeko sasoia. Gaur, egubakoitza, 18:30ean izango dute lehenengo lansaioa, Uarkapen. Horrekin batera, gimnasia erritmikoan hasi gura dutenek Uarkapera joan baino ez dute astelehenetan, eguaztenetan edota egubakoitzetan (17:00-19:00). Informazio gehiago: 645 72 13 18.

EUSKARA ESKOLAK
AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

arrasate
ERDU AEK
Garibai etorbidea 14, 3
943 77 03 69 arrasate@aek.org




IKASI EUSKARA | www.aek.org

• EUSKALDUNTZEKO MAILA GUZTIAK / ERRELEBOAK ERE BAI
• ALFABETATZEA 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean.
• MINTZA TALDEA 2 egun astean, ahozkoa lantzeko
• 3. MAILA / EGA 2 egun astean
• 4.MAILA / 4. PERFILA 2 egun astean + proiektua+tutoretzak
• AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA (ordu eta erdi mintza astero + ordu erdi tutoretza astero + etxerako lan pertsonalizatua)

Matrikula zabalik irailaren 30era arte
MATRIKULATZEKO ORDUA:
Goizez 11etatik 1etara arratsaldez 6etatik 8etara

Udalaren laguntzaz beka sistema

nire bidaia hura

### Eneko Bergaretxe

Errumaniara bidaia > 2008ko martxoa

# "Bukaresteko txirotasun maila altua den arren, han ikusten diren autoen maila oso altua da"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**2008ko Aste Santuko oporrak aprobetxatuz, Eneko Bergaretxe arrasatearra, Aitor Galdos lagun eskoriatzarrarekin joan zen Errumania aldera. Autobusez egin zuten bidaia eta esperientzia oso polita izan zela adierazi digu Bergaretxek.**

Martxoak 23an atera ziren hemendik eta Errumanian zehar antolatutako bidaian ibili ziren autobusez astebetez. "Bukarestetik hasi eta zazpi egunetan zehar herri eta monumentu garrantzitsuenak ikusi genituen", esan digu Bergaretxek. Bidaian zehar ikusitako herri garrantzitsuenak Sinaia, Piatra Neamt, Targu Neamt,Campulung Moldovenesc, Bistrita, Targu Mures, Sighisoara, Brasov eta Poiana Brasov izan ziren, eta amaitzeko berriz ere Bukarest hiriburura egin zuten itzulera.

**BIZIMODUAK HARRITU**

Bukaresten hasita, bertako biztanleen bizimoduak harritu egin zituen bi bidaiariak.

"Hiriburuko txirotasun maila nahiko altua dela errez nabarmentzen da, ordea bertan ikusten den ibilgailuen maila ikaragarri altua da". Horren adibide, "Audi Q7, Hummerrak, Ferrari eta limusina dezente ikusi genituen", azaldu digu harriduraz Bergaretxek.

Bestalde, hiriburutik kanpo zeuden herri xumeetan beste bizimodu latzago bat ikusi zutela adierazi digu Bergaretxek: "Nekazari herriak dira gehienbat eta beraien bizimodua lurrean eta abeltzaintzan oinarritzen da. Nekazarien artean ere alde nabarmenak daude: batzuek autoak eta traktoreak dituzten bitartean, beste batzuen ekonomiak behor pare bat eta egurrezko gurdi triste bat edukitzeko baino ez du ematen. Bertako bizilagunen ondarea lur sail bat eta egurrezko etxea da". Bergaretxek adierazi du: "Beraien ekonomia sustatzeko, kale edo errepide bazterretan beraiek jasotako produktu naturalak saltzen zituztela, hala nola, arrautzak, etxeko mermelada... Beraien seme-alabak, kanpoko jendea ikustean, kanpotarrongana hurbiltzen ziren diru eske".



Galdos eta Bergaretxe, Bistrita herrian.



Eneko Bergaretxe.

**"Nekazari herriak dira gehienbat; beraien bizimodua lurrean eta abeltzaintzan oinarritzen da"**

**"Erlijioak eta horren inguruko kulturak garrantzi handia du errumaniarrendako"**

**MONUMENTU AIPAGARRI UGARI**

Errumaniak monumentu aipagarri ugari ditu. "Bukaresten, adibidez, parlamentua da nabaritzen den eraikinetako bat. Horrekin batera, Nicolae Ceaucescu diktadore errumaniarra bizi zen etxea ez da beste munduko eraikin bat", adierazi digu Bergaretxek. "Bukaresteko kanpo aldean Errumaniako hainbat erregiotako landetxeen eraikinak batzen diren museo bat dago, bertako etxe eta lur sailen egitura erakusteko. Prahova probintzian dagoen Sinaia herrian Peles-en gaztelua nabarmentzen da. Bestalde, Transilvaniako lurraldean, Brasov konterrian Bran-en gaztelua dago; Vlad Tepes-en bizilekua izan zen".

Igaro ziren herrietan monasterio eta eliza garrantzitsuak ikusi dituzte. Hauxe diosku: "Kanpoko eta barruko hormak pintura freskoekin margoturik daude eta egoera ezin hobean mantentzen dira", dio Bergaretxek. Horiek guztiak ikusita, "aipatzekoa da erlijioak eta horren inguruko kulturak garrantzi handia duela bertako biztanleendako eta esatekoa da gehienak kristau ortodoxoak direla".

Bergaretxeren ustez, "Errumania bisitatzeko garai egokia uda izango litzateke, kirol ekintza ugari egiteko aukera gehiago ematen baitu; nahiz eta, gure ustetan, horretarako ez dagoen nahiko prestaturik ingurua". Azkenik, eguraldiari dagokionez, "pare bat aldiz elur dezente egin zigun, eta gauak oso hotzak izan ziren".

bere ustez



Oihan Zubizarreta

## Darigun kiratsa arnasten

Arnastu gure bizimoduari darion kiratsa. Edo sudurra tapatu eta bestelako begiekin begiraiozu, eta ardurarik gabe bizitzeko hautuak egin, ez kezkatu eta zoriontsu bizi.

Igaro ditzakegu egunak, hilabeteak, urteak eta bizitza osoak ere inguratzen gaituen errealitatea gezurrekin estaltzen. Eta begiak itxita, belarriak estalita edo ezpainak josita bizi, biziraun. Plastikozko diruaren kredituekin bizi eta bizitzak hipotekatu. Krisien mamuak irentsi eta errua geure buruari leporatu. Merezi dugun zigorra jaso eta lanpostuari eusteko gure zilborraren alde borrokatu. Telebistaren espektakuluak sufritu eta hegazkinean bidaiatzeari ikara diogula sinetsi. *Pixka bat es mucho* esan eta ez lotsatu. Desodorante batekin darigun izerdi usaina estaltzea edo telebistako kanalak aldatzea bezain erraz.

**"Plastikozko diruaren kredituekin bizi eta bizitzak hipotekatu"**

Gure muturren aurrean jarri dizkiguten ispiluetan islatzen diren gezurrak sinestean dago gakoa. Bizitzako norbere borrokak itzaliz eta telebistaren dizdira hutsak gure bizitzak argitu ditzan utziz. Gure beldurrak, zalantzak eta erabakiak. Bizitzearen errenuntzien eta bizitzeko hautuen artekoak.

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



Burdina eta hormigoia daude orain Tornilleria Deba zaharreko orubean. O.E.

**HIRIGINTZA** > ETXEBIZITZAK

# Tornilleria Deba zaharra bota dute, etxebizitzak egiteko

## Orubea garbitzen ari dira langileak: hormigoia obran birziklatuko dute eta burdina, txatartegian

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Tornilleria Debako lantegi zaharra bota dute dagoeneko eta lurzorua txukuntzen ari dira orain, etxebizitzak egiten hasteko.

Abuztuko lehen astean bota zuten eraikina. Orain, burdin eta hormigoi kilo asko daude lehen lantegia egondako tokian eta hori garbitzen ari dira Urartetxe enpresako langileak. "Bereiztu egin behar ditugu bi materialak: hormigoia obran bertan birziklatuko dugu eta burdina txatartegi batera eramango dugu. Kilo asko daude eta abendura arte, behintzat, iraungo dute lan horiek", azaldu du Estebe Txintxurretak, Urartetxe enpresako teknikariak. Tornilleria Deba Mekolalden dago orain.

**ETXEBIZITZAK**

Orube horretan etxebizitzak egingo dituzte gero: 197 libreak, 52 tasatuak eta 68 babes ofizialekoak. Estebe Txintxurretaren arabera, datorren udan hasiko dira libreak eraikitzen.

> UDALA

### Plan Orokorrari alegazioak jartzeko aukera irailaren 19a arte

Uztailaren 16an onartu zen Plan Orokorraren hasiera. Plan Orokor berriak bi aldaketa nagusi ditu: alde batetik, Zabalotegiko errepidea –ez da Plan Orokorraren barruan sartu–; eta bestetik, Ubera auzoko saihesbidea. Plan Orokorrari alegazioak aurkeztu nahi dizkionak irailaren 19ra arte izango du. Bestalde, plana ikusi nahi duen edonor bulego teknikora zuzen daiteke.

> ZERBITZUAK

### Bihar gauerako autobus zerbitzua egongo da Antzuolara eta Elgetara

San Martin jaiak direla eta, bihar gauerako autobus zerbitzua egongo da. Antzuola-Bergara eta Elgeta-Bergara bitarteko zerbitzua 00:00etan hasi eta 06:00etara arte egongo da. Antzuolatik Bergarara orduro egongo da 00:00etan hasita eta Elgetatik orduro, 00:30etan hasita. Bueltarako, berriz, Antzuolara orduro 00:45ean hasita eta Elgetara orduro, 00:10ean hasita.

> IKASTAROAK

### Udalak antolatutako ikastaroetan izenematea, irailaren 24a arte

Bergarako Udalak urri, azaro eta abendurako lau ikastaro antolatu ditu. Postregintza, bitxigintza, film laburren tailerra (urrian bakarrik) eta aretoko dantzak.

Izena eman nahi duenak irailaren 24a baino lehen kultura etxera hurbildu behar du. Bergarakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta bertan erroldatu gabe daudenek, 20 euro. Izena emandakoekin zozketa egingo da.

**SAN MARTIN JAIAK** > KOFRADIA

# Erreileno eta Tostoien Kofradiak IX. kapitulua egingo du domekan

(15. orrialdetik dator)

**NEREA MENOR** > BERGARA

Bergarako Erreileno eta Tostoien Kofradiak bederatzigarren kapitulua egingo du domekan. Urtero egiten duten moduan, aurten ere, Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako eta Portugalgo beste kofradia batzuk gonbidatu dituzte ekitaldira.

Kofradiako arduradunek jakinarazi dute beste kofradia askok egiten ez duten arren, eurek herriko jendea aukeratu izan dutela orain arte ohorezko kide egiteko, eta aurten ere horrela egingo dutela, herrian sari hori merezi duen jende asko dagoelako. Aurten kofradiako kide berriak izango dira: Ekonomia eta Ogasun sailburu ohia Mari Karmen Gallastegi; Udal Txistulari Bandako zuzendari Ramon Etxaniz; Bergarako Pilota Eskolako zuzendari eta entrenatzaile Reyes Azkoitia; eta jaietako antolatzaile diren Felix Iñiguez de Heredia eta Luis Mari Gutierrez.

**IBILBIDEA**

Irailaren 14an Udal Pilotalekuan elkartuko dira harrera egiteko eta jarraian meza entzutera joango dira moja klaratarren elizara. Handik kalejira egingo dute Udal Txistulariekin udaletxeko osoko bilkura aretoraino, eta han kofradiako ohorezko kide berriak izendatuko dituzte. Antolatzaileek uste dutenez, 20 kofradia baino gehiago etorriko dira Bergarara. Ekitaldiaren ostean Lasa jatetxean bazkaria egingo dute.

**argazki zaharra**



## San Martinak 1983an

San Martin jaika direla eta, orain dela 25 urte, 1983ko irailean, koadrila bereko neskak Bergarako San Martineko danborradan irten ziren, banderadun. Bertan agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara, hauek dira: goiko ilaran, Rosario Martinez, Inmaculada Uralde, Lorea Gallastegi, Elixabete Arizabaleta eta Isabel Astigarraga. Behean, Marixabel Oregi, ezezaguna eta Lucia Perez.

**Argazkia:** Elixabete Arizabaleta. **Testua:** Elixabete Arizabaleta. **Urtea:** 1983.





FRANTSES IRAKASKUNTZA

Mizpildi 3, 1. ezkerra • BERGARA

2008-2009 ikasturtea

Ikastaroaren hasiera:

urriaren 1a

Izenematea: irailaren 30era arte

Informazio gehiago:

10:00-12:00 eta 18:00-20:00

943.76.30.55




Marrazki eta pintura klaseak

Edurne Eraña

Kurtso hasiera:

IRAILAK 15

Goizez eta arratsaldez

651 74 21 54

943 76 40 14

Arrizuri 5, 1.C

Bergara

**UDALA** > EZ OHIZKO BILKURA

# Duela hiru urte landatutako pinuak ordezkatuko ditu Udalak

Mahai gainean zeuden hiru gaiak onartuta gelditu ziren, nahiz eta bat ere ez zuten aho batez onartu

Hiru gaiek eztabaida sortu zuten Udal Gobernuaren eta EAJko eta EAko zinegotzien artean

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Joan den astean udalbatzak ezohiko batzarra egin zuen. Mahai gainean hiru gai zeuden. Batzarrera zinegotzi guztiak joan ziren, EAJko bat izan ezik.

Ibargaraiko F blokeko lehen sotoan aparkaleku irekietako plaza erosteko zozketa finkatzea izan zen gaietako bat. Lehen deialdian zazpi pertsonak eman zuten izena aparkalekuak erosteko. Horien artean egingo da zozketa, baina eskatzaile bakoitzari garajea zozketan eman ordez, notario aurreko zozketa publikoa finkatzen duenaren arabera nahi duten aparkalekua aukeratuko dute; hau da, zozketatuko dena aparkalekua aukeratzeko zerrendan izango duten tokia izango da. Baina aukeraketa hori ez da egingo udal jabegoarenak diren 56 aparkalekuekin, 32 aparkalekurekin baizik. Arrazoia hau da: 2005eko azaroaren 7an udalbatzak Espainiako Gobernuari Seminarioan erosi zizkion lursailean, oraingoz, aparkalekurik egin behar ez denez, Udalak Ibargari kaleko F blokean dituen 56 aparkaleku irekietatik 24 emateko erreserbatzen direla UNEDendako. Aparkalekuen zozketaren finkatzea onartuta gelditu zen batzarrean; PSE-EEk eta EAJk kontra bozkatu zuten eta EA abstenitu egin zen. Alderdi jeltzaleak adierazi zuen ez daudela ados gauzak nola egiten ari diren eta Errege Seminarioan erositako lursailen azpian garajeak egin beharko liratekeela herrian horren behar handia dagoelako, eta, are gehiago, Domingo Irala kalea oinezkoendako ipiniko dutelako. Agurne Barruso alkateak adierazi zuen momentuz eta aurten, behintzat, ez direla lan horiek aurrera eramango, baina epe laburrean, 5-6 hilabetean, erabaki bat izango dutela. Ibargaraiko lehen sotoan gelditudiko diren 25 aparkalekuetarako izena emateko bigarren deialdia egingo du Udalak, baina oraindik ez dute datarik zehaztu.

DATUA

**25**

APARKALEKU

Horiek izango dira Udalak egingo duen bigarren deialdi batean –oraindik data zehaztu gabe dago– Ibargaraiko F blokeko lehen sotoan saltzeko gelditzen diren aparkaleku kopurua.

**DANTZA-LEKU MENDIA**

Bigarren gaia Eusko Jaurlaritzak Dantza-leku mendi publikoaren ingurumen berrezarkuntza egiteko proposamena izan zen. Dantzaleku Elorregi auzoan dagoen 145.041 $m^2$ dituen udal mendi-lursaila da. Bertako pinuak atera –duela hiru urte landatutakoak– eta haien ordez lizarra, gereziondoa eta haritza landatzea da proposamena. Horren inbertsioa Jaurlaritzak egingo luke, eta Udalak, lursaila ipini. EAJko eta EAko zinegotziek kontrako bozka eman zuten eta beste guztiek aldekoa; beraz, onartuta gelditu zen. EAJ eta EAko zinegotziek adierazi zuten gogorra iruditzen zaiela duela hiru urte landatutako pinuak ateratzea eta ordezko batzuk sartzea, eta gehitu zuten Bergaran badaudela egoera txarragoan dauden lursailak eta ea ez litzatekeen posible izango beste horietan landatzea.

Azken puntu gisa, udalerriko emergentzia plana ere onartu zen. EAJ abstenitu egin zen eta besteek alde bozkatu zuten.

**ONDAREA** > UDAL ARTXIBOA

## Herriari buruzko ikerketak sustatu gura ditu Artxiboak

Laguntzak emango ditu herriari edo herritarrei buruzko ikerketendako

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bergarako Udal Artxiboak herriko historiari buruzko ikerketak egiteko laguntzak emango ditu bigarren urtez. Helburua da ikerketa historikoak sustatzea.

Arantzazu Oregi Artxiboko arduradunak azaldu bezala, ez da lehiaketa bat. "Ikerketa bat egin gura duenak proposamena aurkez dezake. Ondare, Turismo eta Informatika batzordeak aurkeztutako ideia horiek aztertu egingo ditu eta interesa dutenak diruz lagunduko ditu Udalak", azaldu du Oregik. Ikerketa horiek laguntzeko diru partida bat du Udalak eta ikertzaileak egindako balorazio ekonomikoa hartuko da aintzat dirua banatzeko. "Diru hori hainbat zatitan bana daiteke, proiektuen arabera", zehaztu du Arantzazu Oregik.

Bergara herriari edo herritarrei buruzko ikerketa egin gura duenak datu hauexek aurkeztu behar ditu Udaleko erregistro orokorrean: proiektuaren laburpena, proiektuaren oinarrizko jarraibideak, metodologia, iturriak, lana egiteko epea, balorazio ekonomikoa eta hizkuntza.

**ARTXIBOA SAREAN**

Bergarako Udal Artxiboak sarean jarri zuen bere materiala maiatzean. Edozeinek etxeko ordenagailutik kontsulta ditzake artxiboko fondoak edo albisteak. Helbidea hau da: *www.bergarakoartxiboa.net*.




MIREN ARREGI

## Mobilizazioak Bergarako Candy Hoover lantegian

Bergarako Candy Hoover enpresako langileek ordu erdiko lanuzteak hasi zituzten pasa den astelehenean eta hala egingo dute egunero abenduaren 23ra arte, enpresa komiteak hala proposatuta. Abuztuaren 22an enpresak langile bat kaleratu zuen diziplinako kaleratze bat argudiatuta, eta hori salatzeko egingo dituzte mobilizazioak. GOITB Candy Hoover enpresako zuzendaritzarekin harremanetan ipini da eta esan dute ez dutela adierazpenik egingo.

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

ARRI
Industri hornidura
*Latigilloak*
Telleria 2, BERGARA
**Tel.:** 943 76 19 04
**Faxa:** 943 76 43 03
**Sakelakoa:** 656 78 64 84

> ERAKUSKETA

### Pintura lehiaketako lanak erakusgai jarriko dituzte

Kulturan etxean San Martin jaietako ageriko pinturako lehiaketako lanak jarriko dituzte ikusgai domekatik aurrera. Aurtengoa 35. lehiaketa izango da. Erakusketa bi astez egongo da zabalik; hain zuzen, irailaren 27ra arte. Ordutegia izango da: astelehenetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 12:00etatik 14:00etara.

> IKUSKIZUNA

### Bertsontxongilo ikuskizuna gaur Munibe plazan

Jardunek antolatuta, San Martin jaiei hasira emateko *Hitzen Lapurra* bertsontxongilo ikuskizuna egongo da gaur, Munibe plazan 18:00ean. Hitzarekin ibiliko dira jolasean antzezleak, txotxongiloak eta baita ikusleak ere. Euria egin ezkero, osoko bilkuran.

> JARDUN

### Jolas-leku ibiltaria antolatu du Jardunek hilaren 19rako

Datorren egubakoitzean, Jardun euskara elkarteak antolatuta jolas-leku ibiltaria egongo da Fraiskozurin. Arratsaldeko 5etan irekiko dituzte jolas-lekuko ateak. Etxeko txikienek ondo pasatzeko era guztietako jolasak egongo dira Fraiskozurin.

**ZINEMA** > FILM LABURRAK

# Gai libreko film labur lehiaketa abian da

Azaroaren 3a da lanak aurkezteko azken eguna; sariak, ostera, azaroaren 28an emango dituzte

Euskara edo gaztelania ez den hizkuntza batean badago lana, azpitituluak izan beharko ditu


Aurtengoa hirugarren film labur lehiaketa izango da. ARTXIBOA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Bergarako Udaleko Kultura Sailak film laburren lehiaketa antolatu du. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Bergaran edo inguruko herrietan bizi den edonork har dezake parte lehiaketan; eta gaia librea izango da. Besteak beste, film laburrak, abestien bideoklipak edo iragarkiak aurkeztu ahal dira.

**EDOZEIN HIZKUNTZA**

Lanak edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira; eta lana aurkezteko formatua DVDa izango da. Euskara edo gaztelania ez den hizkuntza batean egina badago lana, azpitituluak izan beharko ditu. Lanak babesteko, kaxa batean aurkeztuko dira: lanaren izenburua, iraupena eta produkzio urtea. Barruan, ostera, egilearen datuak jarri behar dira: izen-abizenak, lanaren izenburua, helbidea, herria, telefonoa eta NA zenbakia.

Lanak taldeka edo bakarka aurkeztu ahal dira. Gogoratu aurreko ekitaldietan aurkeztutako lanak ezin direla berriro aurkeztu lehiaketara.

Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 3a, astelehena, izango da. Lanak Bergarako kultur etxean entregatu beharko dira (943 77 91 60) 13:00ak baino lehen. Gehienez, 30 minutuko iraupena izango dute lanek. Informazio gehiago: *www.bergara.net* webgunean dago eskuragarri.

**IKASTAROA**

Bestalde, urrirako film labur tailerra antolatu du Udalak. Amaia Labaienek emango ditu eskolak, eguaztenero, 18:30etik 20:30era. Film laburrak nola egin erakutsiko du.

**DANTZA**

## Bikoteak falta dira dantza solterako

Moises Azpiazuren omenez antolatzen da txapelketa; aurtengoa 24.a da

**A.E.** > BERGARA

Datorren egubakoitzean da jokatzekoa bikote nagusientzako dantza solte txapelketa. Moises Azpiazuren omenez antolatzen den txapelketa da; aurtengoa, 24. edizioa izango da. Baina antolatzaile taldeak azken momentuan adierazi duenez, bi bikotek besterik ez du eman izena. Ondorioz, baliteke txapelketa bertan behera geratzea. GOIENKARIAk edizioa itxi duenean, oraindik erabakia hartu barik zegoen.

**BIKOTE GUTXI**

Bizkaiko bikote bat eta etxeko beste bikote bat dira orain arte txapelketan izena eman dutenak. "Adin txarra dute; ikasketak direla, kanpora doazela...", esan du Juan Mari Baseta antolatzaile taldekoak.

**IAZ HAMABI BIKOTE**

Oreretako Eneko Gil eta Nerea Besada izan ziren iazko irabazleak. 12 bikotek eman zuten izena txapelketan. Bergarako Mikel Igartua eta Ibane Baseta hirugarren tokian sailkatu ziren.

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34


agorrosin
aralar
ariznoa
avenida
azpeitxi
biko
etxagi
euxebio II
frontoia
sirimiri
iraho
kai
kaiak
oilagorra
zunbeltz
kaixo
irish pub galways
usoa
pol pol
toki ona
Gurean giro ezin hobea!
Ondo pasa San Martinetan!



Bergarako hasierako hamaikakoa, denboraldi-aurreko norgehiagoka bat baino lehenago beroketak egiten. J.A.

**FUTBOLA** > BERGARA

# "Ez dago aitzakiarik, igotzeko urtea da hau"

Erregional mailako liga hastear, Bergarako presidente Pedro Ricok klubaren eta lehenengo taldearen gainean egin dio berba GOIENKARIAri

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergara da Debagoienean talde gehien dituen kluba, hamahiru. Harrobiarekin horrela lan eginda lehenengo taldeak berehala batu beharko lituzke fruituak, baina aurten ere Bergara erregional mailan lehiatuko da, nahiz eta kategoria horretako oilarretako bat izan. Hala, Eibartarraken zelaian egingo duten debutetik hasita, taldeak aurten garbi izango du helburua. Pedro Rico taldeko presidenteak argi dauka zein den helburu hori: "Iaz bergararrez osatutako taldea egin genuen, hori zen lehentasuna, eta jendea berriro ere Agorrosinera erakartzea zen beste helburuetako bat. Baina aurten ez dago aitzakiarik; Bergarak gutxienez preferentean egon behar du eta horretarako egin behar dugu lan, kategoriaz igotzeko".

**DERBIZ BETETAKO DENBORALDIA**

Lehenengo erregionalean ibarreko bost talde ibiliko dira aurten: "Gauza ona da hori. Realak diru mordoa utzi du ordaintzeko, eta horri aurre egiteko, partiduak etxe ondoan jokatzea positiboa da, garraioan ez dugulako horrenbeste gastatuko".

Neurri berean, baina, presidenteari min egiten dio Mondra edo UDAko bigarren taldeen kontra jokatu behar izatea: "Filialen kontra jokatu beharko dugu, eta ez, ezin dugu onartu hori Bergararen lekua denik".

> FUTBOLA

## San Martineko torneoko finalera iritsita, BTLSek Ilintxaren kontra hasiko du bihar liga, etxean

Gura baino buruhauste gehiago eman baditu ere, azkenean arazo barik egin ahal izan zuten BTLSekoek San Martineko torneoa, hori bai, Jose Luis Beitiak dioen moduan, *erbestean*. Legazpin jokatu zuten domekan finala, Ilintxaren zelaian, eta Anaitasuna eta BTLS izan ziren zein baino zein gehiago. Anaitasuna taldekoek preferenteko hainbat jokalari erabili zituzten, eta hori igarri egin zen (3-0).

Orain BTLS dagoeneko liga hasieran pentsatzen dabil. Ipintzan egingo dute ligako estreinaldia, eta futbol zelai berria erabiliko dute horretarako (zapatua, 18:00). Eta, hasteko erregionaleko talde beteranoa izango dute aurrean: Ilintxa.

> MENDIA

## Pol-pol mendi elkarteak urriaren 12an egingo du hurrengo irteera, Burgosko mendietara

Abuztuko oporralditik bueltan Pol-Pol mendi elkartekoak dagoeneko hasi dira irteerak antolatzen. Joan den asteburuan egin zuten lehena, Pirinioetan. Astun eski estaziotik irten, eta Col des Moines, Col de Peyreges, eta Portaleteraino. Mendi irteerara joan ziren 40 lagunek Formigalen egin zuten lo, eta ondo gainera, zazpi orduko mendi zeharkaldia izan zen-eta.

Orain, Pol-Polekoak hurrengo irteerara begira daude. Urriaren 12an egingo dute, eta Burgos aldera joango dira: Puente Arenasetik Ciudad de Ebroraino, Tudancatik igarota. Egun osoko irteera izango da, eta izena eman gura duenak Pol-Poleko egoitzara gerturatu besterik ez du.



Bergararrak Pombieko aterpetxean, Midi D'Ossau mendiaren aurrean. J.M. SASIGAIN



Ondo ibili San Martinetan!!!

EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

Pol-Pol Taberna



26. Urteurrena

Eskerrik asko danoi
26 urte hauetan gurekin egoteagatik





*Hnuy Illa* antzerki eta dantza ikuskizuna








Ondo pasau
San Martinak!

BERGARAKO UDALA



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatxu

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



AG
Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

***Maritxu kajoi "Egun berezia delako"***

**Solarium bonua:**

6 saio eta 1 doan,
**42 euro** bakarrik!

**Honetaz gain:**
- Aurpegi garbiketa - Manikura -Makillajea
- Betileen depilazioa eta ezpain gainaren depilazioa

Irailaren 12tik urriaren 3ra.

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sentsibilitatearen araberakoa ere.

**INGURUMENA** > URKULU

# Iraeban eta Irurikoa baserrietarako proposamenak aurkeztu ditu Naturgintzak

Urkulu ingurua biziberritu eta natura, kultura eta aisialdia uztartuko dituen zerbait egin gura dute

Hamalau proposamen aipatu dituzte, baina lau garatu; orain, bakarra hautatu beharko dute

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Urkulu inguru guztia biziberritu gura du Udalak, eta horretarako Arantzazun (Oñati) egoitza duen Naturgintza elkartearekin dabil lanean. Proiektu bi ditu esku artean Naturgintzak: batetik, Urkulu urtegiari dagokiona, hil honetan bertan bukatuko dutena; eta bestetik, Iraeban eta Irurikoa baserriei dagokiena. Martitzenean aurkeztu zuten azken hori komunikabide, auzo alkate eta hainbat taldetako ordezkarien aurrean.

**IRAEBAN ETA IRURIKOA**

Proiektuaren helburua urtegi ingurua suspertzea da, Urkuluk duen potentziala aprobetxatuta eta Aizkorri-Aratz parke naturaleko ate bat izan daitekeela jakinik. 14 proposamen aurreikusi ditu Naturgintzak, eta horiek aurrera eramateko, bi baserri horiek erabiliko dituzte.

Iraeban baserria Goroeta auzoan dago, Urkulu urtegi alboan. 311 metro koadro ditu eta Foru Aldundia da jabea. Aurkitutako hainbat dokumenturen arabera, 1625ean eraikia zegoen, baina dituen hainbat ezaugarri aztertuta XVI. mendekoa izan daiteke. Hortaz, balio historikoa du eta zaindu beharrekoa da.

Irurikoa baserria Aozaratza auzoan dago, Matikua jatetxearen alboan. 250 metro koadro ditu eraikinak, eta aurrealdean 6.000 metro koadroko lursaila. Udalarenak dira guztiak.



Goroeta auzoan dagoen Iraeban baserria Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. MIRARI ALTUBE



Aozaratza auzoko Irurikoa baserriak 6.000 metro koadroko lursaila du, eta Udala da jabea. MIRARI ALTUBE

**MENDIA ETA EKOLOGIA**

14 proposamen aurreikusi dituzte bi baserriotan koka daitezkeenak, tartean lorategi botaniko bihurtzea Urkulu eta aterpetxe bat egitea. 14 horietatik, baina, lau bakarrik garatu dituzte.

Euskal Mendi Federazioaren egoitza egitea da lehen proposamena. Iraeban baserrian izango luke kokalekua, eta asmoa da mendiaren gaineko interpretazio zentroa jartzea, orain Donostian dagoen federazioaren egoitza, Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioarena, artxibo historikoa, liburutegia eta hainbat areto formaziorako.

Bigarren proposamena kooperatibismoaren gaineko museoa egitea da. Irurikoa baserrian izango luke egoitza, eta industria, kultura eta ingurumena uztartuko lituzke.

Slow Food mugimenduaren egoitza egitea da hirugarrena. 1986an Italian sortutako mugimendua da, eta bizimodu lasaiagoa aldarrikatzen du. Garrantzi handia ematen diote natura, kultura, biodibertsitatea eta elikadurari, eta elikagai tradizionalen aldekoa da. Iraeban baserrian izango luke kokalekua, eta mugimendu horren aldeko Gipuzkoako taldearen –convivium– egoitza jarriko lukete bertan. Baita esperimentazio zentroa –dastamenari eskainia–, turismo bulegoa eta jatetxea ere.

Azken proposamena ekologia eta agroekologiaren gaineko zentro pedagogikoa egitea izango litzateke. Irurikoa baserrian izango luke kokagunea, eta formaziorako, esperimentaziorako eta jakien azterketarako izango litzateke. Erakusketa eta salmenta tokia egongo lirateke, Ekonekazaritzaren egoitza ere bai, eta jatetxe ekologikoa. Gainera, 6.000 metro koadroek ortua jartzeko lekua eskaintzen dute, eta jatetxerako jakiak bertan ekoiztu.

ERABAKIA

## Proiektu bakarra hautatuko dute hil honetan bertan

Martitzenean aurkeztutako proiektuen gainean hausnartzeko taldetxoa elkartuko da hilaren 16an, martitzena. Udaleko eta Naturgintzako ordezkariekin batera izango dira alderdietako ordezkariak, auzo alkateak, herritar batzuk eta mankomunitateko eta Deba Garaia elkarteko ordezkariak. Proiektu bat hautatu beharko dute, eta gehiengoa ados egonez gero, behintzat, taldean erabakitakoak egingo du aurrera. Udalak hil honetan bertan hartu gura du azken erabakia.



Parket flotatzaileak

K21

AZKARATE
AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
Arotz lanetan behar duzun guztia
Ateak • Leihoak
Horma-armairuak • Tarimak
Parketak • Sukaldeak
www.goiena.net/blogak/azkarate

GARBITTU KOOP. ELK.
*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak*
*Obra bukaerako garbiketak*
*Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak*
*Kristalen garbiketak*
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

**EPAIKETA** > ZUHAITZ ERRASTI

# Zuhaitz Errastiren epaiketara joateko autobusa antolatu dute

Moulins-ko (Frantzia) kartzelan dagoen aretxabaletarra hilaren 19an epaituko dute

Autobusa finantzatzeko hainbat diru-batze ekintza egingo dituzte gaur arratsaldean




Errastiren egoera salatzeko egindako elkarretaratzea, orain hiru urte. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Moulins herriko (Frantzia) kartzelan dagoen Zuhaitz Errasti aretxabaletarra epaituko dute irailaren 19an, egubakoitza, Parisen. Hori horrela, autobusa antolatu dute hainbat herritarrek babesa ematera joateko. Eguenean, hilak 18, aterako da Aretxabaletatik Pariserantz, baina izena aurrez eman behar dute interesatuek Urbaltz tabernan edo Arrasateko Irati tabernan.

**BIZKOTXOAK ETA PINTXOAK, GAUR**
Autobusa finantzatu ahal izateko diru-batze ekitaldiak egingo dituzte gaur arratsaldean herrian. Kafea hartzeko orduan bizkotxo zatiak jarriko dituzte salgai hainbat tabernatan eta kafetegitan, eta ilunkaran pintxoak egongo dira Urbaltz tabernan eta Durana kalean. Horiez gain, bi euroko bonu-laguntzak eskainiko dizkiete herritarrei eros ditzaten.

**HIRU URTE KARTZELAN**
2005eko uztailaren 28an atxilotu zuten Errasti, Limoges inguruan (Frantzia), Joseba Troitiñorekin batera. ETAko kideak izatea egotzi zien poliziak orduan, eta datorren egubakoitzean epaituko dituzte biak, Parisen. Moulinsko kartzelan dago orain Errasti, baina aurretik Nantesen eta Poitiersen ere egon zen. Bakartuta egon zen bietan, eta hainbat greba egin zituen egoera salatzeko –gose greba eta higiene greba. Orain, Mikel Illarramendi oñatiarrarekin batera dago.

Senideek ez dakite zer gertatuko den epaiketan, baina ez dute uste Frantziatik bidaliko dutenik. Epaiketa egunean, hilaren 19an, elkarretaratzea egingo dute Durana kalean (19:00). *Salbuespen egoerari Stop! Zuhaitz askatu* izango da leloa.

**JAIAK**

## Agorreko Andramari jaiak, Areantzan

Gaur auzo afaria egingo dute, bihar jolasak eta domekan Kurtzebarrira doaz

**M.A.** >ARETXABALETA
Astelehenean hasi zituzten Agorreko Andramaixak Areantza auzoan eta aste bukaeran jarraipena izango dute jaiek. Gaur, egubakoitza, auzo afaria egingo dute horretarako geratutako karpan, eta afalostean zozketak egingo dituzte. Gainera, kanpai-jole eskolaren urtebeteko ibilbidea errepasatuko dute.

Bihar, zapatua, meza izango dute (12:00), eta ondoren mokadutxoa eskainiko dute, trikitilariek girotuta. Jolasak izango dira nagusi gero: kanpai porra (13:15) kanpaijolea asmatzeko; jinkana txapelketa (13:30); Areantzako jolasak (17:45) eta aro-sartze txapelketa (20:00). Domekan, Kurtzebarri mendira joango dira, urtero legez.

**OSPAKIZUNA** > KURTZEBARRIKO EGUNA

## Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko dute domekan

Salda emango dute tontorrean, meza esan, eta gero, mokadutxoa eskaini

**M.A.** > ARETXABALETA
Ohiturari jarraituz, iraileko bigarren domekan ospatuko du Murrukixo Mendizale Elkarteak Kurtzebarri mendiko eguna. Eguraldia lagun izanez gero, herritar asko joango da Mendiola auzotik gora Kurtzebarrira. Antolatzaileak, baina, kezkatuta daude iragarpenak ez direlako onak. Eguraldi eskasa eginez gero, aldaketak egingo dituzte egitarauan.

**MEZA ETA MOKADUTXOA**
Salda beroa eskainiko diete antolatzaileek tontorrera igotakoei (10:30), eta ondoren meza esango du abadeak (11:00). Bukatutakoan, mokadutxoa eskainiko dute: gazta eta txorizoa, xanpainak eta ardoak lagun egindа. Ospakizuna bukatzeko, bermuta hartuko dute Mendiolako tabernan etxeranzko bidean (13:00).



Eguraldia lagun, jende asko elkartu zen iaz Kurtzebarri tontorrean. M.A.



Idoia Elexpuru margolaria Eibarrera eroango duen margolan batekin. M.A.

**ERAKUSKETA** > PINTURA

## Eibarko Topalekun erakusketa jarri du Idoia Elexpuruk

Gaur hasi eta hilaren 21era bitartean erakutsiko ditu margolanak

**M.A.** > ARETXABALETA
Idoia Elexpuru Ugarte aretxabaletarrak pintura erakusketa zabalduko du gaur (18:00) Eibarko Topaleku erakusketa aretoan. Irailaren 21a bitartean izango dira ikusgai margolanak, 18 guztira, tartean paisaiak eta natura hilak. Astegunetan (18:00-20:00) eta aste bukaeretan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00) egongo da zabalik aretoa, eta margolaria bertan izango da azalpenak emateko.

**ESPRESIONISMORAKO JOERA**
Dagoeneko 20 urte pasatxo daramatza Elexpuruk margolanak egiten. Ibilbide horretan, espresionismoraino ailegatu dela azaldu digu: "Marrazkien xehetasunak galtzen joan dira, eta orain koloreak eta pintzeladaren mugimenduak hartu dute garrantzia handiagoa".

> OSPAKIZUNA

### Ardo dastatzea egingo du gaur arratsaldean Loramendi EEk Mitarte kalean

Gaur, egubakoitza, ardo dastatzea egingo du Loramendi Euskara Elkarteak. Euskal Herriko hainbat ardo mota dastatzeko aukera eskainiko die herritarrei. Horretarako bi txartel jarriko ditu salgai: batetik, kristalezko kopa eta bi ardo edateko aukera, hiru euroren truke; eta bestetik, bi ardo, euro baten truke.

Bestalde, irailaren 19an, egubakoitza, talo ikastaroa egingo du Pagaldaixenean (18:00-20:00). Debalde da ikastaroa, baina izena aurrez eman behar da –eguaztenera bitartean– Loramendin.

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**HEZKUNTZA** > LANAK

# Urtarrilean estreinatuko dituzte Txantxiku Ikastolako gela berriak

Jolaslekuan egiten diharduten hiru altuerako eraikin berrian, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzakoendako sei gela egingo dituzte



Jolaslekuko hesiaren aurrean egiten dihardute eraikin berria. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Ekainean ikasturtea bukatuta hasi zituzten Txantxiku Ikastolako eraikin berria egiteko lanak. Han justu ere, urtarrilean estreinatu gura dituzte gela berriak. "Lanok inbertsio dekretuz egiten gabiltza, eta horrek esan gura du lan guztiek, edo gehienek, bukatuta egon behar dutela azaroaren 30erako. Bestalde, inbertsio dekretuarekin, irabazten dugun metro koadroen inbertsioaren %35 bueltatuko digute", dio ikastolako zuzendari Jabi Agirrek.

475 metro koadroko eraikinean 0-12 urteko ikasleendako sei gela berri egingo dituzte: lehen solairukoa 177,40 metro koadrokoa izango da, eta beste biak, 148,80 metro koadrokoa bakoitza.

Eguaztenean hasitako kurtso berrirako, lehendik zeuden gela batzuk egokitu dituzte. "Orain arte, ingeleseko eta musikako eskolak emateko gelak genituen; baina eraikin berria bukatu arte, bi gela horietan adin askotariko taldeak egongo dira, eta musikako eta ingeleseko ikasleak joango dira gelarik gela eskolak ematen dagokien orduetan. Dena den, urtarrilera arte hartu dugun neurria da". Hortaz, 2009ko urtarrilean sei gela berriak erabilgarri daudenean, talde batzuek gela aldaketa izango dute. "Oraindik ez dugu zehaztu zein talde aldatuko diren. Baina, lehenengo solairuan 0-3 urteko hiru gela egokituko ditugu; bigarrenean, 6 urte artekoendako beste hiru; eta azkenekoan, Lehen Hezkuntzakoendako hiru". Aldaketak egin ondoren, hutsik geratzen diren gelak egokitu egingo dituzte. "Besteak beste, liburutegia handitu eta ingelesa emateko gela bat egokituko dugu", dio Jabi Agirrek.

**SARRERA-IRTEERETAN ALDAKETAK**

Jolaslekuan egiten diharduten lanek beste aldaketa batzuk ekarri dituzte kurtso hasieran; alegia, ikastetxeko ikasleen sarrera-irteerak moldatu egin dituzte, jolaslekuko atea itxita egongo da-eta. "Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetako, eta autobusa erabiltzen duten ikasleek haurtzaindegiko sarrera erabili beharko dute. Aldiz, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik gorakoen San Juan kale aldera dagoen atea erabiliko dute", esan digu Jabi Agirrek.

**JOLASLEKUA, TXIKIAGOA**

Eraikin berria bukatzen dutenean jolaslekua txikiagoa geratuko da. "Egia da txikiagoa geratuko dela; baina jolaslekuaren espaziorik erabilienak, hau da, estalpea eta pilotan eta futbolean egiteko guneak ez dira aldatuko. Dena den, jolas-orduetarako beste gune batzuk aztertzen gabiltza".

**DEIALDIA**

## Tenis txapelketa hilaren 20an hasiko dute

**M.B.** > OÑATI

Izenemate orrietan zehazten zen hasiera eguna atzeratu, eta Mikel Deunaren tenis txapelketa hilaren 20an hasiko dute. Hain zuzen ere, asteon bukatu da izena emateko epea. Orain, txapelketa sistema zehazteko ordua heldu zaie antolatzaileei. Tenis txapelketak bi fase izango ditu: lehena ligaxka modura jokatu da eta bigarrena kanporaketa bidez.

**PARTIDUAK ZUBIKOAN**

Mikel Deunaren tenis txapelketa zapatuetan jokatuko dute Zubikoan. Pilotak kiroldegiko arduradunek jarriko dituzte, eta partiduak hiru setetara jokatuko dituzte. Txapelketa hasi aurretik partiduen egutegia egingo dute.

**KURTSO BERRIA**

## Hastapen ikastaroa, Yoga Eskolarekin

**M.B.** > OÑATI

Oñatiko Yoga Eskolak ikasturte berria hasteko hastapen ikastaroa antolatu du irailaren 15etik 18ra eta 22tik 25era, 19:00etatik 20:30era. Izena emateko bi bide daude: alde batetik, 606 757 690 telefonora deituz (18:00etatik aurrera); eta, beste alde batetik, *agirrero@euskalnet.net* helbidean. Hastapen ikastaroaren helburua da yoga zer den erakustea.

**KURTSOA, URRIAREN 1EAN**

Bestalde, 2008-09 ikasturtea urriaren 1ean hasiko dute. Hain justu ere, astelehen eta eguaztenetan (10:30-12:00; 18:30-20:00; eta 20:00-21:30), eta martitzen eta eguenetan (14:30-16:00; 18:30-20:00; eta 20:00-21:30).

> ZINEMA

### 'Hancock' filma, zinema denboraldi berria hasteko

Atzeko kaleko jaiak zirelaeta, kultura etxeko zinema denboraldia astebete atzeratu zuten. Hortaz, denboraldi berria gaur bertan hasiko dute, 22:30ean. Hain zuzen ere, Will Smith protagonista duen *Hancock* pelikula emango dute. Bihar, domekan eta astelehenean lau saio gehiago emango dituzte.

> DEIALDIA

### Hilaren 20an kinto bazkaria egingo dute 1982an jaiotakoek

Soraluze jatetxean egingo dute kinto bazkaria 1982. urtean jaiotakoek. Bazkaria 14:30ean hasiko dute, eta aurretik, 13:00etan, Ongi tabernan elkartuko dira txikiteoa egiteko. Bazkarira joan gura dutenek, 50 euro sartu behar dituzte, Kutxako 2101 0111 22 0126550706 kontu korronte zenbakian.



ULMA

## Ulmako II. Euskara Olinpiadak

Ulma Taldeko negozio ezberdineko kideek parte hartuko dute gaur 16:30ean hasiko duten II. Euskara Olinpiadetan. Hain zuzen ere, euskararekin erlazionatutako hainbat probatan parte hartuko dute. Ulma Taldeko motibazio lantaldeak antolatutako olinpiadak plazako frontoian jokatuko dituzte, eta eguraldi txarra egiten badu, merkatuko plazan.

**KIROLA** > 2008/2009 IKASTURTEKO ESKAINTZA

# Defentsa pertsonaleko saioak eskainiko dituzte, aurten lehen aldiz

Kirol jardueretan izena emateko epea astelehenean, irailak 15, zabalduko dela eta eskolak urriaren 1ean hasiko direla jakinarazi dute antolatzaileek

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Oraindik azken orduko ukituak ematea falta bada ere, prest dute Goiena Sport kirol zerbitzukoek aurtengo kirol eskaintza. Astelehenean, hilak 15, eman ahal izango dute interesatuek izena.

Berrikuntzen artean, nabarmen daiteke eskoriatzarrek astean hirutan izango dutela spinninga praktikatzeko aukera, goizetan. Orain arte astean bitan egin izan da, eta aurten, hori aldatzea erabaki dute, herritarren eskaera bati erantzunez. Horrez gain, aurten, lehen aldiz, defentsa pertsonaleko eskolak eskainiko dira. Gero eta ohikoagoa den pilates ematea ere aztertzen dihardutela diote Goiena Sporteko kirol zerbitzukoek.



Defentsa pertsonala ikasteko aukera izango dute aurten eskoriatzarrek. MIRIAN BITERI

**JARDUERA MOTAK**

Jardueren ordutegiari dagokionez, goizetan, hasieran, spinninga eta tonifikazioa praktikatu ahal izango da; eta eguerdietan, spinning beste saio bat emango dute, taldea osatzen baldin bada. Arratsaldeetan, berriz, besteak beste, hirugarren adineko gimnasia, gutxituendako gimnasia, sasoian egoteko gimnasia, spinninga, batuka edo tonifikazioa aukeratu ahal izango dira. Azken horren harira, Goiena Sportek gogora ekarri du iaz ere eskaini zela tonifikazioa eta ez zela talderik eratu. "Jendeak ez du ezagutzen, baina oso jarduera polita da. Beste toki batzuetan, Aretxabaletan bertan, itxaron zerrenda dago hori praktikatu ahal izateko", azaldu dute kirol zerbitzukoek.

Horretaz gain, urtero bezala, igeriketa ere egongo da. Hasiera eta hobekuntza eskolak eskainiko dira, haurrendako eta helduendako. Jarduera guztiak kiroldegian egingo dira, defentsa pertsonala izan ezik.

**ESKAERA ORRIA**

Kirol eskaintzaren gaineko informazio gehiago gura duenak kiroldegian edo *www.goienasport.com* Interneteko helbidean topatuko du. Kirol jardueretan izena emateko bete behar den eskaera orria kiroldegian utzi beharko da. Esan bezala, irailaren 15ean hasita aurkez daitezke eskaera orri horiek.

Bestalde, Goiena Sportek aurreratu du urriaren erdialderako ekintza berezia antolatu gura dutela. Eskoriatzarrak kiroldegira gertura daitezen egin gura dute esandako kirol ekintza berezia.

**TURISMOA** > UDAKO DATUAK

# Ibarraundin 357 lagun izan dira

Ekainean 144 bisitari izan zituen; Jose Aranaren erakusketa ikustera joan ziren

**GOIENKARIA** > BERGARA

Uda osoan Ibarraundi museotik pasa diren turisten kopurua jakinarazi dute egunotan. Hala, ekainetik abuztura bitartean, 357 bisitari izan ziren. Ekaina izan zen bisita gehien izan zituen hilabetea: 144. Abuztuan zehar, 115 lagun pasa ziren; eta uztailean, berriz, 98.

Jatorriari dagokionez, eskoriatzarrak nagusitu ziren ekainean. Herriko Jose Aranaren gaineko erakusketa ikustera joan ziren gehienak Ibarraundira. Baina kanpotar bat edo beste ere izan zen: Donostiako lagun taldea, esaterako. Museoan dauden beste erakusketak eta eraikina bera ikustera gerturatutakoak ere ez ziren falta izan ekainean.

Uztailean, bisitarien %55 ere herrikoa zen. Horretaz aparte, Zaragozako lau, Huelvako bat eta portugaldar bi ere ibili ziren Ibarraundi museoko txokoak ezagutzen.



Jende asko Jose Aranaren erakusketa ikustera joan da Ibarraundira. M.B.

**ABUZTUAN DENETARIK**

Abuztuan ez zen hainbeste eskoriatzar izan. Hala, %18 baino ez zen bertakoa. Debagoieneko gainontzeko herrietan bezala, kataluniar asko izan zen orduan; baita Valentziakoak, Cacereskoak, Errumaniakoak eta Ingalaterrakoak. Gainera, Arabako Zalduondo herritik adin guztietako 50 lagunez betetako autobusa izan zen.

**HEZKUNTZA** > 0-3 URTEKO ZIKLOA

# Amaitzear dago udal haur eskola kudeatzeko lehiaketa

Oraingoz ez da proposamenik aurkeztu; astelehena da azken eguna

**M.B.** > ESKORIATZA

Datorren astelehenean, hilak 15, amaituko da udal haur eskola kudeatzeko lehiaketa publikoan izena emateko epea. Udalak jakinarazi digunez, oraingoz, ez da interesa duen inor azaldu eta, beraz, ez da zerbitzu hori kudeatzeko proposamenik aurkeztu udaletxean.

Astelehena bitartean proposamenik ez bada aurkezten, lehiaketa hutsik utzi beharko dutela azaldu du Udalak; ondoren, egoera aztertu eta beste deialdi bat egin beharko dutela gaineratu dute.

Udal haur eskolaren kudeaketa zeharkako modalitatean eskainiko da, kontzesio administratiboaren erregimenean. Zerbitzua kudeatzeko kontratuak lau urteko iraupena izango du eta lehenengo urteko aurrekontua 13.139,52 euro izango da. Behin betiko bermea, berriz, adjudikazioaren zenbatekoaren %5 izango da.

Udalbatzak joan den uztailaren 30ean egindako osoko bilkuran erabaki zuen zerbitzu publiko horren kudeaketa esleitzeko lehiaketa irekia deitzea.

**UDAL ERREGISTROAN**

Interesatuek udal erregistroaren bulegoetara jo behar dute, bulego orduetan. Proposamenak aurkezteko epea amaitu ostean, aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu kontratazio mahaiak.

Aurkeztu diren eskaintzak, bestalde, jendaurrean irekiko dira kontratazio mahaiko buruak horretarako ezarritako egunean.

Deialdia udaletxeko iragarki taulan eta webgunean jakinaraziko da. Prozesu guztia bertan behera geratuko da, esan bezala, proposamenik ez bada azaltzen.



Maiatza ezkero dabiltza makinak Aingeru Guarda eta Sorautz arteko bidegorria egiten. MIRIAN BITERI

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRIA

# Martxa onean doaz Aingeru Guarda-Sorautz tarteko lanak

Urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran amaituta egotea espero du Diputazioak

Diputazioak eta Udalak ekin diote dagoeneko herriko iparra eta hegoa lotzeko falta den zatiari

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Aingeru Guarda eta Sorautz arteko bidegorriaren lanak aurrera doaz. Orain arte aparteko ezustekorik ez dela izan eta, aurreikusi bezala, urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran amaituta egotea espero du Diputazioak.

Bidegorria egiteko lanak maiatzean hasi ziren. Jakina denez, 950 metroko luzera duen tarte horrek Aingeru Guarda ermita eta Sorautz izenez ezagutzen den eremua lotuko ditu. Hegoaldeko tartea GI-627 errepide ondotik joango da. Dagoeneko hasi dira eremu hori egokitzen, hormak jarriz. Esan beharra dago, horren harira, Dorleta auzora iritsi arte errepidearen altuera berean joango dela bidegorria.

**ZARATAK EKIDITEKO PANTAILAK**

Diputazioan lan horiek jarraitzen dituen Beatriz Martikorenak azaldu duenez, tarte horretan zaratak ekiditeko pantailak jarriko dira: "Bereziki etxeak dauden tokietan jarriko ditugu".

Hango aparkalekua zeharkatu ostean, beherantz egingo du eta San Juan kalea tunel baten bidez zeharkatuko du bidegorriak. Martikorenak esan du Udalarekin akordioa lortu dutela, tarte hori Udalak berak egin dezan. Baina Diputazioa izango da hori ordaintzen duena: 165.000 euro inguru. Tuneletik Sorautz etxeraino iritsiko da. Obra horien aurrekontua 1.742.510 euro da, tunelaren 165.000 euroak kontuan izan barik.

Bestalde, Martikorenak azaldu du dagoeneko lanean dihardutela kanposantu azpitik herriaren iparra eta hegoaldea lotzeko: "Proiektua laster egiteko eta ateratzeko asmoa dugu".

**LEHIAKETA**

# Domekan postal onena aukeratuko da Inkernun

Jaso dituzten 30 irudien arteko zozketa eguerdi partean egingo dute

**M.B.** > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako postal lehiaketaren zozketa egingo da datorren domekan, hilak 14, Inkernu tabernan. Eguerdi partean egingo dute zozketa eta ondorengo sari banaketa.

Aurten, guztira, 30 argazki bidali dituzte eskoriatzarrek nahiz inguruko herrietako lagunek. Inkernu tabernan aurkeztu dira irudi guztiak. Ohikoa den moduan, mundu osoko txokoak aurki daitezke. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Txinakoak, Txekiakoak eta Tenerifekoak daude horien artean. Gaia librea bazen ere, udako oporrekin lotutako irudiak jaso dituztela aipatu dute. Saria ez da aldatu: Gatza-gain jatetxean bazkaria irabaziko du zozketatik garaile irteten den irudiaren jabeak.

Aurkeztutako postal guztiekin, gainera, erakusketa egingo dute Inkernun. Hilabete inguru emango dute han, ikusi nahi dituztenendako. Bosgarren aldia da kultura elkarteak posta lehiaketa antolatzen duena.

**URTEURRENA**

Bestalde, gogorarazi dute tabernak abenduan bost urte beteko duela eta dagoeneko urteurrena ospatzeko ekimena antolatzen dihardutela. Aurreratu dute CD bilduma prestatzen ari direla.

**JAIAK** > SAN JUAN KALEA

# Biharko herri bazkarirako 75 auzotarrek eman dute izena

Julian Uribetxebarriak eta Francisca Uribesalgok lore sorta jasoko dute, nagusienak direlako

**M.B.** > ESKORIATZA

San Juan kaleko jaiak ospatuko dituzte bihar, zapatua. Egun horretarako antolatu diren ekintzen artean, Egokiena elkartean egingo den herri bazkaria nabarmentzen da. Guztira, 75 lagunek eman dute izena. Ohikoa den moduan, bazkarian auzotar nagusienak omenduko dituzte.

Aurten, Julian Uribetxebarriak eta Francisca Uribesalgok jasoko dute lore sorta.

**EGITARAUA**

Ekimenak 11:00etan hasiko dira. Lehenik eta behin, etxafuegoak jaurtiko dituzte; jarraian, txistulariek eta trikitilariek kaleak alaituko dituzte; kalejiraren ostean, 12:30erako, Egokiena elkartea dagoen plazatxoan biltzeko gonbita egin dute antolatzaileek, San Pedro elizaraino batera joateko. Soinuaz lagunduta egingo dute ibilbidea. Meza 13:00etan hasiko da.

Jarraian, herri bazkaria izango da. Menu ederra izango dute: atuna, piper beteak, bakailaoa eta flana izozkiarekin. Dantzaldiarekin emango diote amaiera aurtengo San Juan kaleko jaialdiari.



San Juan kalekoekederto pasatzen dute jaietan. GOIENKARIA


Uztailerako amaitu zituzten etxebizitzak eta asteon sinatu dituzte eskriturak falta ziren jabeek. IRATI AGIRREAZALDEGI

**HIRIGINTZA** > ETXEBIZITZAK

# Eman dituzte Eguzki auzoko etxebizitza tasatuetako giltzak

Gimnasioa eta gazte txokoa eraikin berean egongo dira, eta abendurako amaitu nahi dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Eguzki auzoan Udalak bultzatutako etxebizitzak eraiki eta jabe guztiei jadanik eman dizkiete giltzak. Uztailean sinatu zituzten 20 etxebizitza tasatuetako batzuen jabetzako eskriturak, eta gainontzekoak, asteon. Bizilagun batzuk jadanik joan dira etxe berrietara bizi izatera, eta laster joango dira besteak. Alkateak esan digunez, gustura daude etxebizitzak nola geratu diren ikusita. Obretan atzerapen pixka bat izan dela ere jakinarazi digu: "Hilabeteko atzerapena izan dute lanek, zimendu arazo batzuengatik".

Etxebizitzetako giltzak jabeen esku dauden arren, beste lan batzuk egitea falta da. Izan ere, gimnasioa eta gazte txokoa egongo dira eraikin berrian. Abendura bitartean obrak egin eta urte amaierarako amaitzea da asmoa.

**TASATU GEHIAGO, ORAINGOZ EZ**
Udalak etxe tasatu gehiago egiteko asmorik duen galdetuta, arazoa lurzoru publiko falta dela esan digu alkateak. "Aztertu beharko dugu beste lur batzuetan zer egin daitekeen, baina lurzoru publikorik ezean, epe laburrean ez dugu horrelakorik egingo".

**MERKATARITZA** > AZOKA

## Egubakoitzetako azoka plazan egingo dute

Gaur, egubakoitza, egin dute zozketa postu bakoitzaren kokalekua erabakitzeko

**I.A.** > ANTZUOLA
Egubakoitzetan azoka izaten da frontoi inguruan eta han postuak ezkutuan zeudela eta lekuz aldatzea erabaki du Udalak. "Merkatuen eremu naturala herriko plazak direla kontutan hartuta eta merkatua plazara bideratzeak ere, herriko komertzioari onurak ekarriko dizkiola pentsatzen dugu", esan digu alkateak. Hortaz, aurki Herriko Plazan izango da azoka eta Udalak uste du, plaza ez ezik, Kalebarren ingurua ere girotuko dela.

Tokia aldatu arren, eguna mantendu egingo dute, egubakoitz goizetan izango da azoka. Barazkiak, gazta, gozokiak, loreak... askotariko gauzak erosteko aukera izango da postuetan. Gaur, egubakoitza, egin dute hain zuzen ere zozketa, erabakitzeko plazan postu bakoitzak izango duen kokalekua.

**KIROLA** > PILOTA

## Frontoi txikian jokatuko dute udazkenean txapelketa

Pilota goxoarekin jokatuko dituzte zapatuetan partiduak; txapelketa ligaxka erakoa izango da

**I.A.** > ANTZUOLA
Udazkenerako pilota txapelketa antolatzen dihardute hainbat herritarrek. Txapelketa kanpoko frontoi txikian joka dadin nahi dute; eta kanpoko frontoia bustita egonez gero, pilotaleku estaliaren atzeko aldean lehiatuko dira. Pilota goxoarekin jokatuko dute eta ligaxka eran; hau da, parte-hartzaile guztiak elkarren kontra.

**ZAPATU GOIZETAN**
Partiduak zapatu goizetan jokatuko dira, baina ezin dutenek aukera dute aste barruan jokatzeko eta antolatzaileei emaitzak esateko. Izan ere, partiduak epailerik gabe jokatuko dituzte eta jokalariek arduratu behar dute tantuak kontatzeaz.

Izena emateko Larrea edo Mox tabernetan paperak bete behar dira eta 10 euro ordaindu.

> AISIALDIA

### Hilaren 26ra bitartean eman daiteke izena ikastaroetarako

Ikasturte berriko ikastaroetan izena emateko aukera dago irailaren 26ra bitartean udaletxean. Gimnasia, aerobik, pilates, yoga eta funky ikastaroak irailaren 29an hasiko dira; marrazki ikastaroak, berriz, urriaren 6an. Izena emateko ordainketa agiria udaletxera eraman behar da.

> ERRETIRATUAK

### Partaidetzaren gaineko hitzaldia eguenean Olaranen

Erretiratuen elkarteak antolatuta, irailaren 18an hitzaldia izango da Olaran etxean, 17:30ean. *Partaidetza, norbere bizitza hobetzeko giltza* izenburupean jardungo du Adindu elkarteko hizlari batek. Egun berean, Olaranen odol ateratzea izango da, 18:00etan hasita.

Erromeria Legazpin!
Irailaren 14an, igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera.
Koadrilen arteko apustu latza, bertsolariak, jokoak eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebekin!
Autobusa, bazkaria eta taberna.
Euria eginez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.
Anima zaitez!
Euskarazko ZingiZango webgunearen alde.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

KIROLA > IKASTURTE BERRIA

# Udalak urrian ipiniko ditu martxan ikasturte berrirako kirol zerbitzuak

Errugbia umeengana hurbiltzeko helburuarekin, irailaren 21ean saio berezia egingo da kiroldegiko kantxan, Elorrioko taldearen laguntzarekin

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Sasoian egoteko gimnasia, erretiratuendako gimnasia saioak, oinarrizko soin hezkuntza, helduendako batuka saioak eta gazteendako zerbitzu konbinatua eskaini nahi ditu Udalak kirol zerbitzuen barruan hastear den ikasturte honetan.

Urriko lehenengo egunean ipiniko dituzte martxan zerbitzu horiek guztiak, Rebeka Ubera Kirol zinegotziaren esanetan. "Herritarrek egunotan jasoko dute etxeko postontzian zerbitzuen inguruko informazioa. Interesatuta egonez gero, udaletxera jo besterik ez dute, Juan Ramon Irazabalengana, bertan izena emateko". Bost eskaintza egingo ditu Udalak aurten. Erretiratuendako gimnasia saioak astean bi izango dira. Maiztasun bera izango dute sasoian egoteko gimnasia saioek. Helduendako batuka saioak ere ipiniko ditu Udalak. Ordubeteko bi saio izango dira astero. Gazteei dagokienez, zerbitzu konbinatuaren alde egin du Udalak aurten. Hasiera baten, batuka eta aerobika egingo dira bertan, baina ez dira bestelako aukerak baztertzen. Azkenik, 1. eta 2. mailetako umeendako oinarrizko soin hezkuntza proposatzen du Udalak. Astean ordubeteko saioa izango litzateke, urritik ekainera arte.



Elgetako umeek osaturiko eskola kirola taldea zapatu goiz baten, Bergaran. GOIENKARIA

**ESKOLA KIROLA SAIOAK**

Eskolaren bitartez bideratuko da, halaber, eskola kirola saioetan izena emateko aukera. Ikasturtearen hasierarekin batera abiatuko dira saio horiek. Eskola kirola programaren bitartez Elgetako neska-mutikoek hainbat kirol modalitate praktikatzeko aukera izango dute. Programa horretan izena ematen dutenek norgehiagokak jokatuko dituzte Bergarako eta Antzuolako eskola kirol taldeen aurka zapatu goizetan. Gainera, kirol saioak egingo dituzte astean, herrian bertan, entrenamendu moduan.

Eskola kirolak gero eta ume gehiago hartzen ditu. Kirola praktikatzea eta talde lanean jardutea ekartzen du, biak ere oso interesgarriak eskolako umeendako.

**UMEENDAKO ERRUGBI SAIOA**

Errugbia kirol ezaguna da Euskal Herrian, baina oso gutxik praktikatzen dute Elgetan. Bada, herriko neska-mutikoek errugbia zer den eta nola praktikatzen den bertatik bertara ikusteko aukera izango dute laster.

Udalak jakinarazi du Elgetako umeak kirol modalitate horretara hurbiltzeko helburuarekin errugbi saioa antolatu duela hilaren 21erako. "Elorrioko errugbi taldearen laguntza izango dugu kirol ekintza horretan", adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak. Eskola kirola barruko ekintza da honakoa eta izenemateak eskolaren bitartez bideratuko dira. "Ekintza hilaren 21ean, domekan, 11:00etan egingo dugu kiroldegiko kantxan", jakinarazi du Uberak. Ekintza zabalik dago Elgetako neska-mutiko guztiendako. Zenbat jendek parte hartuko duen aldez aurretik jakiteko izena emateko eskaera egin du Udalak.

## Eskolako jolastokiko itxitura egiten dihardute egunotan

Adostu moduan, aurrera doaz herri eskola inguruan hobekuntza lanak. "Uztailean herriko eskolaren sarrera konpondu genuen", adierazi du Hezkuntza zinegotzi Rebeka Uberak. "Egunotan, berriz, behargintak jolastokiari itxitura jartzen ari dira". Bi jarduera horiekin amaitutzat emango dira hobekuntza lanak.


Eskolako jolastokiaren itxitura egiten ari dira egunotan. L.Z.

> ERAKUSKETA

### Pilar Muñoz bilbotarraren lanak, ikusgai Espaloian

Pilar Muñoz margolari bilbotarrak 20 bat margolan zintzilikatu ditu Espaloia Kafe Antzokian. Hil amaierara arte egongo dira ikusgai.

Paisaiak margotzea du gustuko Muñozek, eta Espaloiko erakusketan Bergarako eta Bilboko txoko ezberdinak ikus daitezke. Muñoz margolari trebea da, badira 20 bat urte gustuko dituen paisaiak margotzen dituena.

Espaloiko ohiko ordutegian izango duzue erakusketa ikusteko aukera hil amaierara arte. Gogoratu astelehenetan eta martitzenetan 16:00etan ixten dutela aretoa.

> ZINEKLUBA

### Irailean beste bi pelikula emango dituzte zineklubean

Elgetako zineklubean ez dute udan atsedenik egin eta irailean ere eguaztenaroko emanaldiekin jarraituko dute.

Asteon *La educación de las hadas* filma eman dute. Datozen asteetarako emanaldien izenak ere plazaratu dituzte. Hilaren 17an Felix Viscarret zuzendariaren *Bajo las estrellas* pelikula emango dute eta hilaren 24an, Thierry Klifa zuzendari frantziarraren *Secretos cantados*.

Zineklubeko emanaldiak Espaloia Kafe Antzokian izango dira, orain arte moduan eguaztenero, 21:30ean.

GARRAIO > AUTOBUSA

# Zapatu gauean autobus zerbitzu berezia egongo da Bergarara

L.Z. > ELGETA

Bergarako San Martin jaiak direla-eta gaueko autobus zerbitzu berezia izango dute elgetarrek erabilgarri zapatu gauean. Elgetatik Bergarara jaitsi nahi dutenek honako orduetan izango dute garraio publikoa erabilgarri: 00:30, 01:30, 02:30, 03:30, 04:30, 05:30 eta 06:30.

Bergarako San Martin jaietan ibili eta etxera bueltatzeko autobusak, berriz, honako orduetan izango dira: 00:10, 01:10, 02:10, 03:10, 04:10 eta 05:10. Zerbitzu berezi hori elgetarrek gau horretan autorik ez hartzeko ipini da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Inguruko beste herri batzuetako jaietan esperientzia oso positiboa izan da eta honakoan ere erabiltzaileen esku ipini nahi izan da.

**BIZKAIBUS TXARTELA**

Elgetako erretiratuen elkartetik, berriz, oharra bidali digute, Bizkaibus-erako txartela atera nahi dutenei bereziki zuzenduta. Interesatuek hilaren 15etik 20rako epea dute txartela eskatzeko edo berritzeko.

Pedro Mari Ubera arduratuko da aurten Bizkaibus-eko txartelak berritzeaz. Interesatuek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute esandako epearen barruan: Bizkaibus-eko txartel zaharra (edukiz gero), nortasun agiria eta argazki bat. Txartela egitea edo berritzea hiru euro da.

Burning taldeak 30 urte daramatza oholtza gainean

Euren lan famatuenen aukeraketa da 'Dulces dieciséis' diskoa

Johnny Cifuentes da hasierako laukotetik geratzen den bakarra

**KULTURA** > 'DULCES DIECISEIS' DISKOA AURKEZTUKO DU TALDE MADRILDARRAK

# Burning talde aitzindariak kontzertua egingo du gaur




Johnny Cifuentes abeslari eta teklatu jotzailea da 1974. urtean sortutako Burning taldean geratzen den kide bakarra.

BURNING

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Espainiako rockaren aitzindaria da Burning taldea. 70eko hamarkadako rockzaleek ederki ezagutuko dute talde madrildarra. Dena dela, eta Burning izenak ezer esaten ez dien horiek, seguruenik ezagutuko dituzte *¿Qué hace una chica como tú en un sitio como este?, Mueve tus caderas* eta *Es decisión* bezalako abesti mitikoak. Ba bai, Burning talde madrildarrarenak dira guztiak eta Aramaion entzuteko aukera izango da gaur gauean, herriko plazan, 23:30ean.

**1974A EZKERO OHOLTZA GAINEAN**

1974. urtean, Francoren erregimena bukatzear, jaio zen Burning taldea Madrileko Elipa auzoan. Quique, Pepe Risi, Toño eta Johnny Cifuentes tabernetan, entsegu geletan eta kontzertu aretoetan esperientzia biltzen hasi ziren euren lehenengo ingelesezko singleak ateratzeko.

Talde madrildarraren abestiek bizipen propioak dauzkate oinarri moduan: gai pertsonalak, gaueko bizitza, parrandak eta drogak, besteak beste. Baina, Burningen historia biziraupen historia da. Toño Martinek 1982an taldea utzi zuen, eta bost urte geroago Bartzelonan hil zen, drogaren munduak irentsita. Pepe Risi, paradoxikoki, 10 urte geroago hil zen egun berean, pneumoniak jota. Gauzak horrela, Johnny Cifuentes da, egun, hasierako laukotetik geratzen den bakarra.

*Dulces dieciséis* da Burningen azken diskoa eta euren kantu famatuenak batzen ditu. Jarraitzaileek aukeratu dituzte euren webgunearen bitartez.

**JAZZAUKERA**

Burningena, baina, ez da gaurko kontzertu bakarra. Jazzaukera taldeak kontzertua eskainiko du 20:00etan kultura etxean.

**ZUIAKO KOADRILA** > IKASTAROA

# Gidari turistikoa izateko ikastaroa

Zuiako Koadrilak ikastaroa antolatu du langabeendako, ondare turistiko eta kulturalaren gidari izateko

**A.B.** > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak ondare turistiko eta kulturalaren gidari izateko ikastaroa antolatu du. Langabeei zuzendutako ikastaroa da eta helburua da eskualdean langabezian dagoen jendea koadrilako ondare turistikoa eta kulturala zabaltzeko prestatzea. Horrela, gidariak izateko prestatuz gero, lanerako beste irtenbide bat izango dute.

Ikastaroa non emango den zehazteke dago oraindik. Izena ematen duten ikasleen jatorriaren arabera erabakiko da. 48 orduko iraupena izango du. Urriaren 13an hasiko da eta azaroaren 4an amaituko da. Ikastaroaren ordutegia izango da astelehenetik eguenera 17:00etatik 20:30era.

Ikastaroan parte hartu ahal izateko 15 euroko matrikula ordaindu beharko da. Izena emateko epea urriaren 8ra arte dago zabalik, egun hori barne. Ikastaroaren gaineko xehetasun guztiak *www.cuadrilla-zuia.com* webgunean daude ikusgai. Izena emateko 945 43 01 67 telefono zenbakira dei daiteke edo *economia@cuadrilla-zuia.com* helbide elektronikora mezu bat idatzi.



I. BARANDIARAN

## Oporrak bukatu dira herriko gaztetxoendako

Ederki ibili dira Aramaioko gaztetxoak bi hilabete pasatxoz oporretan. Baina, gauza on guztiak bezala, oporrak ere bukatu dira San Martin eskolako umeendako. Astelehenean atseden denboran bisitatxo bat egin genien. Eskolara itzultzera nolakoa izan zen galdetu genien eta denetariko iritziak jaso genituen. Baina euren aurpegiak ikusita, gehienak pozik itzuli dira. Lehenengo eguna, gainera, lasaia izan zuten eta irakasleei nolako oporrak izan dituzten kontatzen jardun zuten.

**TURISMOA** > HOTELA

# Zabalik dago bi izar dituen Soran Etxea

## Atzo eguerdian egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta hotela erakutsi zieten elkartutako guztiei

Jauregia erabat berritu dute eta 10 logela egin dizkiote, 60 lagunendako jatetxea eta taberna



Abadea hotela inauguratzen, Loren Larrañaga ugazaba begira duela. MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Atzo, irailak 11, inauguratu zuten Soran Etxea hotela. Egun guztian izan zituzten zabalik ateak, eta jatetxea eta gelak ikusteko aukera eskaini zuten ugazabek. Gatzagako zein inguruko herrietako gonbidatuak ikusmin handiarekin hurreratu ziren, eta gustura geratu ziren ikusitakoarekin.

**ITXURA GORDE DUEN JAUREGIA**
XVI. mendean eraikitako jauregia 2006ko udaberrian saldu zuen Udalak. Eraberritzeak dirutza handia eskatzen zion, eta bertan jausi ez zedin erabaki zuen saltzea. 12 urtean Gaztainuzketako mendi etxeen ardura izan duten Montse Valerio (Lleida) eta Loren Larrañagak (Itziar) erosi zuten, eta goitik behera berritu dute bi urtean. Jauregiaren kanpoko itxura ez dute aldatu, eta egurrezko guztia gordetzen saiatu dira garbitu eta tratamendu egokia eman ostean: eskailerak, sabaia, habeak, ateak eta leihoak. Harrizko zoru zati bat ere dagoenetan utzi dute.

**MENU ASKO DITUEN JATETXEA**
Bi izar ditu hotelak eta, izendapenaz gain, arkitektura aldetik interesgarri aitortu dute, jauregiak dituen ezaugarriei esker. Hamar logela ditu erosotasun guztiekin hornituta: bainugela, telefonoa, wi-fia, telebista, musika… Logeletako bat ezinduendako gertatuta dago. Batzarrak egiteko gela ere badu, 30 lagunendako. Jatetxeak 60 lagunendako lekua dauka. Eskarmentu handia dute ugazabek sukaldean –Venta Fria jatetxean hiru urte eta Gaztainuzketan, 12–, eta hainbat eratako menuak eskainiko dituzte: karta, exekutiboen menua, makrobiotikoa, ospakizun egunetakoa… Gainera, taberna du, eta gosariak, kazuelatxoak eta eguneko platerak izango dituzte.

Hotela baino zerbait gehiago da herritarrendako Soran Etxea, Gatzagara jendea ekarriko duela uste dute-eta: "Horrek bizitasuna emango dio gure herriari", diote.



Atzo, eguena, gonbidatu asko hurreratu zen hotela ikustera; irudian, jangelan. M.A.

**ERRETIRATUAK**

## Omenaldia egingo diete bihar erretiratuei

Garro jauregian elkartuko dira bazkaltzeko, 35en bat guztira

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA
Andramari jaiak bukatu ostean, herriko erretiratuak omentzen ditu Udalak urtero, eta bihar, zapatua, bazkaltzera gonbidatuko ditu. Garro jauregian dute Gatzagako erretiratuek egoitza, eta bertan bazkalduko dute 35en bat kidek. Herrian bertan zein baserrietan bizi diren erretiratuak elkartuko dira, eta bazkalostea trikitilariek girotuko diete, karta-jokoan egiten duten bitartean.

Bukatzeko, oparitxoa banatuko die Udalak, eta herriko nagusienek opari berezia jasoko dute. Nagusiena Asteisolo baserriko Narciso Beitia da. Udaletxean dituzten datuen arabera, 95 urte ditu. Emakumeen artean, ostera, Matilde Arrese da, 90 urterekin.

> EHIZA

### Batzarra du ehiza taldeak hilaren 20an

Leintz Gatzagako Ehiza Taldeak batzar orokorra egingo du irailaren 20an, zapatua, 19:00etan. Garro jauregian izango da, eta zuzendaritza batzordeko kideek bazkide guztiei egiten diete dei, gai garrantzitsuak eztabaidatuko dituzte-eta.

**JAIAK** > ANDRAMAIXAK

# Otxandiokoek lagun eginda bukatu zituzten Andramaixak

## Gasteizko Alchemy hirukotearen jazz doinuek jaietako azken arratsaldea girotu zuten

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA
Astelehenean, Dorletako Amaren egunean, bukatu zituzten Andramari jaiak. Otxandiotik etorritako herritarrak izan zituzten lagun gatzagarrek jaietako azken egunean. Meza nagusia entzun eta gero pilotalekuan bazkaldu zuten guztiek. Arratsaldean, jolasak izan zituzten umeek: gustura baino gusturago jardun zuten udaletxe alboko iturrian arrainak harrapatzen.

Eta jaiei agur esateko Gasteizko Alchemy hirukoteak jazz doinuak ekarri zituen Gatzagara. Plaza inguruan elkartutako herritarrek eta otxandiarrek gustura jarraitu zituzten gitarraren, baxuaren eta saxofoiaren hotsak.

**HERRI AFARIAN, 150 LAGUN**
Jai lasaiak izan dira aurtengoak, eta Kultura Saileko kideak gustura daude antolatutako ekitaldiekin. Eguraldiak lagundu arren, jende askorik ez dela ibili onartu dute: "Egubakoitzeko kontzertuan, iaz baino gutxiago, baina zapatuan, gehiago". Pozik daude herri afarirako ateratako txartel guztiak –150– saldu zituztelako, eta txirrindulari ugari elkartu zirelako mendi bizikleta zeharkaldian.



Alchemy hirukoteak astelehen arratsaldean eman zuen kontzertua. M.A.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# 24 ordu baino gutxiago preferentea abiatzeko

Mondrak eta Aloña Mendik etxean hasiko dute 2008/09 denboraldia; oñatiarrek, gainera, Azkoagain inauguratuko dute

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Berio eta Aretxabaleta izango dira aurtengo ligako lehenengo partidua jokatuko duten taldeak. Gordobilen eta Arenatzaren mutilek bihar izango dute Donostiako taldea aurrean, 15:30ean (Cesar Benito futbol zelaia). Mondrak domekan egingo du estreinaldia, Mojategin, Mundarroren kontra (16:30).

Ibarreko ordezkariekin amaitzeko, Aloñak Idiazabal hartuko du Azkoagain berrian, domekan (17:00). Partiduaren aurretik inaugurazio ekitaldia egingo dute eta bertan izango dira Udaleko ordezkariak eta baita Euskadiko eta Gipuzkoako federazioko ordezkariak ere.

**ETORRI DIRENAK ETA JOANDAKOAK**

Entrenatzaile aldaketen gainean aldaketa guztien berri eman dugunez, jokalarien txanda iritsi da.

Mondrako jokalari berriei dagokienez, gehienak Eibartik datoz: Oier Arregi, Jon Arando eta Arkaitz Arana. Iker Cabrera, berriz, Andoni Azkargortaren eskutik etorri da Antzuolatik. Taldea utzi dute, berriz, *Muxi*-k, Ruedak, Altzolak –Bergaran jokatuko du– eta Gotzon Urtzelaik –Aretxabaletara joan da Gordobilekin batera–.

Aretxabaletako fitxaketei dagokienez, Gotzon Urtzelai alde batera utzita, gainontzekoak Eibar aldetik datoz: Mikel Artetxe, Aitor Azpiazu eta Asier Unda –Eibar Bk utzita–. Kontrara, jokalari bakarrak utzi du UDA, futbola uztea erabaki duen Argider Aranak.

Aloña Mendik azken 10 urteotan aurrealdean izan duen erreferenteetako bat galdu du: Xabi Camino. Eta, Caminorekin batera futbola uztea erabaki dute Josu Juaristik, Jon Astigarragak eta Andoitz Biainek. Bestalde, hutsune hori betetzen ahalegindukodirena dira Aitor Lopez eta Xabier Alberdi erdilariak, Eldin Zivojevic atzelaria, eta Urolatik etorri den Ioritz Zufiria.

## Taldeetako jokalariak

**ALOÑA MENDI**

| | |
|---|---|
| Iñigo Idigoras | Atezaina |
| Oier Zabaleta | Atezaina |
| Julen Barrena | Atzelaria |
| Iker Maiztegi | Atzelaria |
| Mikel Sanchez | Atzelaria |
| Jon Zufiria | Atzelaria |
| Xabier Carpintero | Atzelaria |
| Iker Olalde | Atzelaria |
| Ioritz Zufiria | Atzelaria |
| Mikel Palacios | Erdilaria |
| Aitor Lopez | Erdilaria |
| Xabier Alberdi | Erdilaria |
| Iker Aramendi | Erdilaria |
| Unai Arregi | Erdilaria |
| Xabier Elgarresta | Erdilaria |
| Aritz Garmendia | Erdilaria |
| Iñigo Zubia | Erdilaria |
| Iñigo Arregi | Aurrelaria |
| Xabier Agirre | Aurrelaria |
| Roberto Idigoras | Aurrelaria |
| Asier Ugarte | Aurrelaria |

**MONDRA FUTBOL TALDEA**

| | |
|---|---|
| Ander Ruiz de Azua | Atezaina |
| Mikel Calvo | Atezaina |
| Andoni Amutxastegi | Atzelaria |
| Jon Loiti | Atzelaria |
| Iker Laspiur | Atzelaria |
| Illart Etxebarria | Atzelaria |
| Kepa Merkader | Atzelaria |
| Iker Azkonaga | Erdilaria |
| Arkaitz Garmendia | Erdilaria |
| Ander Bereziartua | Erdilaria |
| Julen Losada | Erdilaria |
| Oier Arregi | Erdilaria |
| Jon Arando | Erdilaria |
| Arkaitz Arana | Erdilaria |
| Julen Aranbarri | Erdilaria |
| Iker Kabrera | Aurrelaria |
| Ekain Garin | Aurrelaria |
| Jon Muruamendia. | Aurrelaria |
| Julen Heriz | Aurrelaria |
| Jon Ander Orm. | Aurrelaria |

**ARETXABALETA**

| | |
|---|---|
| Jon Ander Elgarrest. | Atezaina |
| Asier Unda | Atezaina |
| Mikel Artetxe | Atzelaria |
| Iban Astola | Atzelaria |
| Arkaitz Garai | Atzelaria |
| Alain Gomez | Atzelaria |
| Gorka Iturbe | Atzelaria |
| Ruben Leonardo | Atzelaria |
| Raul Sanchez | Atzelari |
| Aritz Igartua | Erdilaria |
| Iban Lopez | Erdilaria |
| Iker Orueta | Erdilaria |
| Imanol Rodriguez | Erdilaria |
| Iñaki Uribetxeb. | Erdilaria |
| Gotzon Urtzelai | Erdilaria |
| Igor Arriaga | Aurrelaria |
| Aitor Azpiazu | Aurrelaria |
| Iban Espinosa | Aurrelari |
| Erik Gartzia | Aurrelaria |



Iaz taldearekin entrenatzen ibili eta gero, Eldin Zivojevic da Aloñako fitxaketetako bat. I.A.



Mondrako jokalari Julen Aranbarri joan den asteko Arrasate Hiria txapelketan. I.A.



Mikel Artetxe, Eibartarrak taldetik etorri den atzelaria, Arrasate Hiria txapelketan. I.A.

**MENDIKO LASTERKETAK** > ESPAINIAKO KOPA

# Zuhaitz Ezpeletak domekan du Kopa poltsikoratzeko azken lasterketa

Arrasateko korrikalaria bigarren dago Espainiako Kopako sailkapenean eta domekan egingo dute azkeneko proba, Asturiasen

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Zegama-Aizkorri moduko hitzordua alde batera utzita Zuhaitz Ezpeletak Espainiako Kopara bideratu ditu aurten indarrak: "Zerbait ezberdina egin gura nuen, aldatzeko, eta gustura ibili naiz. Hori bai, egia da denboraldia luze egiten ari zaidala, eta deseatzen nago domekako hitzordua iritsi eta atseden hartzeko".

Domekan Asturiasen egingo duten Quebrapates-Peña Mea proba izango da Espainiako Kopako azkena, eta baita puntu gehien emango dituena ere. Alde horretatik, sailkapeneko aurreneko hiru postuetan dauden Mario Llorens, Zuhaitz Ezpeleta eta Just Sociats dira hautagai nagusiak, "baina sailkapena nahiko estu dago, eta gutako edonork egun txarra badu, bosgarrenak ere irabaz dezake Kopa. Izan ere, lasterketa guztietan modu ezberdinean egin dituzte puntuaketak, eta domekako proba da puntu gehien emango dituena".

**ORAIN ARTE, URTE BIRIBILA**

Zuhaitz Ezpeleta aurten inoiz baino indartsuago ibili da. Espainiako Kopa Teruelen hasi zuten apirilean eta orduan hamaseigarren izan zen. Ezpeletak ez du aitzakia modura jartzen, baina erdi gaixorik joan zen proba hartara. Eta ondoren lortutako emaitzek baieztatzen dute hori, Tarragonan egindako bigarren proba irabazi egin zuelako, eta baita uztailean Navacerradan (Madril) egindako Cross de Cuerda Larga proba ere. Hori guztia gutxi balitz, Espainiako Txapelketan bigarren sailkatu zen.



Ezpeleta, maiatzean irabazi zuen Cursa de Muntanya de Paüls lasterketako helmugan, Tarragonan. MAURO&CESAR

**'FRESKOTASUNA FALTA ZAIT'**

Domekako hitzordura begira Ezpeletak onartzen du ez duela uztaileko freskotasuna: "Selekzioekoekin ibili naiz entrenatzen eta eurek ere gauza bera esan didate. Badakit igoeran sufritu egingo dudala, kontrarioek behartu egingo nautela baina esperantza daukat jaitsieran abantaila lortzeko. Urte oso ona izan da, baina borobiltzea falta da".

UDAL EUSKALTEGIAK
www.UDALEUSKALTEGIAK.NET
08-09 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza 2
(Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi 13, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4, 20550 ARETXABALETA
Intxartxueta 10, 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net



27 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro.
HABEko diplomak. Egokitutako ordutegiak. Bekak...
MATRIKULA ZABALIK Titulu ofizialak MATRIKULA ZABALIK
Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

**MIKEL DEUNA**> KIROL HITZORDUAK OÑATIN

# Gazte mailako ziklismoa eta eskubaloi torneoa bihar Oñatin

Oñatiko jaien barruan hainbat kirol hitzordu izango dira, oraingo asteburuan hasita

Eskubaloian, bihar jokatuko dute lehenengo finalerdia Zarautzek eta Bergarak, 16:00etan Zubikoan



Lehenengo finalerdian Bergara eta Zarauzko Amenabar taldea izango dira aurrez aurre. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

San Migel jaiak tarteko, urtero moduan iraila kirol hitzorduz beteta dator Oñatin. Oraingo asteburuan bertan hasiko dituzte Mikel Deuna txapelketak, hain zuzen ere, eskubaloian. Hala, txapelketa horretako finalerdiak jokatuko dituzte bihar bertan, eta datorren asteburuarako utziko dituzte finalak.

Bihar, 16:00etan hasita iaz torneo berean aurrez aurre izan ziren Bergarak eta Zarautzek jokatuko dute. Mahoneroak Euskadiko Txapelketatik jaitsi dira, eta terriorialean lehiatuko dira aurten. Aloña Mendiri dagokienez, oñatiarrek Eibarko Haritza taldearen kontra jokatuko dute bigarren finalerdia, 17:30ean hasita.

**49. SAN MIGEL SARIA**

Zapatuan egingo dute, baita ere, gazte mailako 49. San Migel saria. 10:30ean hasiko dute lasterketa, Olakua auzoan, eta antolatzaileek aurreikusten dute ehun txirrindulari inguru ahalegindukо direla 76 kilometroko ibilbidea ahalik eta azkarren egiten. Lasterketa hasi eta lehenengo kilometroak Bergara aldera egingo dituzte ziklistek, Osintxuraino. Handik bueltan Oñatira itzuli eta igotzen jarraituko dute Udanako gaineraino. Bailaraz aldatu, Urola aldean sartu, eta Urretxutik Deskarga igoko dute. Eta Deskargatik Bergarara jaitsi, eta San Prudentziotik Oñatira etorriko dira berriro, helmugara arte.

Lasterkarien artean Ulma taldeko Julen Arkauz, Xabier Arnaiz, Iñaki Madinabeitia, Oier Olalde, Iñaki Igartua eta Ander Altube lasterketan izango direla baieztatu du antolatzaile lanetan dabilen Pedro Irurzunek: "Baina gurekin batera Sumofic taldeko ziklistak ere etorriko dira, Xabier Aranzeta eta konpainia".

> ARETO FUTBOLA

## Irekita dago Bergarako areto futbol txapelketan parte hartzeko izenemate epea

Irailaren 16an, datorren martitzenean, amaituko da Bergarako areto futbol txapelketan izena emateko epea. Antolatzaileek hurrengo egunerako, hilak 17, antolatu dute taldeekin egingo duten batzarra, Bergarako Kultur Etxean, 19:00etan.

Izena eman gura dutenek taldearen partaideen izen-abizenak eta NA fotokopiak aurkeztu beharko dituzte, eta baita taldeko ordezkariaren telefono zenbakia ere. Horrekin batera, talde bakoitzak 200 euro ordaindu beharko ditu. Diru hori Euskadiko Kutxan sartu beharko dute 0090033922 kontu korronte zenbakian. Txapelketa irailean bertan hasiko dute, horrenbestez, interesa dutenek azkar ibili beharko dute.



GOIENKARIA

## Gatzagako mendiko bizikleta irteerari Oñatik hartuko dio errelebua, domekan

Oraingo domekan egingo dute Oñatin mendiko bizikleta irteera (09:00etan kiroldegian). Izenematea irteera baino lehenago egin beharko da, han bertan, eta federatuta ez daudenek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Mendi zeharkaldiak 40 kilometro izango ditu, ohi moduan, eta ibilbidea Santa Luzia, Gorordo, harrobi zaharra, Mikeletetxe eta Ugastegi inguruetatik egingo dute. Bukatzean ziklistak kiroldegian bertan dutxatu ahal izango dira.






**Vuelta barrutik**

**Iban Velasco** > Ziklista

Zuek egubakoitzean irakurriko dituzue lerro hauek, baina esandako hauek eguazten ilunkeran botatakoak dira, badaezpada.

Egubakoitzeko [gaurko] atseden egunean Egoik urre koloreko maillotarekin jarraitzen badu gauzak ondo egin ditugun seinale. Egia esateko, leher eginda nago, lider jarraitzeko azken bi etapa hauetan lan handia egin behar izan dugulako. Horrelako etapetan askok eta askok *atseden hartzeko* aprobetxatzen dute, baina beste batzuek gogotik egin behar izaten dugu lan. Atzo bost laguneko taldea 140 kilometrotan ibili ginen tira eta tira, eta gaur Alain eta biok ibili gara lan horretan. Baina ez izan errukirik, lan hori lidergoari eusteko baldin bada oso gustura egiten dugulako!

Espainiako Itzulia hasi genuenetik taldean oso ondo moldatu gara. Giro ona izan dugu hasieratik, eta taldearen helburua Igor Anton sailkapen nagusian aurrean amaitzea bada ere, Egoi lehenengo sailkatuta egon izanak sekulako ilusioa egin digu.

Bestalde, egubakoitzekoa [gaur] atseden eguna izango da, baina zapatuan Angliru zain izango dugula jakinda ez da komeniko larregi erlaxatzea.

Datozen egunei begira, dagoeneko errekuperatu naiz Pirinioetan izan nuen erorikotik, eta nire asmoa da datozen mendateetan aurrerago ibiltzea.

Ezin zutabe hau amaitu egunotan albiste den Lance Armstrongen itzuleraren gainean berba egin barik. Badirudi amerikarren ohitura dela, eta hor dago Jordanen adibidea. Zer esango dizuet, bada, ilusioa egiten duela horrelako tipo baten ondoan korritzeak.



**> 'HNUY ILLA'**
Tanttaka eta Kukai taldeen dantza ikuskizuna Bergaran **> 45**

**> GOOGLE CHROME**
Kalean da Google-en nabigatzaile berria **> 51**

**> MAITANE FERNANDEZ**
Oñatiarra da eta 22 urte ditu. Ile apaintzaile, estetika eta makillaje ikasketak eginak ditu eta Bartzelona ondoan bizi da.
**> 50**






**AURKEZPENA** Eguazteneko aurkezpenean II. Danbakan parte hartu zuten zenbait musikari ere izan ziren. JON BEREZIBAR

# Kalean da Danbaka lehiaketaren bigarren edizioko DVD eta CDa

Bi orduko ikus-entzunezkoan, lehiaketaren II. edizioko xehetasun guztiak erakusten dira

Denetariko estiloen presentziaz, Debagoieneko harrobi musikalaren erakusgarri da produktua

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA
Kalean da Danbaka Debagoieneko II. Musika Lehiaketako DVD eta CDa. Bigarren edizioan jasotako irudi eta audioarekin osatutako lana da, 2006an ospatu zen lehiaketa hartako xehetasun txikienak ere azaleratzen dituena.

Produktu hori, Danbaka irabazi ostean kaleratu diren diskoez aparte, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak 2004an elkarrekin hasitako Danbaka izeneko bidaiaren lehen emaitza ukigarria da. Ez emaitza bakarra, noski, aurreko bi edizioek uki ezin daitezkeen fruituak utzi baitituzte. Gure ibarreko hainbat taldek, adibidez, biziki eskertuko dute euren taldea ezagutzera emateko Danbakak eman zien bultzada.

**EGUAZTENA EZKERO SALGAI**
Asteon aurkeztu dute DVD eta CDa. Birritan egin dute, ibarrean lehendabizi eta kanpoan ondoren. Eguaztenean egin zuten lehen aurkezpen ofiziala, Arrasateko Gure Leku tabernan. Iker Barandiaran lehiaketaren koordinatzaileaz gain, produktuaren benetako protagonistetako batzuk izan ziren aurkezpenean. Bergaratik Azkaiter Pelox, Mahaster River eta Yotox, Aretxabaletatik Scam, Oñatitik Malenkonia eta Unnëa eta Arrasatetik The 5 Twisters taldeetako partaideak izan ziren.

Atzo, berriz, Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuten DVD eta CDa eta bertan Gaztelupeko Hotsak-eko ordezkariak ere izan ziren. Barandiaranek adierazi du eguaztena ezkero salgai den produktua Debagoienean saltzeaz aparte, kanpora zabaltzeko asmoa dutela, musika arloan hemen egiten denaren "eredu bat" kanpoan ere ezagut dezaten.

Produktua eguaztena ezkero da salgai, beraz. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak eta Gaztelupeko Hotsak-ek elkarlanean kaleratu dute, 700 kopia guztira. Produktua Goienaren egoitzetan, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen webgunean –*www.hotsak.com*– eta ohiko saltokietan egongo da salgai. Prezioa, hasiera baten, 13 euro da.

**ITXURA TXUKUNA**
DVD eta CDa lan txukunaren emaitza da, produktuaren kanpoko itxurari erreparatuz baiezta daitekeenez. Izan ere, azalaren eta barruko liburuxkaren diseinua erakargarria denik ezin da ukatu; erakargarria eta sinplea.

Liburuxkak oso informazio erabilgarria dakar, gainera. 2006an parte hartu zuten 20 taldeen eta bakarlarien argazkiak, nongoak diren, taldeko kideen izenak, zein musika molde jorratzen duten eta eurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia kontsulta daiteke, besteak beste.

(44. orrialdean jarraitzen du)

DATUA

**700**

KOPIA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Gaztelupeko Hotsak-ek elkarlanean kaleratutako produktua da. 700 DVD eta CD atera dituzte, Debagoienean zein kanpoan saltzeko.

DATUA

**13**

EURO

DVD eta CDa Goienaren egoitzetan eta ohiko saltokietan salduko dute 13 eurotan. *www.hotsak.com* webgunean ere bai (10 euro gehi bidalketa gastuak).



MALENKONIA Oñatiarrek bigarren edizioko finalean izatea lortu zuten.



ABY KEM *Azken Guda* izeneko diskoa atera zuten II. Danbakako irabazleek.

# Kalean da Danbaka lehiaketaren bigarren edizioko DVD eta CDa

(43. orrialdetik dator)

**ANIZTASUNA, ZEINU BEREIZGARRI**

Diseinu eta kanpoko itxura landuak, baina, ez du ezertarako balio produktua bera kalitate eskasekoa bada. Hori ez da Danbaka II. Musika Lehiaketako DVD eta CDaren kasua.

CDan, batetik, lehiaketan parte hartu zuten 20 taldeen kantu bana dago entzungai, 65 minutu zehatz irauten duen denetariko estiloen musika jarioa. Estilo aniztasuna baita Danbakaren zeinu bereizgarrietako bat.

Hala, Barandiaranek azaldu duenez, "DVD eta CD hau Debagoieneko musika eskaintza zabalaren erakusgarri da". Izan ere, gure ibarrean musika asko eta ezberdina egiten da, eta gainera, estilo berberaren barruan hainbat aldaera daude. Beraz, musikak gure ibarrean duen garrantziaren isla da DVD eta CD hau. CDan bertan, besteak beste, pop-rocka, punk-rocka, metala, stonerra, rocka, hard-rocka, bluesa, grind-corea eta elektroniko estiloak entzun ahalko dira.

**DANBAKAREN ONENA, BI ORDUAN**

DVDa, bestalde, bi orduko ikus-entzunezkoa da, eta bost atal ezberdinetan banatuta dago. Sarreran, bigarren edizioko promozio-bideoklipa txertatu dute, automatikoki abiarazten dena. Ondoren, hasierako menuan sartzeaz bat, lehiaketako irabazlearen eta finalisten kontzertua, parte hartu zuten talde guztien zuzeneko kantu bat eta estrak ageri dira.

Lehiaketaren irabazleei, Aby Kem-i, hiru bideo eskaini dizkiete. Bideo horietan, II. Danbakako sari banaketa, sari moduan irabazitako diskoaren grabazioa –*Azken guda* deritzon diskoa, Arrasateko Shot estudioan grabatua– eta disko horren aurkezpena agertzen dira.

Gainera, lehiaketako finalean GOITBk egindako zuzeneko jarraipena ere agertzen da, eta baita Aby Kem, Belceblues eta Malenkonia finalisten zuzenekoak ere.

Bestalde, lehiaketak iraun zuen hilabeteetan zehar Elgetako Espaloian Kafe Antzokian eskaini ziren kontzertu guztien laburpen bat ere badago. Talde guztiek eskainitako zuzenekoetatik kantu bat agertzen da, CDan entzun daitekeen berbera. Lehiaketaren xehetasun guztiak azaleratze aldera, material gehigarria ere sartu dute. Atal horretan talde bakoitzari eskainitako argazki galeria, musika munduko hainbat adituri elkarrizketak –besteak beste, Euskadi Gazteko Fermin Etxegoien eta Ilaski Serrano, Herri Irratiko Gregorio Galvez eta *Entzun* aldizkariko Igor Susaeta– eta kameren bestaldekoa –*making off*-a– erakusten da. Eta ez hori bakarrik, DVDan lehen edizioko irabazle Sharon Stoner taldearen akustikoa eta bideoklipa ere badago.



BELCEBLUES Blues emanaldi bikainak eskaini zizkiguten bergararrek.

ESANAK

## "DVD eta CD hau Debagoieneko musika eskaintza zabalaren erakusgarri da, bai guretzat eta bai kanpora begira"

**Iker Barandiaran** > Koordinatzailea

**AKATSETATIK IKASTEN**

2004ko lehen edizio hura ere grabatu eta GOITB zein beste tokiko telebista batzuetan emititu zen. Lehen esperientzia hartan, estraineko aldia izanda ulertzekoa denez, ez zen dena ondo irten. Barandiaranek dioenez, orduan ateratako irudiak egokiak ziren honelako lan baterako, "baina grabatutako soinuaren kalitatea eskasa zen". Bi urte geroago, dena –edo ia dena– atera zen ondo, eta DVD eta CDa dira horren lekuko.

Danbaka proiektuak aurrera jarraitzen du, talde berriak ezagutzera emateko gertu. Hirugarren edizioa hasteko hilabete besterik ez da falta...

## 20 talde eta hamaika estilo ezberdin

| | HERRIA | ESTILOA | KANTUA |
|---|---|---|---|
| Aby Kem | Bergara | Hardcorea eta metala | *Zoramenaren errautsak* |
| Anal Bag | Arrasate | Grind-core elektronikoa | *Gangrena en la polla* |
| Azkaiter Pelox | Bergara | Rocka | *Iparraldera bidaia* |
| Belceblues | Bergara | Bluesa | *Vegas* |
| Drakes | Oñati | Punk-rocka | *Alternapijos* |
| Igor | Aretxabaleta | Popa | *Ez noa lanera* |
| Inalectrik | Aretxabaleta | Popa eta rocka | *Biok dakigu egia* |
| Jim TNT | Arrasate | Rocka | *Soy un actor* |
| Klakson | Antzuola | Rocka | *Kabina ustela* |
| Little Little Much | Arrasate | Metala eta rocka | *The rocket* |
| Los Cretinos | Arrasate | Rock-and-rolla | *Bebiendo sin ti* |
| Mahaster River | Bergara | Bluesa, soula eta flamenkoa | *John Cointreau* |
| Malenkonia | Oñati | Pop-rocka | *Koloreen eresia* |
| Matx | Elgeta | Popa | *Eskatu eta ez eman* |
| Ozen | Arrasate | Rocka eta heavya | *Burdinezko dama* |
| Raul Lasa | Arrasate | Popa eta rocka | *Erase una cancion* |
| Scam | Aretxabaleta | Punk-popa | *Wake up* |
| The 5 Twisters | Arrasate | Rock-and-rolla | *Mi pesadilla* |
| Unnea | Oñati | Pop-rocka | *Hitz egin gabe esandakoa* |
| Yotox | Bergara | Elektronikoa | *Muskuilua* |



HASTEAR DA III. EDIZIOA

## Irailaren 19a da izena emateko azken eguna eta lehiaketa urriaren 17an hasiko da

Danbaka Musika Lehiaketaren hirugarren edizioan parte hartzeko izenemate eguna astebete barru amaitzen da, hilaren 19an. III. Danbaka aldaketa eta berrikuntzaz josita dator, eta esparrua zabaldu dutela da aipagarriena. Oraingoan, Debagoieneko taldeek ez ezik Debabarreneko eta Durangaldekoek ere parte hartu ahalko dute. Beste berrikuntza aipagarri batzuk ere badira, bestalde.

Saria bere horretan mantenduko da, Arrasateko Shot estudioan disko bat argitaratzeko aukera izango baitu talde edo bakarlari onenak. Hala ere, irabazlea Debabarrena edo Durangaldekoa balitz, Debagoieneko talde edo bakarlari onenak ere sari berbera izango luke.

Lehiaketan parte hartzeko, interesatuek hiru kantu argitaragabe eta eurenak bidali behar dituzte. Hiru modu daude: MP3 formatuan *danbaka@danbaka.com* helbidera bidaltzea, posta arruntez CDa gutunean sartuz Goiena Komunikazio Zerbitzuak, 132 posta kutxa, 20 500 Arrasate helbidera edo Arrasaten, Bergaran zein Aretxabaletan Goienak dituen egoitzetara eramanda.

Dena gertu dago inoiz baino zabalagoa eta interesgarriagoa izango den Danbaka Musika Lehiaketa martxan jartzeko, urriaren 17an hasiko da.

**IKUSKIZUNA** > DANTZA

# 'Hnuy illa': dantza, poesia eta musika Kukai eta Tanttakaren eskutik

Elkarlanean ekoiztutako hirugarren lana da, '1937' eta 'Otehitzari biraka' lanen ondoren; Bergarako Udal Pilotalekuan domekan, 20:00etan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

San Martin jaien barruan, Kukai dantza taldeak eta Tanttaka Teatroa konpainiak euren ikuskizun berria aurkeztuko du domekan Bergaran: *Hnuy illa*.

*Hnuy illa* poesian oinarritutako dantza ikuskizuna da. Hain zuzen ere, Joseba Sarrionaindiaren *Huny illa nyha majah yahoo* (Ondo zaindu beti, Yahoo maitea) liburuan bildutako poemak dira ikuskizunaren ardatza. Mireia Gabilondo aktore eta zuzendari bergararrak zuzentzen du *Hnuy illa*. Sarrionaindiaren poemetan oinarrituta, Gabilondok ibilbide zirraragarria sortu du poeta durangarraren gai nagusietan barrena: maitasuna, erotismoa, kartzela, erbestea, ametsak edota idaztea bera; bizitzari buruz duen ikuspegia, trenak eta leihoak tartean direla. "Bertso iradokitzaileak eta narratiboak dira; kantatzeko, errezitatzeko edota intuitzeko modukoak", dio Gabilondok.

**POESIA, MUSIKA ETA DANTZA**

Poesiarekin batera, dantzak, irudiek eta musikak berebiziko garrantzia daukate. Kukai dantza taldeko koreografo eta dantzari den Jon Maya arduratu da koreografiaz. Maiarekin batera, Alain Maia, Eneko Gil, Ibon Huarte, Urko Mitxelena,Vanesa Castaño eta Nerea Vesga dantzariek hartzen dute parte ikuskizunean. Musika, berriz, Iñaki Salvador piano jole donostiarrak konposatutakoa da. Azkenik, ikuskizunean zehar ikusgai diren irudiak David Bernues errealizadorearenak dira.

*Hnuy illa* antzezlanean, puzzle batean bezalaxe, pieza guztiak daude batuta. Mireia Gabilondok osagai guztiak batu eta berebiziko ikuskizuna sortu du, iradokizuna nagusi duen ikuskizuna taxutzeko. "Ate bat irekitzea bezala da, zerbait berria gerta dadin".

Ikuskizuna joan den maiatzaren 11n estreinatu zuten eta kritika onak jaso ditu, ikusle zein adituen aldetik. Kukai Dantza Konpainiak eta Tanttaka Teatroak elkarlanean ekoiztutako hirugarren lana da honako hau, aurretik egindako *1937* eta *Otehitzari biraka* lanen ondoren

**SARRERAK SALGAI**

Domekako emanaldia, esan bezala, 20:00etan izango da, Udal Pilotalekuan. Sarrerak salgai daude dagoeneko Bergarako kultura etxean, 5 euroren truke.

Domekan, berriz, Bergarako Udal Pilotalekuko leihatilan izango dira salgai, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.



Ikuskizuneko koreografia Jon Mayarena da. LANDER GARRO



Oskar Arana itzultzaile aramaioarra. GOIENKARIA

**LITERATURA** > 'GIZONA ILUNPEAN', KALEAN

## Austerren azken eleberria itzuli du Oskar Aranak

**E.M.** > BERGARA

Paul Auster idazlearen *lagun euskalduna* omen da Oskar Arana. Austerren aurreko bi eleberriekin gertatu bezala, aramaioarrak itzuli du Austerren azken lana: *Gizona ilunpean*. Alberdania argitaletxeak eman du argitara. Esan bezala, hirugarren aldia da Oskar Arana Paul Auster itzultzeaz arduratzen dena.

*Brooklyngo erokeriak* eta *Bidaiak scriptoriumean zehar* izan ziren aurreko lanak. Orduan bezala, albi berean argitaratu dute eleberria, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz.

Paul Auster (New Jersey, 1947) gaur egungo idazlerik arrakastatsuenetakoa da. Letren Asturiasko Printzea saria jaso zuen iaz.

> MUSIKA

**Bergarako Orfeoiak abeslari gaztetxoei eta helduei dei egin die, denboraldi berria gertatzeko**

Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Txikia hasi dira denboraldi berriko entseguak egiten eta Gabero abesbatzako kideek gaur ekingo diote entseguei. Orfeoi Txikiak hilaren 18an dauka lehen hitzordua. Orfeoiko kideek aditzera eman dutenez, taldeko ateak zabalik daude edonorentzat. Norbaitek abesteko gogoa badu, Orfeoiko kideengana jo dezake. Haurren abesbatzetako kuota 40 euro da. Argibide gehiago *bergarakoorfeoia@gmail.com* helbidean.

LANBIDE HEZIKETA CES

ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA KURTSOAK
Matrikulazio epea zabalik
Titulo ofiziala
3. maila Erresuma Batuan
Nazioartean du balioa
Goi mailako diplomatura
Olagibel kalea 61 B
Tel.: 945 12 03 60
Gasteiz
formacionprofesionalces@gmail.com

Arrasateko Udal Ludotekak:
Okendo, Santa Marina eta Usaetxe
2008-2009 ikasturtean izena emateko epea: irailaren 15etik 26ra arte.
Argibide gehiagorako eta matrikula egiteko jo ludotekara
(irailaren 16tik aurrera, 17:00-20:00)
Arrasateko Udala
Gazteria Saila



**Ibon Zabalo** eta **Ainara Laskurain** antzuolarrak zapatuan ezkonduko dira Arantzazuko santutegian. Ondoren, Zelai-Zabalen ospatuko dute familia eta lagunekin. Zorionak, bikote eta izan zoriontsuak! Familiaren partetik, laztan handi bana.



Arrasateko **Saioa Pildain** eta Oñatiko **Aitor Urkia** Oñatiko udaletxean ezkondu ziren irailaren 6an. Ezkon bidaian AEBetara eta Mexikora joan dira. Koadrilakoen partetik, ondo-ondo pasa, bikote, eta izan zoriontsuak!



**Maitane Goñi** antzuolarra eta **Josu Diez** legazpiarra bihar, zapatua ezkonduko dira Antzuolako Antigua ermitan. Familia eta lagunen partetik zorionak eta ondo-ondo pasa, guk ere ederki pasako dugu-eta. Izan zoriontsuak, bikote!



Urte askoan elkarrekin egon ondoren, Oñatiko **Jabilo** eta **Jaione** bihar ezkonduko dira. Inoiz ez da berandu maitasuna badago. Zorionak goiko koadrilaren partetik. Ondo pasa biharko eguna eta zoriontsuak izan, bikote!



**Ainara** eta **Beñat** bihar, larunbata, ezkonduko dira Arrasaten. Ezkon bidaian Tailandiara joango da bikotea. Zorionak familia eta lagunen partetik. Ondo-ondo pasa Tailandian eta laztan handi bana, bikote!



Aretxabaletako **Argimiro Justel** eta **Peregrina Lozano** 1958ko irailaren 11n ezkondu ziren. Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, seme-alaba eta iloba guztien partetik zorionak eta jarraitu orain arte bezala. Izan zoriontsuak!

## bono fotoa



## Nola deitzen da Oñatiko erdigunetik oso gertu dagoen zuhaizti hau?

**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain

BM supermercados
Grupo IFA

BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ....................................
....................................

IZEN-DEITURAK....................................
TELEFONOA....................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

BMn beti
eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **ANDER LEGINA** rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Bergaran.**

ESKER ONA

## Adolfo Diaz Lopez

**Oñatin hil zen 2008ko irailaren 3an, 67 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2008ko irailaren 12an.

ESKER ONA

## Bibiana Olañeta Aranzabal

Zabaleta baserrikoa

**Angiozarren hil zen 2008ko abuztuaren 31n, 93 urte zituela.**

Etxekook, elizkizunetara etorri
eta gurekin bat egin duzuen guztioi
eskerrak ematen dizkizuegu.



Angiozarren, 2008ko irailaren 12an.

ESKER ONA

## Igor Lete Aranburu

**Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.**

Familiak eskerrak eman nahi dizkie
gure ondoan egondako guztiei.



Bergaran, 2008ko irailaren 12an.

ESKER ONA

## Ismael Arrieta Roman

**Bergaran hil zen 2008ko irailaren 3an, 64 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko irailaren 12an.

1. URTEURRENA

## Jose Mari Garitano Mendibil

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
13:00etan
Bergarako Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi aldez aurretik mila esker
haren emazte Alicia Andres eta familiakoen izenean.

1. URTEURRENA

## Jose Agirre Arenaza

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
13:00tean
Bergarako Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Juan Garitano Askasibar

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
11:00etan Angiozarko San Migel
Goiaingeruaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Iñaki Mujika Garitano

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 14an,
13:00etan Bergarako Santa Marina elizan.

—

*Urak dakarrenak urak darama,*
*Iñakik emandakoa gurekin geldituko da. .*

Mila esker bihotz-bihotzez.
Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Patxi Iturbe Guridi

**Bergaran hil zen 2007ko abuztuaren 20an, 82 urte zituela.**

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
13:00etan
Bergarako Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### hildakoak

- **Elena Asensio Gomez.** Bergaran, irailaren 1ean. 96 urte.
- **Santos Lizarralde Lizarralde.** Antzuolan, irailaren 2an. 81 urte.
- **Ismael Arrieta Roman.** Bergaran, irailaren 3an. 64 urte.
- **Jose Antonio Vales Sanchez.** Aretxabaletan, irailaren 5ean. 73 urte.
- **Juana Errasti Arriola.** Antzuolan, irailaren 5ean. 90 urte.
- **Julian Gallo Olalla.** Arrasaten, irailaren 8an. 86 urte.
- **Justo Unanue Makazaga.** Aretxabaletan, irailaren 9an. 91 urte.

MEZA

## Neli Colinas Trapote

**Oñatin hil zen 2008ko uztailaren 23an, 60 urte zituela**

Oroimenezko meza zapatuan,
irailaren 13an, 19:30ean,
Oñatiko Agustinoen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko,
senarra, seme-alabak eta gainerako sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. Bergara Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
Oñati Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. Aretxabaleta Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. Aramaio Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22
Elgeta Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 Antzuola: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**



Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Bergara.** Martoko kalean 50 metro koadroko etxebizitza. Sukaldea, egongela, hiru logela eta bainua. Prezio interesgarria: 102.000 euro (17.000.000 pezeta). 943 76 32 25.

**Luz Saint-Sauveurren** etxebizitza salgai (Frantziako Pirinioak). Deitu 670 49 84 28 edo 649 03 52 95 telefonora.

**Oñati.** 120 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. Guztiz eraberritua. Trasteleku eta lursailarekin. Tasatutako prezioan. 650 60 12 14

**Oñati.** 65 metro koadroko apartamentu berria salgai erdialdean. Garaje eta guzti. 665 71 42 69.

### 102. EROSI

**Bergara.** Etxebizitza txikia erosiko nuke. 680 35 96 30.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Prezio onean. Deitu 605 75 54 52 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan Erguinen, eskolatik gertu. Ikasle edo bikote batentzat. Laura/Jose Angel. 629 67 94 88 edo 615 74 32 79

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Zerrajeran. 950 euro hileko. 646 81 03 35.

**Eskoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan Eduardo Gorosarri plazan. Ikasle edo familia batentzat. 605 77 51 65 edo 943 71 48 65

**Donostia.** Apartamentua ematen da errentan Gros auzoan. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Irailetik ekainera arte. 615 70 22 68.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan erdigunean. 615 73 29 83 edo 652 76 50 90.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bikote arduratsua gara. 615 73 79 11.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 608 57 37 68.

**Eskoriatzan** edo Arrasaten etxea errentan hartuko nuke. 635 12 87 82.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela, pisu eguzkitsua, wi-fia. Eguzkitsua. (Raul eta Oier). 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

**Arrasate.** Mutil batek logela hartuko luke errentan. 645 72 25 24.

**Bi neska** ikasle behar dira etxea osatzeko Aretxabaletan. Hiru logela, sukaldea, despentsa, egongela, bi komun eta terraza. Autobus geltokitik gertu. Garazi. 618 92 40 68 edo 646 94 19 81.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Zigarrola auzoan. 626 70 61 79.

### 202. EROSI

**Eskoriatza.** Garaje itxia erosiko nuke, ahal izanez gero erdigunean. 690 04 40 53.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Emakumea behar da haurra zaintzeko. 677 98 54 46 edo 943 76 64 98.

**Arrasate.** Pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumezkoa behar da. 619 58 98 50.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate-Bergara.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. 671 18 50 83.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko orduka. 943 08 27 05 edo 685 72 03 16.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. 672 25 92 18.

**Arrasate.** Igeltsero lanak egingo nituzke. Rolando. Deiut 679 23 10 44 telefonora.

**Bergara eta Antzuola.** Mutil arduratsua sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 685 42 72 80.

**Bergara.** Emakume gaztea pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. 686 99 59 41.

**Debagoiena.** 28 urteko mutila edozein lan egiteko gertu. Hiru urte darama Bergaran bizi izaten. Christian. 662 08 22 03.

**Debagoiena.** 37 urteko mutil euskalduna asteburuetan edozein lan egiteko gertu. Deitu 686 99 23 94 telefonora.

**Debagoiena.** Arrasateko 37 urteko mutila asteburu eta oporretan edozein lan egiteko prest. 686 99 23 94.

**Debagoiena.** Emakumea etxeko garbiketak egiteko gertu. 610 82 02 17.

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila tabernan lan egiteko gertu. 628 00 09 06.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile lanetarako: pintxoak, ogitartekoak, plater konbinatuak, menuak... 667 98 84 47.

**Debagoiena.** Gazte boliviarra nekazaritza lanetarako gertu: behiak edo zaldiak zaindu eta abar. Deitu 663 60 51 64 telefonora.

**Debagoiena.** Gaztea gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak eta pertsona nagusiak orduka zaintzeko. 699 63 12 02.

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntzan lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 699 63 12 02.

**Debagoiena.** Neska eskaintzen da tabernan asteburuetan lan egiteko. Deitu 644 49 61 52 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. Egunez, gauez zein orduka lan egingo nuke. Deitu 686 42 06 42 zenbakira.

**ARGENTINA**
**Gerta ezazu bidaia zure gustura!**

Aukera itzazu hegaldi eta hotelak prezio onenetan, Buenos Airesko agentzia baten bidez zuzenean.

Tel.: 660 76 70 82 (Bergara)

**EUSKONTROL**

**Bergarako instalazioetarako behar da: Peoi lana betetzeko pertsona bat. Gidaibaimena beharrezkoa.**
**94 630 95 00**
**(Aintzane)**

**ARETXABALETA**

**Sukaldari laguntzailea behar da.**
**677 69 27 85**

**ARETXABALETA**

**Aste bukaerako jangelako zerbitzaria eta sukalde laguntzailea behar dira.**
**662 13 27 55**

**ARRASATE**

**Pertsona bat behar da lau orduz dendan lan egiteko. 80 posta kutxa Arrasate.**

## LAN ESKAINTZA

Arrasateko etxe agentzia batek 25 urte baino gehiagoko emakume saltzailea behar du.

**Eskatzen da:**
- Itxura ona.
- Hitz egiteko erraztasuna.
- Office ezagutzak.
- Gidabaimena.
- Auto propioa.

**Eskaintzen da:**
- Soldata finkoa
- 6 ordu eta erdiko lanaldia
- Salmentagatiko ordainsariak
- Kontratua
- Gizarte Segurantza.

**Curriculumak *ekos@ekos.es* helbidera edo deitu 943 79 19 88 telefonora**

INMOBILIARIA EKOS

**ANTZUOLAKO UDALA**

Lan eskaintza publikoa

**Udal eraikin garbitzailearen lanpostua betetzea lehiaketa-oposizio bidez.**

**Izangaien baldintzak:**
- 16 urte beteta izatea.
- Eskolaritate-egiaztaria edukitzea.

**Eskabideak aurkezteko epea:**
irailaren 19an amaitzen da.

**Oinarriak:** GAO, 2008ko uztailaren 28an.

*Antzuolan, 2008ko irailaren 12an*
*Alkatea*

ANTZUOLAKO UDALA

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea, aljebra... Arreta pertsonalizatua. Deitu 630 71 35 83 zenbakira.

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 8 urtetik aurrera. Eskola laguntza ere bai. 635 73 77 21

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen ditut Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetan. 645 72 01 50

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 618 91 32 89

**Ingelesa.** Arrasaten eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. 943 77 16 90

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 618 91 32 89.

### 503. BESTELAKOAK

**Aretxabaleta.** Frantsesez berba egiteko berba-laguna gura dut. 629 85 66 35.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**ADSL routerra** salgai: 802.11G Wireless ADSL 2+4-port Gateway. 100 euro. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Anplifikagailu mahaia** salgai. Yamaha. 400 watt. 12 kanal. Efektuekin. Azken seriea. Altzari eta guzti. 1.200 euro. Deitu 696 37 91 79 telefonora.

**Basalurra** salgai Urkulu, Bolibar, Osintxu eta Antzuolan. Deitu 678 72 75 72 zenbakira.

**Baxu anplifikagailua** salgai. Peavy 6 seriea. 250 watt. Burua eta bozgorailua. Deitu 610 85 32 04 telefonora.

**Biola.** 38 zentimetrokoa. Arku eta fundarekin. 550 euro. 944 12 46 28.

**Biola.** 39 zentimetrokoa. Fundarekin. 450 euro. Deitu 944 12 46 28 zenbakira.

**Brain Trainning** berri-berria salgai. Nintendo DSrako. Deitu 617 13 17 51 telefonora.

**Flex Multielastic** koltxoia salgai. 150x180 cm. Egoera onean. 200 euro. 696 48 12 99.

**Ordenagailua.** Bigarren eskuko ordenagailua salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13.

### 806. GALDU

**JBrotxea** galdu nuen San Juan egunean Arrasate erdialdean. Familia oroigarria da. Deitu ezazue telefono honetara: 627 35 30 90.

**Ezkontza eraztuna** galdu nuen ekainaren 28an Eskoriatzan. Ez dauka ezer idatzita eta urre zuri eta hori kolorekoa da. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu M. Cruzi. Deitu ezazue telefono honetara: 635 00 52 68.

**Jaka bakeroa.** Arrasaten 3-4 urteko neskaren txaketa bakeroa galdu genuen abuztuaren 26an, asteartean. Lore batzuk dauzka eta Boboli markakoa da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. (Mikel). Mila esker. Deitu ezazue telefono honetara: 615 71 03 63.

**Jaka beltza** hartu zuen norbaitek Iluntz tabernan uztailaren 12an, zapatua, eta antzeko bat utzi zuen bertan. Aldaketa egiteko, deitu mesedez: 666 12 52 80 edo 943 79 98 07.

**Patinak** Umearen patinak galdu nituen uztailaren 26, 27 astebukaeran Urkulun. Deitu ezazue telefono honetara: 653 71 53 85.

**Ume motor gorria** Cars-en gurpil sendodun motorra galdu genuen. Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu. Deitu ezazue telefono honetara: 675 00 66 03..

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Leioara joan-etorria.** Leioako unibertsitatera joan beharra dut ia egunero. 09:00etarako joan eta 14:00etan itzuli. Beste lagun batzuekin autoa txandaka eraman edo gastuak konpartitu nahiko nituzke. Deitu 657 79 07 39 zenbakira.

## ETXE AGENTZIAK

**Jar ezazu hemen zure publizitatea**
**943 25 05 05 publi@goiena.com**

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 $m^2$. Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 $m^2$. Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 $m^2$. Oso ondo.
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- San Lorentzo. Berritua. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Gazteentzat.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Prezio ona.
- Masterreka 92 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 $m^2$. Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 $m^2$. Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 $m^2$. Eguzkitsua. Erdi berritua.
- Moyua. 75 $m^2$. Oso aukera ona.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 $m^2$, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, ondo.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 $m^2$, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 $m^2$, ia berria.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

## LAN POLTSAK

**1. Erizain diplomatua**
**2. Administraria**
**3. Administrari laguntzailea**

Izena emateko epea: irailaren 13tik 22ra arte (biak barne)

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke www.arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**

KIBUC GURE AMETSAKO ARDURADUNAK

# "DENA ERABAT BERRITU DUGU, BAINA OINARRIAN BETIKO GURE AMETSA DAGO"

KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean







**ANTONIO OLAZABAL ETA ALAITZ OLAZABAL / KIBUC GURE AMETSAKO ARDURADUNAK**

**Amets batetatik sortu zen Gure Ametsa eta pausoz pauso gauzatuz doa amets hori, ezta?**
Orain dela 30 urte 90 metro karratuko altzari denda txiki batekin hasi ginen eta orain 4.000 metro karratuko eraikin batean gaude eta beti ere aurrera egiteko asmoarekin. Kit erako altzariekin hasi, altzari osagarrietara pasa eta egungo altzari modernoetara iritsi arte.

**Gure Ametsa izatetik Kibuc-Gure Ametsa izatera pasa zarete. Zer dela eta izan da aldaketa?**
Orain dela urtebete irudi aldaketa egin genuen eta horrekin batera baita izen aldaketa ere. Kibuc elkarte bat da, kataluiniako altzari denda batzuek, euren egoerarekin kezkaturik sortu zutena, eta pixkanaka haunditzuz joan dena 70 denda bereganatzeraino. Guk ere bat egin dugu taldearekin. Indarrak batuz etxeko altzarietan une honetan dauden gauzarik erakargarrienak eskaini nahi dizkiegu bezeroei: kalitatea, diseinua eta bermea.

**Izena ez ezik erakusketa ere aldatu duzue, ezta?**
Bai, aldaketa erabatekoa izan da: izena, denda, erakusketa, zerbitzua, produktua eta funtzionamendua. Dena eguneratu dugu garai eta behar berrietara egokituz eta altzarien arloan lehen lerroan egoteko asmoz. 4.000 metro koadrotik gorako erakusketa daukagu hiru solairutan banatua. Metro koadro asko direnez, erakusketan ahalik eta erosoen ibiltzeko moduan egokitu dugu; besteak beste umeen aulkitxoekin edo gurpildun aulkiekin datozenentzat.

**Aldaketa egin duzue, baina Gure Ametsaren funtsa mantentzea da zuen nahia, ezta?**
Kibuc taldean sartu ginen, baina argi utzi nahi duguna da, oinarrian orain dela 30 urte sortu zeneko Gure Ametsa garela. Beti izan gara serioak eta hitzekoak eta horrela izaten jarraitu nahi dugu. Bezeroari eskaini nahi dizkiogu kalitate ona, prezio egokia, bermea eta puntako zerbitzua.

**Nolako altzariak aurkituko ditu Kibuc-Gure Ametsara datorren bezeroak?**
Gaur egungo altzariak, modernoak eta garaikideak. Sukalderako, helduen zein umeen logeletarako eta egongeletarako altzariak dauzkagu.

**Aurrera begira zein da Kibuc-Gure Ametsaren ametsa?**
Merkatuan egunean egotea eta etorkizunera begira lanean jarraitzea. Horregatik egin dugu, hain zuzen ere, aldaketa. Gure Ametsaren funtsa ahaztu gabe, guztiz berrituta, geroan ere ahalik eta zerbitzu onena emateko gure bezeroei.

**Kibuc-Gure Ametsa: Aurpegi berria, betiko ametsak betetzeko.**



gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia - Tel. 943 15 16 81 - Fax. 943 150 605

KIBUC Gure Ametsa

www.kibuc.com

**Maitane Fernandez Alcala** > Ileapaintzailea eta makillatzailea

# "Makillatzerakoan nire saltsan nabil eta horrek erlaxatu egiten nau"

Ile apaintzaile lanetan hasi eta makillajerako jauzia egin ostean hori du lanbide Oñatiko 22 urteko neska honek. Ikasketek Kataluniara eraman zuten eta Bartzelona aldameneko herri batean, Las Franquesas del Valles herrian bizi da. Telebistan, argazki saioetan, desfileetan... jardun du eta bere burua eta ingurukoak makillatzea ere oso gustuko du.









IRATI AGIRREAZALDEGI

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

**Lotsati eta burugogortzat du bere burua edergintza lanbidetzat duen Maitane Fernandezek. Lehiakorra ere badela esan digu eta gure galderekin borrokan dotore erantzun dizkigu galderak, makillatzaile on baten pazientziarekin.**

**Ile apaintzaile lanetan hasi eta makillajean diharduzu. Edergintzan nola hasi zinen?**

Betidanik nahi nuen ile apaintzaile izatea eta ikasketak egitera Gasteizera joan nintzen. Eskolan estetikako ikastaroa egin nuen eta ikasi nituen makillajea, depilazioa eta edergintza tratamenduak. Ikasketak hasi eta hilabetera lana aurkitu nuen Oñatin, ile apaindegi batean. Egun batean makillatzailea falta zen, haren tokia hartu nuen, eta gaur arte makillatzaile lanetan dihardut.

**Bartzelonara joan zinen makillaje ikasketak egitera. Makillaje berezia egiten duzu, ezta?**

Argazkilaritzako makillaje ikastaro bat egitera joan nintzen sona handiko akademia batera. Gero eman zidaten aukera urtebeteko ikastaroa egiteko eta zinemarako eta telebistarako makillajea, karakterizazioa eta protesi bidezko makillajea ikasteko.

**Ikasten ez ezik makillajean lanean jardun duzu. Zertan?**

Askotariko makillaje eta ile apaintze lanak egin ditut: telebista lokaletan (Canal Catalá eta Granollerseko telebistan), kabalgatetan, argazki saioetan, baita Gestmusicekoizpen etxerako ere. Filmetarako oraindik ez dut lanik egin, oso zaila da.

**Telebistatik zinemarako saltoa zaila dela diozu. Zer dela-eta?**

Ekoizpen etxeak ezagutu ezean zaila da. Gainera, Bartzelonan ez dago zinema lan handiak egiten dituen ekoizpen etxe askorik. Zineman jardutea litzateke gure nahia baina ezin bada, antzezlanetan jardutea ez legoke gaizki. Ahal dudanetan joaten naiz musikaletara, kontzertuetara… *Mamma mia* musikalean izan nintzen eta makillajea, orrazkerak eta arropak oso bereziak dira.

**Telebistarako, argazkietarako… gertatzeko zein berezitasun hartu behar da kontuan?**

Makillaje base eta hauts ezberdinak erabili behar dira eta arkatz eta kolore pila bat. Batik bat materiala eta kopuruak dira ezberdinak. Ez da pertsona bat berdin makillatzen kalerako edo telebistarako. Fokuek kolorea asko jaten dutenez, berdintzeko ohiko koloreak baino pare bat tonu ilunagoak erabiltzen ditugu. Eskolan protesiak ere egin ditugu, baina filmetan dihardutenak oso jende profesionala dira. Protesiek egun eta ordu askotako lana eskatzen dute.

**Bartzelonan bizi zara, Oñatirekin alderatuta gehiago gertatzen du bere burua jendeak?**

Askotariko jendea eta estiloak daude. Janzkera, orrazkera eta makillajean gauza ezberdin asko ikusten da. Hala ere, ideia askorik ez dugu hartzen, izan ere, esku artean dugun proiektuaren eta lanean norekin dihardugunaren arabera moldatzen ditugu orrazkerak eta makillajeak; irudi aholkulariek eurek zehazten dizkigute jarraibideak. Batzutan irudimenarekin ere jokatzen dugu.

**Jende famatua makillatu duzu?**

Askorik ez. *Gran Hermano* saioko *Fresita* edo Kataluniako telebistan ezaguna den bat edo beste bai, baina gainontzean ez.

**Zure burua makillatzen duzu?**

Bai, dezente. Egunerokotasunaren parte da. Gustuko dut nire burua ez ezik ingurukoak ere makillatzea. Makillatzen nabilenean nire saltsan ibiltzen naiz eta erlaxatu egiten nau horrek. Jendeak esaten dit ikusten dela benetan gustuko dudala nire lana.

**Zein da gustura utzi zaituen egindako makillaje bat?**

Egin nuen *book* bat eta asko gozatu nuen. 20 lagunekin mota askotako makillajeak egin nituen, errazetik zailenera (*drag queen* edo gorputzeko makillajea) erlojuaren aurka, hiru egunetan. Bartzelonako Pacha diskotekan ere gorputzeko makillajea egin genuen eta gero desfilea.

**Aisialdian zer egiten duzu?**

Denbora libre gutxi dut, baina sukaldean esperimentuak egitea gustuko dut, postreak egitea, esaterako. Moda aldizkariak ere irakurtzen ditut. Kirola, berriz, oso gutxi egiten dut; noiz edo noiz tenisean mutil lagunarekin.

**Aurrerantzean zein asmo duzu?**

Gustatuko litzaidake makillaje arloan gehiago ikastea. Bestalde, orain egingo ditudan administrari ikasketak eta makillajea uztartzea ere ez legoke batere gaizki.

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak?** Ile apaintzaile, estetika eta makillaje ikasketak. **Zaletatsunak?** Lagunekin eta etxekoekin egotea eta bidaia motzak. **Zein famatu makillatuko zenuke?** Sarah Jessica Parker edo Rihanna. **Ezpainetarako kolore bat?** Distiraduna. **Begietarako?** Marroia edo beltza. **Janzteko?** Beltza. **Zer ezin da falta zure poltsan?** Ezpainetakoa, rimela eta sakelakoa. **Bidaiatzeko toki bat?** Paris eta Erroma. **Bizitzeko?** Oñati. **Amets bat?** Daukadanarekin konformatzen jakitea eta zoriontsu izatea.




Google Chrome, nabigatzaileetan beste aukera bat. IMANOL SORIANO

**INTERNET** > NABIGATZAILEAK

# Kalean da dagoeneko Google Chrome nabigatzaile berria

Komiki baten bidez ilustratu du Google-ek web nabigatzaile berriaren zergatia eta funtsa; hainbat herrialdetan Windows-erako Beta bertsioa banatuko da

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Google Chrome garatu eta banatzen hasi da irail hasieran Google konpainia. Oraingoz, Beta bertsioa atera du, Windows-erako, hainbat herrialdetan, baina Mac eta Linux bertsioetan ere lanean dabiltza; horretaz gain, Google Chrome geroago eta azkarrago izan dadin ere lanean dihardute. Komiki baten bidez ilustratu du Google-ek web nabigatzaile berriaren zergatia eta funtsa. Firefox, Safari eta Opera nabigatzaileen ideia batzuk birlandu ditu Google-ek, eta, era berean, bere garapena zabala eta librea izatea nahi dute.

**EZAUGARRI NAGUSIAK**

Hainbat ezaugarri ditu nabigatzaile berri horrek: azkarrago eta seguruagoa izateko promesarekin jaio da; web aplikazioak arinago korritzeko pentsatua: adibidez, besteak beste, Gmail aplikazioaren integrazioaren adibideekin ilustratu du Google-ek bere proiektu berria; Javascript interpretatzeko motor berria, V8 izenekoa, propio garatutakoa; helbide-bilaketa barran, berez osatzen diren emaitzen agerpena –Firefox 3k bisitatuak gogoratzen dituen bezala, baina datu gehigarriekin ere bai, Google-ek iradokitako emaitzekin–; fitxak bai, baina helbide barraren gainetik interfazean, eta prozesu desberdinak garatuko direlarik fitxa bakoitzean. Itxi fitxa, eta haren prozesua itxiko da; irekitzean, gogokoen arteko pantaila txikituen mosaiko bat erakutsiko dizu Chromek; modu pribatua, *incognito* izenekoa. Log edo arrastorik ez dute utziko horrekin bisitaturikoek, eta ez dira azalduko hasierako mosaikoan ere; eta azkenik, bilaketa leihoak harrapatzeko aukera: zure webgune bisitatuenen bilaketa prozesuetako kutxatilak gogoratuko ditu Chromek eta helbidebarraren iradokizunetan edo hasiera-orriko mosaikoaren ondoan agertuko dira.

Dagoeneko kalean da. Guztira 50 hizkuntzatan, baina zoritxarrez euskarazko bertsiorik ez dago.

## teknologia berriak

> IRUDIA

### Mitsubishik 1080p pantaila merkaturatu du, erretroproiekzioarekin eta 65 hazbeterekin

Mitsubishiren LaserVue pantaila kalean da. 1080p eta erretroproiekzioa barne. BitStream-ek adierazi du HDTV handi horrek 4.858 euro (7.000 dolar)balioko duela.

Hilabete honen amaieran AEBetan (Ameriketako Estatu Batuak) hasiko dira saltzen. Eta Europara heltzen denean prezioa 7.000 euro izango da. Bestalde, 73 hazbetekoak oraindik ez du salneurririk, baina, itxura guztien arabera, handiagoa izanda garestiagoa ere izango da.



Pantailak 65 hazbete ditu. Europan merkaturatzen denean, prezioa 7.000 euro izango da.

> MP3 IRAKURGAILUAK

### Laugarren belaunaldiko iPod Nano berriak, itxura berriarekin eta bi hazbeteko pantailarekin

Apple-ek laugarren belaunaldiko iPod Nanoak aurkeztu ditu, ondorengo ezaugarriekin: itxura berria (aluminioa eta beira); bi hazbeteko pantailarekin; bederatzi kolore ezberdinetan salgai; Genius zerrendak: aukera horrekin iPod-ak musika estilo bereko zerrenda bat sortuko du, estilo bereko abestiak entzuteko. Azkenik, azelerometroa. Laugarren belaunaldiko iPod Nanoaren 8 GBko modeloak 139 euro balio du eta 6 GBkoak 189 euro.



Bi hazbeteko pantaila eta azelometroa daukate kaleratu berri diren modeloek.

> ORDENAGAILUAK

### Project Inkwell-en Spark, OLPCren sakelako ordenagailu txikia merkatuan da

Project Inkwell-ek Spark garatu du Ideo diseinu markarekin batera. Oso eramangarria den ordenagailua da eta UMPC forma dauka. Bere diseinua ez da umeendako bakarrik.

Spark-en tamaina PSPrena da eta alboak apaintzen dituzten Scroll-ak ume txikiendako arbelen modukoak dira. Pantaila ez da ukigarria, nahiz eta bertako irudiek hala diruditen, eta 35 hazbete ditu. Bluetootha, wi-fia, teklatu irristakorra, saguarendako zorroa eta bateria daukate.



Ordenagailu eramangarria, txikia eta umeendako zein nagusiendakoa izan daitekeen produktua da.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

## berriak

> ZORION AGURRAK

### Etxeko txikitxoak zorion ditzakezue Goiena Telebistan

Etxeko txikitxoak (0-12) urtebetetze egunean zorion ditzakezue Goiena Telebistan. Horretarako aukera zuzena *www.goiena.net* webguneak eskaintzen dizue. Zorion agurren tartea, gainera, itxuraldatuta dator oraingo ikasturtean: urtaroei egokitutako diseinuak egingo dituzte.

Etxetik sar ditzakezue webgunean zorion agurrak eta argazkiak, eta bertatik hartuko dira telebistan ipintzeko.

> 'MUSIKANTOI'

### Barricadak Aretxabaletan eman zuen kontzertua

Aretxabaletako Andramaixetan, abuztuaren 15ean hain zuzen, kontzertua eskaini zuen Barricada talde Nafarrak. Kontzertuan, herritar mordoaz gain, Debagoieneko beste herri batzuetatik joandako jendea elkartu zen. Goiena Telebista kontzertuan izan zen eta datorren asteko *Musikantoi* saioan eskainiko dituzte Barricadak Aretxabaletako kontzertuan eskaini zituen hainbat abesti.

> ARRASATE IRRATIA

### Mugikortasun kontuak eta beste, datorren astean

Mugikortasun Astea da datorren asteko hitzorduetako bat Arrasaten eta udalerriko irratian ere horrekin lotutako edukiak landuko dituzte. Horrez gainera, eguenean Udal Gazte Bulegoarekin bat egingo dute, gazteendako eskaintzaren berri helarazteko eta atzera ere entzun ahal izango dira uda sasoian oporretan izan diren irratsaioak: *Zaharrak Berri* eta *Ilunpean*, bestelakoen artean.

> ARRASATE IRRATIA

### Kubako doinuak entzutera joateko gonbidapena

Aquariuma bisiatzera joateko sarrera batzuk oraindik badituzte irratian zozketatzeko eta halaxe egingo dute datorren egubakoitzean. Horrekin batera, Kubako doinuak gustuko dituztenek aukera polita dute egubakoitzean 3.60 aretoan izango den kontzertura joateko, irratian sarrerak zozkatuko dituzte-eta. Vaniti Brown konpositoreak egingo du kontzertua. Zozketan parte hartzeko: 943 25 05 05 edo *irratia@goiena.com*.

**BERBAIRE** > EGUENA, 21:45

# Eguenetan izango da datorren astetik aurrera 'Berbaire'

Julen Iriondok aurkeztu eta zuzentzen duen saioa eguenetan izango da datorren astetik

**GOIENKARIA** > BERGARA

Gaurkotasuneko gaiak jorratzen dira Goiena Telebistako *Berbaire* saioan. Gizartean puri-purian dauden gaiak, eztabaida sortzen dutenak, politikoak, sozialak, ekonomikoak... Guztiek dute tokia *Berbaire* saioan. Gai horietaz berba egiteko, gainera, Debagoieneko hainbat pertsona ezagun etorri ohi dira Goiena Telebistako platora.

Datorren eguenean izango da oraingo ikasturteko lehenengo *Berbaire* saioa; lehen martitzen eta eguenetan izaten zen eta orain eguenetan izango da. Gaurkotasunarekin hitzordua beraz, GOITBn.



**JULEN IRIONDO** kazetaria da *Berbaire* saioko aurkezlea. GOIENKARIA

**'ERREPORTAJEA'** > EGUAZTENA, 21:15

# Erreilenoak eta tostoiak dira ikasturteko lehen erreportajeko protagonistak

**GOIENKARIA** > BERGARA

Bergara Debagoienetik kanpora ezaguna egin bada, hori erreileno eta tostoiek duten famagatik izan da, beste batzuen artean.

Hain zuzen ere, bergararrek urte luzeak daramatzate bi goxo horien izena eta tradizioa mundúan barrena zabaltzen eta urteak daramatzate, baita ere, bi goxo horien zaporeaz eta historiaz gozatzen.

Gaur egun, hiru gozo-dendatan egiten dituzte Bergaran erreilenoak eta tostoiak; Larrañaga, Raizabal eta Mujikan, hain zuzen ere. Hirurek ere 100 urte inguruko esperientzia dute erreilenoak eta tostoiak egiten eta familiako negozioak dira; hain justu, familiako hiru eta lau belaunaldi pasatu dira gozo- denda horietatik eta duten berezitasun garrantzitsuenetako bat da gozo- dendan bertan egiten dituztela Bergaran eta handik kanpo horren ezagunak diren goxoak.

Datorren astetik aurrera, *Erreportajea* saioa ere egunez aldatuko dute Goiena Telebistan, eta astelehenetan beharrean, eguaztenetan izango da, gaueko bederatzi eta laurdenetan.

## telebegi

**Oihane Agirre**

### Eguraldiari so

Ezer gutxi ikusi dut telebista oporretan. Egiteko beste mila gauza bururatzen zaizkit, beti ere eguraldiak laguntzen badu. Horixe da telebistan opor sasoian erakartzen nauena: eguraldia. Kanpoan izan naizen lehenengo hamabostaldian ez diot jaramonik egin, baina etxera itzultzean zer erremedio! Gaueko hamarrak bueltan etxeko guztiak telebistara erakartzen ditut tarte hau ikusteko, eta badakit beste etxe batzuetan ere hala izaten dela. ETB izaten da beti nire aukera. Duda barik, ikusle kopuru polita izango du tarte honek, bestela zergatik hainbeste iragarki aurretik? Gero eta iragarpen ausartagoak egiten dituzte, astebetera zer eguraldi izango dugun esanez. Ikusleek bidalitako argazkiek ere janzten dute eguraldiaren tarte hau. Baina beti-beti ezin asmatu!

Sinesgarritasunik handiena, Pello Zabalak Euskadi Irratian eskaintzen duen iragarpenak dauka niretzat. Honek astebeterako iragarpena egiten digu zapaturo irratian. Badakit laster, egunero, telebistan ere arituko dela eguraldi iragarpena egiten. Baina zein katetan?

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 12**
**13:15** Emisio hasiera. **13:15** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Eltze beroa. **14:45** Berriak **15:15** Sustraiez blai **15:45** Gaurkoak. **15:47** Erreportajea. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** lunpean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi. **19:45** Berriak **20:15** Marrazkiak. **20:45** Berriak. **21:15** Eltze Beroa. **21:45** Erreportajea. **22:15** Erreportajea. **22:45** Berriak. **23:15** Ilunpean. **23:45** Musikantoi **00:15** Emisio amaiera.

**Zapatua, 13**
**11:40** Emisio hasiera. **11:45** Marrazki bizidunak. . **12:45** Erreportajea. **13:15** Eltze beroa. **13:45** Erreportajea. **14:45** Ilunpean **15:15** Marrazki bizidunak. **18:15** Eltze beroa. **18:45** erreportajea. **19:15** Berbaire. **20:15** Eltze beroa. **20:45** Erreportajea. **21:15** Ilunpean. **21:45** Musikantoi. **22:15** Erreportajea. **22:45** Ikuskizuna. **23:15** Musikantoi. **23:45** Ilunpean. **00:15** Emisio amaiera.

**Domeka, 14**
**11:40** Emisio hasiera. **11:45** Marrazki bizidunak. . **12:45** Erreportajea. **13:15** Berbaire. **14:15** Erreportajea **15:15** Marrazki bizidunak. **18:15** Eltze beroa. **18:45** erreportajea. **19:15** Erreportajea. **19:45** Sustraiez blai **20:15** Eltze beroa. **20:45** Erreportajea. **21:15** Ilunpean. **21:45** Musikantoi. **22:15** Erreportajea. **22:45** Ikuskizuna. **23:15** Musikantoi. **23:45** Ilunpean. **00:15** Emisio amaiera.

**Astelehena, 15**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Muka muka. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea . **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ikuskizuna. **16:15** Eltze beroa **16:45** Erreportajea **17:45** Gaurkoak. **17:47** ILunpean . **18:15** Marrazkiak: Muka Muka. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak: Muka Muka **20:45** Berriak. **21:15** Eltze beroa **21:45** Euskal Artzainak Ameriketan. **22:15** Erreportajea **22:45** Berriak. **23:15** ILunpena **23:45** Musikantoi . **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 16**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Futbola **13:45** Gaurkoak. **13:47** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ikuskizuna **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Berbaire. **18:15** Marrazkiak: Futbola. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak: Futbola **20:45** Berriak. **21:15** Eltze beroa **21:45** Euskal Artzainak Ameriketan. **22:15** Erreportajea **22:45** Berriak. **23:15** ILunpena **23:45** Musikantoi. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 17**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Muka muka. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea . **15:45** Gaurkoak **15:47** Ikuskizuna. **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Euskal Artzainak Ameriketan **17:45** Gaurkoak. **17:47** ILunpean. **18:15** Marrazkiak: Muka Muka. **18:45** Berriak. **19:15** Marrazkiak: Muka Muka **19:45** Berriak. **20:15** Zaharrak berri **20:45** Berriak. **21:15** Erreportajea. **22:00** Euskal Artzainak Ameriketan. **22:30** Erreportajea **23:00** Berriak. **23:30** ILunpean **00:00** Musikantoi. **00:30** Emisio amaiera.

**Eguena, 18**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zaharrak berri. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea. **16:00** Gaurkoak. **16:02** Ikuskizuna **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Euskal Artzainak Ameriketan. **17:45** Gaurkoak. **17:47** ILunpean . **18:15** Marrazkiak: Futbola. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak: Futbola **20:45** Berriak. **21:15** Eltze beroa **21:45** Berbaire. **22:45** Gaurkoak. **22:47** Musikantoi . **23:15** Ilunpean. **23:45** Erreportajea. **00:15** Emisio amaiera.

www.danbaka.com

DANBAKA

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA**DEBAGOIENA**DURANGALDEA

# PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak ere sari bera eskuratuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago: **www.danbaka.com**.

irailak 19 izena emateko azken eguna



IEFPS Aretxabaleta GLHBI

*Etxebarri auzoa, z/g*
*Tel.:943 79 79 00 / 943 77 09 55*
*E-mail: ia@iaretxabaleta.com*
*Web orria: www.iaretxabaleta.com*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

IQNet
AENOR ER
Euskadi 2006

## Bi baldintza hauek betetzen badituzu, erraza da lan egiten duzun bitartean "Erizain laguntzaile" titulu ofiziala ateratzea

Gutxienez 18 urte izatea eta

Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:

- **2.BBB**
- **LH1**
- **EE2**
- **DBH**

***Etor zaitez IEFPS ARETXABALETA GLHBIra eta informatu***
***Matrikulazio epea irailaren 26an bukatzen da.***

# Irailak 12-18

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



ARAMAIO

**> Betiko rocka joko du Madrilgo Burning talde aitzindariak gaur Aramaion**

Kontzertu berezia izango da gaur Aramaioko plazan, 23:30ean: Madrilgo Elipa auzoko Burning taldea etorriko da. 30 urteko ibilbidea atzean dutela, rock nostalgikoa eta kastizoa egiten dute, "galtzaileendako eta bakartiendako".

## Ikuskizuna



ARRASATE

**> 'Locomotivo' bakarkako zirku ikuskizuna izango da Arrasateko plazan**

Manolo Alcantara *Solomanolo* aktoreak *Locomotivo* ikuskizuna egingo du etzi, domeka, Herriko Plazan, 19:30ean. Zirku ikuskizuna da eta mugimendua, ezohikotasuna, sormena… bateratzen ditu.

## Jaia



OÑATI

**> Haurren Eguna ospatuko dute etzi, domeka, San Migelen atari**

Oñatzez gain, Euskal Herri osoko beste 13 ume dantzari talde ibiliko dira etzi Haurren Egunean; 550 ume eta 160 arduradun. 09:00etan kalejira egingo dute, eta hainbat ospakizun egin ondoren, 17:00etan alardea egingo dute.

## Antzerkia

BERGARA

**> 'Hnuy Illa' antzerki eta dantza emanaldia egingo dute**

Kukai dantza konpainiak eta Tanttaka antzerki taldeak prestatuta eta Mireia Gabilondo bergararrak zuzenduta, *Hnuy Illa* antzerki eta dantza emanaldia izango da pilotalekuan, 20:00etan.

Joseba Sarrionandiaren poesian du oinarria, eta Jon Maiak egin du koreografia.

Etzi, domeka, pilotalekuan, 20:00etan.

ARETXABALETA

**> 'Honolulu, leku bat' delako antzezlana ikusteko aukera**

*Honolulu, leku bat* delako antzezlana egingo du Gilkitxaro antzerki taldeak.

Etxebizitzaren jabe izatea gaur egungo mendebaldeko gizakion ezinbesteko nahi bihurtu da. Egoera aztertzeko Elmer eta Lulu, tokian toki eta lekuz leku esperimentatzen ari dira. Etxebizitzak alaitasuna, jakinduria, maitasuna, dibertimendua eta adimena ordezkatu ditu. Egoerari aurre egiteko… Luluk eta Elmerrek, sistema enpiriko propioa sortu dute.

Galder Perezek idatzitako lanak gaur egungo bizitza ulertzeko moduaz hitz egiten du… Batzuetan, komikoki gertatzen dira gauzak; beste batzuetan, poetikoki, betiere ukitu absurduak ahaztu gabe.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:00etan. Prezioa: 10 euro.

ARETXABALETA

**> Umeendako antzerki musikal emanaldia egongo da**

*Hamaika koloretan dantza* delako antzerki musikala egongo da, 3 urtetik gorakoendako. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 17:00etan.

BERGARA

**> 'Hitzen lapurra' bertsotxongiloa egingo dute gaur, barikua**

Jardun euskara elkarteak antolatuta, *Hitzen lapurra* delako bertso eta txotxongilo emanaldia egongo da gaur arratsaldean, San Martin jaien barruan.

Enkarni Genuak idatzitako istorioa da, eta Gorka Tolosa, Erika Lagoma eta Oskar Estanga dira aktoreak. Libe, Ander eta Amaia dira pertsonaiak; hitzekin jolas egiten dute. Halako baten, baina, zapi beltzez estalitako norbait agertuko da, hitzen lapurra, alegia, eta ikusleen laguntza beharko dute hari aurre egiteko.

Ikuskizuna 3 eta 8 urte arteko umeei dago zuzenduta, batik bat.

Gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 18:30ean.

## Erakusketak

ESKORIATZA

**> Jose Aranaren inguruko erakusketa bisitatzeko parada**

Jose Aranaren heriotzaren mendeurrena dela eta, haren gaineko erakusketa ikus daiteke Ibarraundi museoan. Bisita ordutegia hauxe da: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Urria arte egongo da zabalik.

OÑATI

**> Corpus prozesioko irudiak erakusketan ipini dituzte**

Corpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute. Parrokian daude ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30.

Urriaren 26ra bitartean dago zabalik.

ARRASATE

**> 'Islama, guztion ondarea' delako erakusketa ipiniko dute**

*Islama, guztion ondarea* delako erakusketa didaktikoa ipiniko du Elkarhezitzen taldeak gaur, egubakoitza. Islamaren zibilizazioak egindako ekarpena azalduko du erakusketa horrek.

Kulturaten egongo da erakusketa, martitzenetik domekara: 17:30-20:30.

BERGARA

**> Txomin Amasorrainen argazkiak ikusteko aukera**

Txomin Amasorrain, arrasatearra baina Bergaran bizi izan zena, gogoratzeko erakusketa dago Aroztegi aretoan, jaio zela 100 urte betetzen direlako. Haren argazkiak oso lotuta daude Bergararekin eta Labegaraietako lantegiarekin.

Aroztegi aretoan, hilaren 16a arte.

PROPOSAMENA

BERGARA

### > San Martin jaietako azoka egingo dute bihar, zapatua

Egunotan hainbat ekintza egon arren, bihar, zapatua, hasiko dira San Martin jaietako ekitaldi nagusiak: barazki, fruta eta gazta azoka eta lehiaketa egingo dute izen bereko plazan, 10:00etan, sari banaketarekin, eguerdian; horrez gain, goizean, odoloste-dastatzea,eta arratsaldean, zirkua, zezentxoak eta poneyak, umeendako jolasak eta tailerrak… egongo dira.

Ospakizunek etzi, domeka, jarraituko dute.



ARETXABALETA

**> Nafarroaren gaineko argazki erakusketa dago Arkupen**

Hil osoan, *Navarra a la carta* delako erakusketa dago zabalik, izen bereko liburuan oinarrituta. Argazkien bidez, Nafarroako historia, kultura, natura eta gastronomia ondarea ezagutaraztea da helburua.

Ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

## Musika

ARRASATE

**> Suburban Rebels, Last Rebels eta The Crackers taldeak**

Kontzertua egongo da 3.60 aretoan: Suburban Rebels, Last Rebels eta The Crackers taldeek joko dute.

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean.

ARAMAIO

**> Jazzaukera kontzertua egongo da gaur, egubakoitza**

Vital Kutxa erakundearen eskutik, Jazzaukera delako musika emanaldia egongo da. Sarrera doan da.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 20:00etan.

ARRASATE

**> Decepcion Rock taldeak kontzertua egingo du**

Arrasateko Decepcion Rock punk-rock estiloko taldeak musika emanaldia egingo du.

Gaur, egubakoitza, Etxoste tabernan, 21:00etan.

## Lehiaketak

BERGARA

**> San Martinetako margo lehiaketa jokatuko dute etzi**

Ageriko margo lehiaketa izango da etzi, domeka. 35. aldia du. Euskarriak lehiaketa egunean, 09:00-11:00, Bergarako kultura etxean markatuko dira. Lanak, bukatuta, 13:00etatik 14:00etara bitartean entregatu beharko dira.

Honako sariak emango dituzte: 480, 360, 240, 210 eta 162 euro eta garaikurra; 23 urtetik beherakoen kategorian, 180, 90 eta 60 euro eta garaikurra.

Etzi, domeka, jokatuko da lehiaketa.

ARAMAIO

**> VI. Zuiako Koadrilako argazki lehiaketa deitu dute**

*Zuiako Koadrilari begirada bat* izenburuarekin, argazki lehiaketa deitu dute. Koadrilako sei udalerrietan hartutako argazkiak aurkez daitezke. Edozeinek har dezake parte. Honako helbidera bidali behar dira lanok: Zuiako Koadrila; Udaletxeko plaza 1, 2. ezk.; 01130 Murgia (Araba). Honako sariak daude: 400, 300 eta 200 euroko sari bana eta euskal

buztingintzako pieza bana; horiez gain, herri bakoitzeko, 75 euroko sari bana.

Argibideak: *www.cuadrilla-zuia.com* edo 945 43 01 67.

Mugaeguna urriaren 22a da.

OÑATI

**> San Migel jaietako leloa aukeratzeko lehiaketa**

Laixan elkarteak jaietako esaldi lehiaketa deitu du. Aker, Aloña Mendi, Guria, Arrano, Luis eta Ona tabernetan utzi dituzten kaxetan utzi behar dira esaldiok, norbere izen-abizenarekin. Esaldia jaietako pegatinetan ipiniko du Laixan elkarteak.

60 euroko saria emango dute.

ARRASATE

**> Bidaien gaineko 'Gomendatzen Dizut!' sariketa**

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Bulegoek antolatuta, *Gomendatzen Dizut!* oporretako gomendio lehiaketa dago zabalik. 12tik 34ra urte artekoek parte har dezakete.

Argibideak, Gazte Informazio Bulegoetan edo *www.aizue.com* webgunean.

BERGARA

**> Film laburren lehiaketa deitu dute debagoiendarrendako**

III. Film Laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak, Debagoienean bizi den edozeinendako. Gaia eta generoa libreak dira. 400 eta 300 euroko sariak eta, bi horietan bergararrik ez badago, bergarar onenarendako 150 euroko saria emango dituzte. Lanok Bergarako kultura etxean aurkeztu behar dira.

Argibideak: *www.bergara.net*, edo 943 77 91 60 telefonoan.

## Ospakizunak

ARRASATE

**> Umeendako festa antolatu du Txatxilipurdik gaurko**

Ludoteketan eta gazte txokoetan ere ikasturtea hastera doala-eta, 3-12 urte arteko umeendako jaialdia antolatu du Txatxilipurdik. Aurpegi margotzea, zirku tailerra… izango dira, besteak beste.

Gaur, egubakoitza, Usaetxe plazan, 17:00etan.

LANDA

**> Extremadurako Eguna ospatuko dute Arrasatekoek**

Arrasateko Corazon de Encina Extremadurako kultura elkarteak Landan ospatuko du Extremadurako Eguna. 10:30ean, sardinak eta ardoa banatuko dituzte, eta ohorezko topa egingo dute; gero, Extremadurako ereserkia abestuko dute. Karta-joko –kuatrola eta txintxona–, sukaldaritza –gazpatxoa, gazta, sandia handienarena, tortilla, ardoa, meloi pisutsuenarena…– eta sokatira txapelketak egongo dira, besteak beste. Ekitaldiak 20:00ak inguruan bukatuko dira.

Bihar, zapatua, Landan.

# Zinema



## Hace mucho que te quiero **

**Zuzendaria:** Philippe Claudel.
**Aktoreak:** Kristin Scott Thomas, Elsa Zylberstein, Serge Hazanavicius.
Frantzia-Alemania, 2008.
110 min. 13 urtetik gorakoendako.

Philippe Claudel idazle eta gidoilariak zuzendari moduan egiten duen lehen filmean, *Hace mucho que te quiero*, emakume batek eguneroko bizitzara bueltatzeko egiten dituen ahaleginak kontatzen dizkigu. Filma, batez ere, sentimenduei buruzko istorio bat bada ere, gertatzen dena azaltzeko suspentse egitura erabiltzen da, eta informazioa pixkanaka-pixkanaka aditzera ematen zaigu: 15 urtean elkar ikusi ez duten bi ahizpa berriz elkartuko dira, eta ahizpa zaharrena (Kristin Scott Thomas) kartzelan izan dela jakingo dugu; gero, hilketa batengatik izan dela; geroago, hildakoa nor izan den; eta bukatzeko, hilketa horren arrazoiak jakingo ditugu. Pertsonaia nagusiak beste pertsonaiekin izango dituen harremanak garatuz joango dira: ahizparekin, honen familiarekin, gizarte laguntzailearekin, poliziarekin eta sortzen diren harreman sentimentalak.

*Hace mucho que te quiero* lan neurritsua da; kamerak, denbora askoan, Kristin Scott Thomasen aurpegia erakusten digu, eta aktorearen lan bikainak pertsonaiari sakontasuna ematen dio, honen sufrimendua oso ondo adieraziz. Filmak Frantzian egiten den zinemaren dotorezia du, baina, aldi berean, naturaltasuna falta zaio: elkarrizketa batzuk; familiak, eszena batzuetan, iragarki batetik ateratakoa dirudi; egoera eta eszena batzuk nahiko bortxatuak dira; esate baterako, ahizpak klaseak ematen ari denean duen haserrea. Horrela, filmak kartoi itxura hartzen du, armazoia gehiegi ikusten da, denak bere tokian egon behar du, eta azkenean, txepel samar geratzen da. Dena den, film handia ez bada ere, aktoreak (Kristin Scott Thomas, Elsa Zylberstein) ondo daude, istorioak badu interesa… Beraz, ondo ikus daitekeen lana da.

**Antonio Zabala**

**ARRASATE**
**MONTERRON PARKEA**

**27 vestidos**
Egubakoitza: 22:30.

**ELGETA**
**ESPALOIA**

**Bajo las estrellas**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Hancock**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**El tren de las 3:10**
Egubakoitzetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

**Wall-E**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Che, el argentino**
17:00, 19:45, 22:30.

**Viaje al centro de la Tierra**
17:00, 18:50, 20:30, 22:30.

**El espíritu del bosque**
17:00, 18:35, 20:00.

**El caballero oscuro**
22:00.

**El tren de las 3:10**
17:00, 19:45, 22:30.

**Carlitos y el campo de los sueños**
17:30.

**Hellboy 2**
20:00, 22:30.

**Zohan, licencia para peinar**
17:30.

**Hace mucho que te quiero**
20:00, 22:30.

**Wanted**
17:30, 20:00, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Los girasoles ciegos**
18:00, 20:15, 22:30.

**El espíritu del bosque (euskaraz)**
17:30.

**Historia de un secuestro**
20:00, 22:30.

**Wall-E**
18:00.

**Una palabra tuya**
20:15, 22:30.

**El rey de la montaña**
18:00, 20:15, 22:30.

**La conjura de El Escorial**
17:30, 20:00, 22:30.

**Mamma mia!**
17:30, 20:00, 22:30.

**Un verano en Provenza**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO**
**CINEPLEX-GORBEIA**

**Che, el argentino**
12:15, 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.

**La conjura de El Escorial**
19:00, 21:45, 00:30.

**Wanted (se busca)**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Viaje al centro de la Tierra**
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**La isla de Nim**
12:15, 15:55, 17:55, 19:55.

**Hellboy 2**
12:15, 15:40, 17:00, 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:00, 00:30.

**Los girasoles ciegos**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Star Wars: the clone wars**
12:15, 16:50.

**Zohan, licencia para peinar**
17:45, 19:55, 22:05, 00:15.

**Una palabra tuya**
21:55, 23:55.

**Bangkok dangerous**
20:35, 22:35, 00:35.

**El caballero oscuro**
12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

**Wall-E**
12:15, 16:35, 18:35.

**Mamma mia!**
18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**El tren de las 3:10**
12:15, 15:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

**El espíritu del bosque**
12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

**Hancock**
21:45, 23:45.

**Carlitos y el campo de los sueños**
12:15, 16:00.

**Space chimps**
12:15, 16:05.

**Kung Fu panda**
12:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO**
**BOULEVARD**

**El caballero oscuro**
16:05, 19:05.

**La isla de Nim**
16:00, 18:10, 20:15, 22:20.

**El rey de la montaña**
16:05, 18:15, 20:15, 22:20, 00:30.

**Hellboy 2**
16:30, 17:00, 19:20, 22:00.

**La conjura de El Escorial**
19:30, 22:15, 01:00.

**Wanted (se busca)**
15:50, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Street dance (step up 2)**
20:30, 22:40, 00:45.

**Viaje al centro de la tierra**
16:10, 18:20, 20:20, 22:25, 00:30.

**Che, el argentino**
16:30, 19:15, 22:10, 00:45.

**Zohan, licencia para peinar**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**El tren de las 3:10**
20:00, 22:30.

**Mamma mia!**
16:00, 18:15.

**Bangkok dangerous**
22:05.

**Espíritu del bosque**
16:20, 18:05.

**Mi ligue en apuros**
16:15, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.



**27 vestidos** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Anne Fletcher. Aktoreak: Katherine Heigl, James Marsden, Malin Akerman, Judy Greer, Edward Burns.
107 min. 7 urtetik gorakoendako.
Protagonista Jane da, emakume gazte erromantikoa eta idealista. Inguruko neskak ezkontzen doaz, eta Jane gonbidatua da beti. Halako baten, Tess ahizpa txikia George konkistatzen du, Jane-k ere maite duena. Bestalde, Kevin kazetaria agertzen da.

Ezteietan gonbidatu, baina ez ezkontide, izan den Jane da filmeko protagonista.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Hellboy 2** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo del Toro. Aktoreak: Ron Pearlman, Selma blair, Doug Jones, John Hurt.
120 min. 7 urtetik gorakoendako.
Gizakion eta Lurreko lehenengo seme-alaben arteko bakea apurtu egiten da. Nuadak, lur azpiko munduko printzeak, hiltzeko makinen gudarostea antolatzen du. Hellboyk bakarrik egin ahal izango die aurre.

**El caballero oscuro** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Christopher Nolan. Aktoreak: Christian Bale, Heath Ledger.
142 min. 13 urtetik gorakoendako.
Batman Begins filmaren jarraipen horretan, Batman-ek arrisku gehiago onartzen ditu Gotham hiria menderatzen duten talde kriminalak ezabatzeko.

**La isla de Nim** ***
AEB, 2008. Zuzendariak: Jennifer Flackett eta Mark Levin. Aktoreak: Abigail Breslin, Jodie Foster, Gerard Butler.
92 min. Denondako.
Nim-en uhartean edozer gauza gerta daiteke. Nim izeneko neskato bat bizi da han, animalia exotikoez, liburuez eta legendaz inguratuta. Alex Rover abenturazalea da bere literaturako pertsonaia gogokoena.

**Wanted (se busca)**
AEB, 2008. Zuzendaria: Timur Bekmambetov. Aktoreak: James McAvoy, Morgan Freeman, Angelina Jolie.
110 min.
Wes-ek 25 urte ditu eta nagia eta aspergarria da. Halako baten, Fox izeneko emakume bat ezagutuko du. Wes-en aita hil egingo dute, eta Fox-ek Wes Anaitasuna delako elkarte sekretu batera erakartzen du, mendeku bila.

**Mi ligue en apuros**
AEB, 2005. Zuzendaria: Randal Kleiser. Aktoreak: Amanda Bynes, Chris Carmack, Jamie-Lynn DiScala.
87 min. 7 urtetik gorakoendako.
Jenny gazteak betidanik maitatu eta mirestu du Jason Masters rock izarra. Hura ikusteko, San Lucas uhartean lana topatzen du, Jason-ek oporrak han ematen dituelako.

**La momia 3** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Rob Cohen. Aktoreak: Brendan Fraser, María Bello, Jet Li, John Hannah.
92 min. 7 urtetik gorakoendako.
Ustezko heriotzera kondenatuta, Dragoi enperadore txinatar krudela eta bere 10.000 gerlariek mendeak pasa dituzte lurrezko hilobietan.

**Che, el argentino** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Steven Soderbergh. Aktoreak: Benicio del Toro, Demián Bichir, Santiago Cabrera, Elvira Mínguez.
131 min. 7 urtetik gorakoendako.
1952an, Fulgencio Batista generalak Kuban estatu kolpea egiten du, gobernua mendean hartzen du eta hauteskundeak bertan behera uzten ditu. Fidel Castro abokatu gazteak matxinada bultzatzen du Moncada kuartela hartuta.

## nire aukera



Jaione Zubizarreta
Disdirako ile-apaintzailea
Bergara

## "Errioxan egoten gara astebururo"

Errioxara joaten gara asteburu gehienetan. Najera ondoko herri txiki batean dugu etxea eta oso gustura egoten gara han. Mendia gustatzen zaigu eta herrian bertan dugu hori. Ibilaldi asko daude egiteko; oso leku polita da.

San Martinak direnez, datorren astelehen eta martitzenean jai hartuko dugu ile-apaindegian. Asteburua Errioxan eman ondoren, herrira etorriko gara, jaietara. Aukeratzerik izango banu, Salamancara edo Sevillara joango nintzateke asteburua pasatzera. Behin egon naiz bietan, eta oso politak dira.

**Zenbat urte daramatzazu ile-apaintzaile? Orrazkera arraroak izan dituzu?**
19 urte, guztiak Disdiran. Orain pixka bat lasaitu arren, oso ausarta izan naiz. Asko gustatzen zait aldatzea.

**Nola zaintzen duzu ilea?**
Ilea dekoloratuta daukadanez, zaindu beharra daukat: uda partean beti erabiltzen ditut eguzkitarako produktuak, eta neguan zehar, txanpu eta maskarilla onak. Bi hilabetetik behin puntak moztea gomendagarria izaten da; jendea ilea moztera ere animatzen dut.

**Ilea zure lana izateaz gain, zure zaletasuna ere bada.**
Nire zaletasun bakarra da. 17 urte nituenetik hemen nago, buru artean, eta oso gustura. Norbaitek "nahi duzuna egin" esaten didanean, niretzako mundiala izaten da.

**Irailean jende asko joaten da zuengana?**
Kloroak eta hondartzak hondatu egiten dituzte ileak. Hilabete honetan koloreak berriztatzen ditugu, eta puntak moztu.

**Ze kolore eramango dira udazkenean?**
Pastel koloreak eramango direla uste dut, aurreko urtean bezala. Hala ere, datorren hilean Londresko feriara goaz, eta bertan ezagutuko ditugu tendentzia berriak.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-09-12

# Antzuolatik azeleragailura

**LANTEGIA** Antzuolako Elay lantegian egin dituzte LHC azeleragailu sonatuarendako pieza batzuk

**ZAILTASUNAK** Piezen diametro handia eta leuntasunaren tolerantzia txikia dira teknologiarekin aurre egiteko oztopoak

**IZEN ONA** Horrelako proiektu batean parte hartzeak bezeroen aurrean ateak zabaltzen dizkio Elayri

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Hasi da martxan Large Hadron Collider (LHC) azeleragailua. Horrekin, unibertsoa sortu zeneko baldintza fisikoak birsortu nahi dituzte. Esperimentu fisiko handi horrek hasiera arrakastatsua izan du. Tramankuluaren gainean berbetan dihardugu, besteak beste, CERN laboratetegiak Antzuolako Elay enpresari eskatu dizkiolako makinaren hainbat pieza.

Urte askoko lana izan da Elay lantegikoendako. "Lehenengo piezak 2000. urtean bidali bagenituen ere, CERN-ekoekin lehenago hasi ginen harremanetan", esan digu Elayko Joseba Otañok.

Azeleragailuarendako piezak egitea erronka izan da Elaykoendako. Joseba Otañoren esanetan: "Pieza handiak dira, 500 milimetroko diametroa eta leuntasunean tolerantzia oso estuak dituztenak, eta horrelako piezei gure teknologiekin aurre egiteak zailtasunak ere ekarri ditu".

Piezak partikula azeleragailuaren barneko dipolo magnetikoetan kokatu dituzte.

**LANTEGIARENDAKO PRESTIGIOA**

Joseba Otañok esan digu horrelako proiektu batean parte hartzea oso garrantzitsua dela enpresarendako: "Prestigioa ematen digu azoketan bezeroei erakusteak horrelako piezak egiteko eta CERN-ekoa bezalako jendearekin harremanak lortzeko gai garen enpresa garena. Horrek ate gehiago zabaltzen dizkigu".

Zientzialariek tramankulua ondo dabilela frogatu dute asteon eta hori zoriontzeko modukoa izan da Elaykoendako. "Tokatzen zaigun neurrian enpresa eta langileak zoriontzea dagokigu, eta, noski, baita CERN ikerketa etxea ere", esan digu Otañok.

Pozik daude horrelako sona lortu duen proiektuko parte direlako, baina Joseba Otañok argi utzi duenez: "Proiektu puntuala izan da eta gure piezak beste milakaren artean dauden piezak besterik ez da. Nahiko genuke aurrerantzean ere horrelako lanetan jardun, baina zaila izango da etorkizunean neurri horretako proiektu bat aurrera ateratzea".



**ELAY** Proiektuak iraun duen bitartean, hiru milioi pieza egin dituzte Antzuolako lantegian. ELAY

## ahobero

### "Egoera fisiko onenetik %65-70ean nago, baina entrenatzaileak jokatzeko eskatzen badit, ni prest nago"

**Necati Ates** > Realeko jokalaria

Oso desesperatuta egon beharko litzateke Juanma Lillo turkiarra zelaira ateratzeko. Bestalde, oso profesionala ez da talde berri batekin fitxatu eta erdipurdi eta kilo batzuk gehiagorekin agertzea.

## iturri onetik

### Bergarako moto-kros proba atzeratu egingo dute zirkuiturako lur faltarengatik

Irailaren 14an ziren egitekoak Bergaran, Osin zaharrean, moto-krosa. Proba egitea ezinezkoa da, ordea, eta hilabetez gutxienez atzeratu egingo dute. Zirkuitu erdia gertu badago ere, lurra falta zaie gainontzekoa egokitzeko. Izan ere, hondakinak daude (hodiak, alanbreak...), eta hori arriskutsua da. Bestalde, baimena eskatuta dute zirkuitu iraunkorra egiteko eta Udalaren erantzunaren zain daude.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Morboa

Haur nintzela, bazen kazeta bat –*El Caso*– bortxakeria eta odola gai bakartzat ibiltzen zituena. Ez zen asko saltzen, eta erosle apurrek kasik ezkutuan irakurtzen zuten. Izan ere, horrelako gaietan interesatuak ez zirudien buruz oso sanoa.

Egun, telebistako edozein albistegiren erdia aisa betetzen dute hilketa eta atentatuek, berdin da gerran, drogan, trafikoan, genero indarkerian edo psikopatia batean duten iturria. Eta xehetasun guztiekin emango zaizkigu, behin eta berriro, albistegi guztietan eta bertara joandako erreportarien ahotik zuzenean.

Morbo hau ez da normala. Iparraldeko lagun batek esaten dit sarri: "Nola jar dezakezue istripu arrunt bat lehen mailako albiste?". Horretan ere, gero eta espainolago jokatzen dugu, nonbait.

## ai, ene!



### Bizikletarendako segurtasun kateak

Segurtasun arazoak izanez gero ez dakigu nola jokatzeko gai garen, baina arazoak larria izan behar du bizikleta horrela babesteko.

www.nopuedocreer.com/noticias



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51